

## ■ Euskal Autonomia Erkidegoko II. Ingurumen Esparru Programa

■ Etorkizuna diseinatzeko



2007  
2010



■ Euskal Autonomia Erkidegoko  
II. Ingurumen Esparru Programa

■ Etorkizuna diseinatzeko



2007  
2010



© IHOBE 2007

**Argitaratzailea:**

Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa – IHOBE

**Diseinua eta diagramazioa:**

Dual <sup>XJ</sup> - Comunicación & Diseño

**Itzulpena:**

Elebi Komunikazioa, S.L.

**Lege gordailua:**

BI-3010-07

Paper birziklatuan eta klororik gabe zurituan inprimatua

**ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA**

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitartekoa edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.



**Juan José Ibarretxe**

Euskal Autonomia  
Erkidegoko Lehendakaria

**E**usko Jaurlaritzako Kontseiluak Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 onartu zuen 2007ko ekainaren 5ean Urdaibaiko Erreserban. Programa horrek definitzen du gure herrialdearen ingurumen-politikak nondik joko duen hurrengo lau urteetan.

Garapen Iraunkorraren *Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020)* barruan sortu den bigarren Esparru Programa da honako hau. Dokumentu horretan islatzen da Gobernu honek garapen iraunkorraren alde egindako apustua.

Esparru Programa berria asmo-deklarazio bat baino gehiago da, 44 konpromiso hautemangarri finkatzen baititu. Hori da, hain zuzen ere, bere bertute nagusia: konpromiso bakoitzaren betetze-eta arrakasta-maila neurtu ahal izango da denboraldiaren amaieran.

Euskal gizarteak, oro har, hartzen dituen konpromisoak oinarrizko lau lehentasun hauek izango ditu: klima-aldaketari aurre egitea eta horren ondorioetarako prestatzea; biodibertsitatearen babesa sendotzea eta handitzea; hiriguneetako ingurumen-kalitatea hobetzea, eta, bide batez, pertsonen bizi-kalitateari eustea (Euskadiko biztanleen % 80 hiriguneetan bizi da); eta aurrerapausoak ematea ingurumenarekiko iraunkorra den kontsumoa eta ekoizpena lortzeko bidean.

Lehendakari naizenez, ezin dut azpimarratu gabe utzi gizarteko eta enpresetako agente nagusien eta Euskadiko erakunde publikoen 300 ordezkari baino gehiagok zuzenean eta aktiboki parte hartu dutela Esparru Programa berri honetan. Gainera, Nazio Batuek eta Europako Batasunak sustatutako estrategiekin bat dator programa.

Europar liderra izan behar du Euskadik erregai fosilekiko mendekotasuna gainditzen. Gerturatzeko ari den industria-iraultza berriaren lehen lerroan egon behar du Euskadik. Berrikuntzaren eta ezagutzaren ekonomiarantz eta gizarterantz aurrera egiteko bidean, ezinbestekoa da ingurumen-iraunkortasuna txertatzea. Orain, hurrengo lau urteetarako gure buruari ezarri diogun helburua lortzeko lan egin behar dugu, gure herrialdea ingurumenaren eta iraunkortasunaren konpromisoaren abangoardian egon dadin.



**Esther Larrañaga**

Ingurumen eta Lurralde  
Antolamendu sailburua

**I**ngurumen Esparru Programa 2007-2010 da ingurumenaren bide-orri berria, eta 44 konpromiso neurgarri ditu datozen lau urteetan klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, biodibertsitatea kontserbatzeko, airearen kalitatea hobetzeko eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorra sustatzeko.

Ingurumen Esparru Programan proposatzen diren konpromisoak betetzeko, ezinbesteko baldintza gisa hartzen dira hauek: ingurumen-aldagaia beste politiketan txertatzea, indarrean dagoen legedia eta horren aplikazioa hobetzea, merkatua ingurumenaren alde erabiltzea, herritarrak trebatzea eta ardurak ematea, ingurumenaren ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea eta nazioartean ingurumen-kooperaziorako politikak ezartzea.

Esku artean duzun dokumentuan adierazten diren konpromisoak betetzen badira, 2020. urtean konpontze bidean izango dira ingurumen-arazo nagusiak eta ingurumen-egoera hobe hori utziko diogu hurrengo belaunaldiari.

Gure helburua da Euskadi fenomeno globalen —eta tokiko fenomenoen— aurkako borrokan liderra izatea Europan, eta konponbide berritzaileak eta puntakoenak erabiltzea. Hori dela eta, Esparru Programak hiru konpromiso eskatzen dizkio euskal administrazioari: alde batetik, euskal gizarteak nazioartean duen ingurumen-arduraren kuota bere gain hartzea (*nazioarteko ekitatea*); bestetik, hurrengo belaunaldiekiko ardura-kuota bere gain hartzea (*belaunaldien arteko ekitatea*), eta, azkenik, gardentasunean, parte-hartzean, eta politika, plan eta programa publikoen multzoaren koherentzian eta integrazioan oinarritutako prozesu gisa ulertzea ingurumen-politika.

# Aurkibidea



## SARRERA

8

## 1 ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA 12

- 1.1 2002-2006 Ingurumen Esparru Programaren balantzea 13
- 1.2 Ingurumen Esparru Programa, munduko egoerarekin bat: nazioarteko ingurumen joerak eta Europar Batasunaren erantzuna 14
  - 1.2.1 Nazioarteko ingurumen-joerak 14
  - 1.2.2 Europar Batasunaren erantzuna 17
- 1.3 Euskadiko Ingurumen Diagnostikoaren funtsezko elementuak 18
- 1.4 Aketarako palankak 20
- 1.5 Egoeraren analisisa 21

## 2 EUSKADI 2020: INGURUMENAREN IKUSPEGI POSITIBO BERRIA 24

- 2.1 Euskal ingurumen politikaren printzipio gidarien dekalogoak 26
- 2.2 Ikuspegia, lehentasunak eta erronka estrategikoa 28
  - 2.2.1 Ikuspegitik sortutako 2020rako lehentasunak 28
  - 2.2.2 Erronka estrategikoa 31
  - 2.2.3 Helburu Estrategikoak 32

## 3 2010ari BEGIRA. INGURUMEN HOBETUNTZAREKIN KONPROMETITUTA 34

- 3.1 Konpromisoak eta jarduera ildoak 36
  - 1. **helburua.** Aire, ur, eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea 37
    - 1. helburu estrategikoa. **Aire garbia** 38
    - 2. helburu estrategikoa. **Uraren kalitate ona** 40
    - 3. helburu estrategikoa. **Lurraren kutsadura aurreikustea eta zuzentzea** 42
  - 2. **helburua.** Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua 44
    - 4. helburu estrategikoa. **Baliabide naturalen kontsumo arduratsua** 45
    - 5. helburu estrategikoa. **Energia kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatzea** 47
    - 6. helburu estrategikoa. **Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko isurketarik eza** 49
  - 3. **helburua.** Natura eta bioaniztasuna babestea: sustatu beharreko balio aparta 51
    - 7. helburu estrategikoa. **Gure aniztasun biologikoari eustea** 52
  - 4. **helburua.** Lurraldearen oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua 55
    - 8. helburu estrategikoa. **Beste mugikortasun kudeaketa eredu baterantz** 56
    - 9. helburu estrategikoa. **Lurraldearen erabilera orekatua lortzea** 58
  - 5. **helburua.** Klima aldaketaren eragina mugatzea 60
    - 10. helburu estrategikoa. **Berotegi efektuko gasen isurpena mugatzea** 61
    - 11. helburu estrategikoa. **Klima aldaketara egokitzea** 63



3.2	Iraunkortasuneranzko aurrerapausoak emateko beharrezko baldintzak	66
1.	<b>baldintza.</b> Ingurumenaren aldagaia beste politika batzuetan integratzea	67
2.	<b>baldintza.</b> Indarrean dagoen legedia eta horren aplikazioa hobetzea	68
3.	<b>baldintza.</b> Merkatua ingurumenaren mesederako erabiltzea	69
4.	<b>baldintza.</b> Herritarrak gaitzea eta erantzukizuna banatzea	72
5.	<b>baldintza.</b> Ikerketa, garapena eta berrikuntza ingurumenean	74
6.	<b>baldintza.</b> Nazioarteko ingurumen-lankidetzak	75

#### **4** INGURUMEN ESPARRU PROGRAMAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPEN EREDU OPERATIBOA 77

---

#### **5** 2007-2010 EPERAKO INGURUMEN ESPARRU PROGRAMAKO AGINTE-KOADRO INTEGRALA 79

---

##### **I. ERANSKINA.** 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programako konpromisoekin lotutako egitasmo eta programak 86

---

##### **II. ERANSKINA.** 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programa egiteko prozesu partaidetua 87

---

##### **III. ERANSKINA.** Akronimoak 96

---

*“Mugarik ez duten bi gauza daude: gure atzetik datorren belaunaldi kopurua –beraiengandik arduratu beharra daukagu–, eta gure asmamen gaitasuna. Lehengoak erronka bat planteatzen digu: Lurreko baliabide naturalen erabilpen mugatuaren bitartez gaur eguneko zein etorkizuneko belaunaldi guztiak elikatzea eta mantentzea. Bigarrenak, gure ekimenak, erronka hori aurrera eramateko ideiak eta politikak sor ditzake”.*

(Jan Timbergen, Ekonomiako Nobel sariduna)

*“Ingurumenaren degradazioaren kausak ulertzen ditugun heinean, gobernu on baten beharraren kontzientzia hartzen dugu. Izan ere, edozer lurralderen ingurumen egoera bertako gobernu motaren isla besterik ez da”.*

*(Wangari Maathai, 2004ko Bakearen Nobel sariduna garapen iraunkorraren, demokroziaren eta bakearen alde egindako ekarpena dela eta)*

## Sarrera




**G**arapen Iraunkorrerako Estrategia 2001eko Goteborgeko Europako Gailurrean abiarazi zen formalki. Garai hartan, Europar Batasunak Lisboako Gailurreko estrategia sozial eta ekonomikoak osatu zituen ingurumen dimentsioa integratuz. Euskadik, Europar Batasuneko zati den aldetik, 2002-2020 eperako Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia eta Ingurumen Esparru Programa landu zituen 2001 urtean, eta 2002ko ekainean onartu zituen. Lau urte lehenago, *Euskadiko Ingurumena Babesteko 3/98 Legeak* Euskadin garatutako ingurumen politika guztiaren helburua garapen iraunkorra izatea ezarri zuen. Legeak dio airearen, uraren, lurzorua, paisaiaren, floraren eta faunaren erabilera modu iraunkorrean gauzatuko dela (1. artikulua), eta bere egiten du egungo beharrak beteko dituen garapen iraunkor eredu bermatzeko konpromisoa, betiere etorkizuneko belaunaldien beharrak betetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe (2. artikulua). 2001eko urtarrilean, berriz, lehendakariak eta *Eusko Jaurlaritzako sailburuek Euskadiko Iraunkortasunaren Aldeko Konpromisoa* sinatu zuten. Konpromiso horrek iraunkortasunerako bidea egiteko oinarriak ezarri zituen: *kode etikoa, kohesioa, gizarte partaidetza, zuhurtzia printzipioa, ikuspegi integratua, ekoeraginkortasuna eta plangintza estrategikoa*. 2002an, *Eusko Jaurlaritzak 2002-2020 Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia* onartu zuen. Bertan, Europako ingurumen politikarekin bat eginez, epe motzeko, ertaineko eta luzeko hainbat jomuga, helburu eta konpromiso daude jasota. Epe motzeko helburu eta konpromisoak 2002-2006 Ingurumen Esparru Programan bildu ziren.

Ostean, 2002ko Johannesburgoko Gailurrak garapen iraunkorra lortzeko hurrengo oinarritzko helburuak ezarri zituen: pobrezia amaitzea, ekoizpen eta kontsumo eredu eutsiezinak aldatzea, eta baliabide naturalen babesa eta antolamendua. Era berean, munduko ingurumena gainbeheran dagoela ohartarazi zuen, eta horren hainbat adibide eman zituen: biodibertsitate galera, desertifikazioa, airearen, uraren eta itsasoaren kutsadura, eta klima aldaketak eragindako aldaketa kaltegarriak.

## Esparru Programaren lantze prozesua

Ingurumen erronken garrantziaren jakitun izanik eta 2006ko esparru programaren iraunaldi epea amaitu dela kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak *2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programa* lantzeko prozesua sustatu eta koordinatu du. Progamak ingurumenaren babeserako 3/98 Legeak ezarritako agindua betetzen du, eta hurrengo faseak jarraituz egin da:



1. irudia.- 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programaren lantze prozesuaren eskema.

**I. fasean** ingurumen *Analisi eta Diagnostiko* orokorra aurkeztu da. Lehenik eta behin, 2002-2006 Esparru Programaren azterketa egin da. Bigarrenik, ingurumen arloko nazioarteko joera garrantzitsuenak, orain dela gutxi berrikusitako Europako Garapen Iraunkorreko Estrategia, eta Erresuma Batua, Suedia eta Flandeseko Iraunkortasun Estrategiak aztertu dira –hiru herrialde horiek beraien jardunbide egokiak direla eta hartu dira erreferente bezala–. Era berean, ekobarometro sozialaren ondorioak ere kontuan izan dira herritarren pertzepzioek lekua izan dezaten hausnarketa orokorrean eta ekintza proposamenetan. Hirugarrenik, Euskadiko ingurumen diagnostikoa berrikusi da ingurumen arazo nagusiak identifikatzeko asmoz. Laugarrenik, garapen iraunkorraren bidean aurrerapausoak emateko hautemandako indarguneak eta aldaketarako palankak bildu dira. Azkenik, 2020 urteko balizko egoeren inguruko analisia egin da; horretarako, aurrez aurre jarri dira jarraipen politikak indarrean jarriz gero izango litzatekeen egoera eta iraunkortasun politikak abiaraziz gero izango litzatekeena. Balizko egoera horiek identifikatzeko ekonomia, demografia, gizarte eta ingurumen arloko hainbat proiektzio egin dira.

2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programaren **II. fasean**, *epe luzeko marko estrategikoa eguneratu* da. Bertan, ingurumenari buruzko beste ikuspegi bat mahaigaineratu da: 2020rako, herrialdeak dituen ingurumen arloko arazo nagusiak konponbidera bideratuta uztea hurrengo belaunaldiari. Hori bete ahal izateko lehentasunak ere jaso dira. Programak aipatutako ikuspegia betetzeko hamaika helburu estrategiko biltzen ditu. Besteak beste, hurrengo ingurumen gaiei dagozkie helburu horiek: airearen kalitatea, ura, biodibertsitatea, lurraldea, garraioa, klima aldaketa...

Hamaika helburu estrategikoak baliagarriak dira Euskadiko ingurumen egoera hobetzeko **III. fasean** jasotzen diren epe motzeko *2010erako konpromisoak* identifikatzeko. Hurrengo lau urteetan ingurumena hobetzeko Eusko Jaurlaritzak bere egiten dituen konpromiso horiek 44 dira guztira. Aipatutako konpromisoak kuantifikatu daitezkeen ingurumen arloko hobekuntzei bakarrik dagozkie eta jarraipen adierazleak dituzte. Gobernuak konpromiso horien betetze mailari buruzko informazioa emango dio gizarteari urtero. Kontuan izan behar da konpromisoek hainbat jarduera ildo dituztela beraiek betetzeko bidea laguntzeko.

2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programako konpromisoak Euskadiko ingurumeneko hobekuntza neurgarriei bakarrik dagozkie. Argi dago aukera zorrotza eta zehatzta dela, baina gizarteari gure herrialdeko ingurumena hobetzea besterik ez zaio axola. Eskema osatzeko hainbat helburu aldi berean betetzeko beharrezko baldintzak jasotzen dira: egungo legedia eta bere ezartzea hobetzea, herritarak gaitzea eta erantzule egitea... Ingurumen Esparru Programa amaitzeko, beste kudeaketa eredu bat definitzen da. Eredu horren apustu nagusia sail eta erakunde arteko koordinazio mekanismoak nabarmenki sendotzea da.

2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programaren lantze prozesuarekin batera, *parte-hartze prozesu bat* artikulatu eta abian jarri da **IV. fasean**. Prozesua anbizio handikoa eta gardena izan da, eta hurrengo mekanismoen bitartez burutu da: Gizarte eta Enpresa Foroa, Aholku Batzordea, iraunkortasunaren aldeko gosariak, web orria eta buletin elektronikoa. Horrez gain, lan dokumentu guztiak Ingurumen Sailaren web orrian eskuragarri izan dira lehen unetik. Era berean, 250 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte egindako lau foroetako lan tailerretan. Enpresa arloko, sindikatuetako, talde ekologistetakoko, unibertsitate munduko eta ikerketa-taldeetako ordezkariak izan dira parte hartzaileak. Hartutako konpromisoak koordinatzeko eta adosteko ahalegin handia egin dute Eusko Jaurlaritzako sailek, foru aldundiek, eta Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarean (Udalsarea 21) bildutako herriek.



Elkarrekin egindako hausnarketa horren ondorio dira 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programak jasotako ingurumen ikuspegi berria, hamaika helburu estrategikoak, Euskadiko ingurumen politikaren konpromisoak eta zeharkako izaera duten beharrezko bost baldintzak. Ekimena Eusko Jaurlaritzak sustatu badu ere, erakunde guztiei dagokie. Izan ere, foru aldundiak zein udalak ezinbesteko aktoreak dira programan jasotako helburuak betetzeko jarduerak indarrean jartzeko. Ez hori bakarrik, oso garrantzitsua da euskal gizartea eta bere eragile sozialak eta ekonomikoak ezarritako konpromisoak eta helburuak betetzeko lanean inplikatzera, eta beren buruak erantzule bezala ikustea.

*Iraunkortasunera heltzeko trantsizioa* epe luzeko prozesua da, eta Eusko Jaurlaritzak onartutako plangintza agirieta-rik askoz harago doa. Etengabeko hobekuntza prozesua da, eta guztion elkarlan aktiboa eta sortzailea beharrezkoa da: erakundeak, enpresak, antolatutako gizarte zibila, unibertsitateak, ikerketa zentroak, zentro teknologikoen sarea, hezkuntza sistema arautua eta komunikabideak. 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programa oso estuki lotuta dago gobernagarritasunaren edota gobernu onaren ideiarri eta printzipioei, eta lan kolektibo garrantzitsu honetan aurrerapauso bat gehiago da.




*“Guztiok egin behar dugu gehiago. 2006ko Planeta Bizia txosteneko mezua argia da: ditugun bitartekoen gaineratik bizi gara, eta gutako bakoitzak egindako aukeraketek hurrengo belaunaldiek izango dituzten aukerak baldintzatuko dituzte”.*

*(James Leape, Director General WWF)*

# 1 Analisia eta diagnostikoa



## 1. KAPITULUA. ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA



2. irudia.- 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programaren eskema. Analisia eta diagnostikoa.

2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programako Marko estrategikoa eta konpromisoak ezarri eta eguneratu aurretik, beharrezkoa da ingurumen arloko analisi eta diagnostiko integrala egitea, horren gainean eraikiko baita IEP berria. Hurrengo etapa osatzen dute analisia:

- 1<sup>a</sup> 2002-2006 IEParen azterketa egitea azken lau urteetan ingurumen politikan emandako aurrerapausoak eta egungo IEParen erronkak azalduz.
- 2<sup>a</sup> IEPn munduko egoera kontuan hartzea, nazioarteko ingurumen arloko joera nagusiak eta Europar Batasunaren erantzunak aztertuta.
- 3<sup>a</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen diagnostikoaren elementu garrantzitsuenak definitzea –elementu horiek eta adierazle nagusien bilakaeraren datuek azaldu behar dizkigute hurrengo urteetako lehentasunak zeintzuk diren–.
- 4<sup>a</sup> IEPko lehentasun berriek planteatzen dizkiguten erronkei aurre egiteko Euskadin ditugun indarguneak zeintzuk diren ezartzea (aldaketarako palankak).
- 5<sup>a</sup> 2020ko errealitatea ezagutzeko prospekzioa egitea joera sozioekonomikoak aztertzeke eta ingurumenean izan dezaketen balizko eragina ezartzeko.

### 1.1 2002-2006 Ingurumen Esparru Programaren balantzea

2002-2006 Ingurumen Esparru Programak aurrerapauso zehatz esanguratsua ematea ahalbidetu du. Hori bai, hainbat arazo garrantzitsutan egindako aurrerapausoak eskasak izan dira. Gainera, joera kezkarriak atzeman dira hurrengoak bezalako ingurumen gaietan: hondakinen sorkuntza, baliabide naturalen kontsumoaren hazkunde etengabea, kutsadurak giza osasunerako dituen arriskuak, lurzorua okupazioa eta narriadura, mugikortasunaren eta garraioaren hazkunde neurrigabea, planetaren berokuntza, eta biodibertsitate galera.

Balantzeko alderdi positiboen artean, hurrengoak nabarmentzen dira:

- GIEIE (2002-2020) eta bere IEP (2002-2006) ezartzeak *ingurumen politikako kudeaketa sistema integratua* izatea ahalbidetu du Europar Batasuneko esperientzia aurreratuenekin sintonian. Sistemak hurrengo zikloak integratzen ditu era koherentean: diagnostikoa, plangintza, garapena, jarraipena eta ebaluazioa. Horrez gain, gizararen eta eragile ekonomikoaren iritziaren ezagutza sistematikoarekin osatzen da.
- Era berean, Eusko Jaurlaritzak indarrean jarritako politika, egitasmo eta programa guztietan *ingurumen auziak integratzeko helburuan aurrera egiteko oinarriak* ezarri ditu 2002-2006 IEPak. Ez hori bakarrik, Eusko Jaurlaritza

eredu izango da gainontzeko erakundeentzat ere. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak sektore eta lurralde politika guztien ingurumen ondorioen zeharkakotasuna kontuan izateko ekimen politikoak garatu ditu gobernuko gainontzeko sailekin –Hezkuntza, Industria, Nekazaritza, Etxebizitza, Osasuna, eta abar–. Hala ere, onartu beharra dago hainbat arlotan (garraioa, kontsumoa edota hirigintzako plangintza, adibidez) integrazioa ez dela oraindik ere behar adinakoa izan.

- 2002-2006 IEPtik sortutako politikak *egoera hobetzeko eta ingurumen narriadura geldiarazteko* baliagarriak izan dira hainbat arlo esanguratsutan: uraren edo airearen kalitatea, kutsatutako lurzuruen berreskurapena, hiri-hondakinen eta hondakin industrial arriskutsuen kudeaketa, babestutako naturguneen sarearen hedapena... Hala ere, ahulgune garrantzitsuak ere badaude, adibidez: berotegi efektuko gasen isurpenak, herriguneetako airearen kutsadura garraioa dela eta, lurraldea zatitu eta artifizial egitea, biodibertsitateak bizi dituen arrisku egoerak, edota hiri-hondakinak sortzea.
- 2002-2006 IEP lantzeak eta garatzeak *gizartea hezteko eta informatzeko prozesuetan eta eragile sozialen eta ekonomikoen parte-hartzean* aurrerapausoak ematea ahalbidetu du. Agiria lantzeko prozesuan bertan enpresa eta gizarte arloko erakundeetako hamarnaka ordezkari hartu zuten bertan, baita aditu ugari ere. Era berean, 2002-2006 IEP garatzeko Euskadiko udalerrietan Tokiko Agenda 21 prozesuak jarri dira indarrean. Ez dago zalantzarik prozesu horiek, egun, gure gobernantza hobetzeko balio izugarriko parte-hartze eskola hiritarrak direla.

Laburtzeko, nabarmendu beharra dago 2002-2006 eperako IEPk eraginkortasun handia erakutsi duela ezarritako konpromisoak betetzeari dagokionez. Izan ere, hasieran definitutako konpromisoen betetze-maila %81ekoa izan da. Bestetik, ordea, 2002-2006 eperako IEPk ezin izan ditu egungo eredu sozioekonomikoaren alderdi zehatz batzuk berriro orientatu. Alderdiok gure kontsumo-ohiturei lotutakoak dira. Esaterako, 1990 eta 2005 urteen artean, etxetan izandako gastuen hazkundea (+%47) estuki lotuta egon zen sektore honetan ingurumenaren aldetik izandako presioen igoerari (energiaren kontsumoa +%58 eta hiri-hondakinak +%28). Beraz, beharrezkoa da hazkunde ekonomikoa eta honek eragiten dituen ingurumen-inpaktuak termino absolutuetan bereizteko formula berriak bilatzea. Horretarako, aurre egin beharrek erroka nagusi batzuek merkatuko tresnetan eta berrikuntzan sakontzea hartzen dute barne. Hala, kontsumoan ohiturak aldatu ahal izango dira, eta ingurumenarekiko errespetuzkoagoak direnak sustatu.

## 1.2 Ingurumen Esparru Programa, munduko egoerarekin bat: Nazioarteko ingurumen joerak eta Europar Batasunaren erantzuna

### 1.2.1 Nazioarteko ingurumen-joerak

2007-2010 eperako IEP prestatzeko NBEk (NBIP, UNFCCC, UNCED) garatutako estrategiak kontuan izan dira, baita Europar Batasunekoak eta nazioarteko esperientzia aurreratuenak ere (Erresuma Batua, Suedia, Flandes).

Euskal ingurumen politikak egin dugun diagnostikoak azaleratutako beharrei erantzun behar die lehendabizi. Hori bai, Europar Batasunak eta Nazio Batuen Erakundeak sustatutako politikekin koherentea izan behar du. Era berean, munduko ingurumen egoerak planteatutako erroka nagusiei erantzun behar die. Hurrengoak dira erroka horiek:



### a) Energia eta klima aldaketa

Klima aldaketaren ekonomiari buruzko *Stern Txostenak* dio<sup>1</sup>, azken IPCC txostenak bezala, mundu osoan berehalako erantzun globala ematea eskatzen duen arrisku handia dagoela. UNHCRk dituen datuen arabera, gaur egun munduan ematen diren migrazio mugimenduen %60 klima aldaketak eta bere ondorioz izandako hondamendi naturalek eragin dituzte. Dagoeneko Kyotoko akordioak gauzatzeko garaia (2008-2012) iritsi da, baina 2012. urtetik aurrera zer gertatutako den eta erraldoi ekonomiko berriek (Txina eta India) zer egingo duten ez dago batere argi. Izan ere, bi herrialde horiek gero eta BEG gehiago isurtzen dute. Gainera, erregai fosilen prezioa ere gero eta garestiagoa da. Sternekin ohartarazi duenez, gero eta nabarmenagoa da klima aldaketa larri eta atzeraezinak gertatzeko arriskua handitzen ari dela gaur eguneko gas isurpen ereduarekin zuzenki lotutako faktoreak direla eta. Egoera benetan larria da, egungo isurpen maileri eutsita ere ondorioak katastrofikoak izango bailirateke hurrengo hamarkadetan.

Testuinguru honetan, argi eta garbi dago munduko arduradun politikoei arreta askoz ere handiagoa jarri behar dutela hurrengo gaietan: eraginkortasun energetikoa hobetzea, erregai fosilen gaineko menpekotasuna murriztea energia berriztagarrien sustapenaren bitartez, edota ekonomiaren arlo guztietan aurrezki energetikoa ezartzea. Azken finean, garapena karbono kontsumo baxuko ekonomia batera bideratu beharra dago berriro ere. Stern Txostenak adierazi duenez, klima aldaketaren eragin kaltegarrien murrizketa ez da desiragarria soilik, egingarria ere bada. Gainera, klima aldaketa arintzeko neurriak hartzea ondorioei aurre egitea baino merkeagoa da. Izan ere, neurriak hartzearen kostua 2050eko BPGren %1 izango da, eta, aldiz, ondorioei aurre egiteko, *per capita* kontsumoa %5 eta %20 artean murriztu behar da, egoerari bere horretan eusteko. Hori guztia Nairobini (Kenia) 2006ko azaroan egindako Klima Aldaketari buruzko Esparru Konbentzioko Aldeen Konferentzian ere azaleratu zen.

### b) Biodibertsitate galera

*Nazio Batuen Ingurumen Programak* (NBIP) egin berri dituen ikerketen arabera, munduko ekosistemen %60 degradatuta daude edota era ez iraunkorrean erabiltzen dira. Ikerketek diotenez, egungo aurreikuspenak bete eta tenperatura 2 eta 6 gradu artean igoz bada, 2050 urterako munduko espezieen %18 eta %35 artean desagertu daitezke. Horrez gain, kontuan izan behar da munduko koralezko uharrien eta mangladien herena baino gehiago suntsitu edota degradatu zirela XX. mendeko azken hamarkadetan. Giza jardueraren ondorioz, espezieen iraungipen tasa izugarri hazi da eta berez naturala litzakeena baino 1.000 aldiz handiagoa bihurtu da. Ugaztun, hegazti eta anfibio espezieen %30 desagertzeko arrisku handian dira. NBIPk egindako ebaluazio orokorrak erakusten duenez, ekosistemen degradazioak Lurreko biztanle txiroenei egiten die kalte batez ere. Askotan gainera, beraien pobrezia arrazoi nagusia da. Era berean, hurrengo ere badiu ebaluazioak: baliabide naturalen eta ekosistemen gehiegizko erabilpena sustatzen duten laguntzak ezabatzeak onura garbiak sortuko lituzke gizartearentzat. 2002ko *Johannesburgoko Gailurrak* onartutako ebazpenek lurzorua degradazioari, higadurari eta biodibertsitate galerari aurre egiteko programak garatu beharra aipatzen zuten jada.

### c) Baliabide naturalen kontsumoa eta hondakinak sortzea

Baliabide naturalen munduko kontsumoa ekosistemen urteko berreskurapen tasa baino %20 handiagoa da. Ez hori bakarrik, baliabideen kontsumoaren eta birsorkuntza gaitasunaren arteko diferentzia etengabe hazten ari da. Baliabideen kontserbazioarako neurri osagarriak hartzen ez badira, tasa hori %60koa izango da 2025 urtean. (*Living Planet Report 2006*, *World Wide Fund for Nature*, WWF).

Hondakin sorkuntzak BPGrekiko deskoplamendu arina izatea aurreikusten da EB-15ean. Ondorioz, EBn sortutako hondakin kopurua haunditu egingo da. Aurreikuspenek diotenez, eraikuntzatik eta biomasatik eratorritako hondakin frakzioak izango dira ugariak; 2020 urtean, hurrenez hurren, 3.800 eta 1.600 milioi

<sup>1</sup> Stern Txostena: Klima Aldaketaren Ekonomia (2006).

tona izango dira. Horregatik, *hondakinak gutxitzeko, berriz erabiltzeko eta kudeatzeko jarduerak duten garrantzia* nabarmentzen da, baita hondakinaren tratamendurako ingurumen teknologiak transferitzeak duena ere –maila lokalean zein nazionalean–.

#### d) Airearen kalitatea eta osasuna

Osasunarekin lotutako kezka handienak sortzen dituzten kutsatzaileak ozono troposferikoa eta partikulak dira. Izan ere, sortu ditzaketen ondorioak arnasketa-sistemako kalte arinetatik hilkortasun goiztiarrera doaz. Europar Batasuneko kutsadura atmosferikoaren gaikako estrategiaren arabera (EB, 2006), partikulek eragindako kutsadurak 350.000 heriotza goiztiar eragin dituzte urtero Europan, horietatik 16.000 Espainian. Atmosferan PM<sub>2,5</sub> partikulak izateak batez besteko bizi-itxaropena bederatzita hilabete murrizten du pertsonako. Ozonoari dagokionez, 2020an urteko 21.000 heriotza goiztiar eraginko dituela aurreikusten da. Europar Batasunak kalkulatu duenez<sup>2</sup>, 2020rako 189.000 eta 609.000 milioi euroko kostua izango dute urteko kutsadura atmosferikoak eragindako osasun kalteek.

#### e) Uraren kalitatea

*Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak* ohartarazi duenez, dagoeneko eskasia egoera pairatzen duten munduko eremu askotan ur baliabideak are eta gehiago urritu daitezke. Izan ere, ibaien emariak eta urpeko uren kargatzeek aldaketa garrantzitsuak izatea espero da. Aurreikusten denez, klima aldaketak eta ur ateratze hazkundea Europako hegoaldeko eta ekialdeko baliabide hidrikoen gaineko presio osagarria eragingo du. Azken urteetan, Europar Batasunak ahalegin berezia egin du uraren kudeaketan ingurumen arloak kontuan izateko. Adibidez, herrietako hondakin uren tratamenduari buruzko 91/271/EEE zuzentarauak saneamendu helburu zehatzak ezarri zituen bere garaian, eta horrek gaur egungo EBko uren kalitatea askoz ere hobea izatea ahalbidetu du. Bestalde, Johannesburgoko Gailurrean ezagutarazitako «*Water for Life*» ekimenak Europar Batasunak garapen bidean dauden herrialdeetan uraren inguruko neurriak ezartzeko hartutako konpromisoa jaso zuen. 2000ko *Uraren Esparru Zuzentarauak*, berriz, hurrengo helburua ezarri zuen 2015 urterako: Europako sistema akuatikoetako ur guztiak egoera ekologiko ona izatea eta uraren erabilpen iraunkorra lortzeko aurrerapausoak ematea. Lege baliabide egokiak ezartzeko ahaleginak eta uraren erabilpen eraginkorragoa ahalbidetuko duten aldaketa teknologikoak eta kontsumo eredu berriak funtsezkoak izango dira hurrengo urteetan baliabide hidrikoen kudeaketan.

#### f) Kontsumoa eta ekoizpen iraunkorra

Diru-sarreretan iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen artean dagoen ezberdintasuna material kontsumoan gertatzen den alde izugarrian islatzen da. Kalkulatu denez, munduko biztanleriaren %20 aberatsenak energiaren %58, haragi eta arrainaren %45, eta paperaren %84 kontsumitzen du. Horrez gain, kotxeen %87 eta telefonoen %74 bere esku ditu. Aldiz, munduko biztanleriaren %20 txiroenak aipatutako produktu edo zerbitzu bakoitzaren %5 edo gutxiago kontsumitzen du. Munduko ur- eta energia-kontsumoak behatuz gero, ikus daiteke biak ere bikoiztu egin direla azken urteotan (1960-2000 arteko ur-kontsumoa eta 1970-2005 arteko energia-kontsumoa). Ekonomikoki garatutako herrialdeetan, kontsumotik eratorritako ingurumen presioak ekoizpenetik eratorritakoak baino txikiagoak izan dira tradizionalki. Hala ere, hurrengo urteetan kontsumotik eratorritako presioak eta inpaktuak nabarmen handituko direla aurreikusten da, batez ere elikagaiei, etxebizitzari, pertsonen joan-etorriari eta turismoari dagokionez. 2002ko *Johannesburgoko Garapen Iraunkorraren Munduko Gailurreko* erabakiak indarrean jartzeko planak hurrengo adostu zuen: kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak ahalik eta azkarrean indarrean jartzea ahalbidertzeko 10 urteko egitasmoak lantzea eta sustatzea.

<sup>2</sup> Airearen kalitateari eta atmosfera garbiagoari buruzko Europako zuzentaru proposamena. COM (2005) 447 bukaera.

## 1.2.2 Europar Batasunaren erantzuna

Nazioarteko ingurumen joerak ikusita, Europar Batasunak bere Garapen Iraunkorreko Estrategia berrikusi berri du. Estrategia horrek *Ingurumen Arloko Erkidegoko Seigarren Ekintza Plana* osatzen du. Ahalegin kontzentrazioa ahalbideratzeko, Europar Batasunak bere helburuak mugatu eta sostengaezinak diren hainbat joera definitu ditu. Ondorioz, aurrerantzean hurrengo eremuei emango die garrantzi berezia: klima aldaketa; baliabide naturalen kudeaketa; garraioa eta lurraldea; eta garapen iraunkorrarekin lotutako nazioarteko arloak.

EBko Garapen Iraunkorraren Estrategiaren ondorio politiko nagusietako bat *Lisboako Estrategiarekiko* duen izaera osagarria berrestea izan da<sup>3</sup>. Estrategiaren eta Seigarren Ekintza Planaren barnean *klima aldaketaren aurkako borroka* lehentasuna du. 1992ko Rio de Janeiroko Lurraren Gailurrak munduko ingurumen erronkei aurre egiteko estrategia globala ezartzea eskatu zuen. Handik hamairu urtera, 2005eko otsailaren 16an, berotegi efektuko gasen isurpenak murrizteko Kyotoko Protokoloa indarran sartu zen azkenik munduko 141 herrialdetan. Europar Batasunak mundu mailako lidergo sendoa erakutsi du erronka global honen aurrean. Aipatutakoaren adibide, Klima Aldaketari Buruzko Europako Programa onartu zuen 2000ko martxoan Kyotoko Protokoloan hartutako konpromisoa betetzeko. 2005ean, berriz, berotegi efektuko gasen isurpen baimenen merkataritzari buruzko zuzentaraua indarrean sartu zen. Zuzentarau hori mugarri izan da klima aldaketari buruzko mundu mailako politikan.

Era berean, bere ingurumen politikako lehentasunezko ildoetako bat *biodibertsitatearen kontserbazioa* izatea erabaki zuen Europar Batasunak. Hala, 2010erako biodibertsitate galera geratzea hartu du helburutzat. Hori lortzeko diseinatutako politikek hurrengo ekimenak biltzen ditu besteak beste: Nekazaritzako Politika Bateratuaren erreforma, Arrantza Politikaren erreforma, eta Natura 2000 Sarearen sorkuntza eta kudeaketa. Ingurumenaren eta osasunaren arteko harremanek, batez ere *airearen kalitatearen eta osasunaren* arteko loturak, garrantzi berezia jasotzen dute Europako erakundeen aldetik. Izan ere, gero eta nabariagoa da europar gizartea osasun prezio altua ordaintzen ari dela ozono troposferikoa edota esekidurazko partikulak bezalako kutsatzaileen eraginez. Europar Batasunak egindako diagnostikoan ondorioztatu denez, *garraioa* da ingurumenaren gaineko presioa eta talka handitzen ari den indar eragilea. Horren adibide, EBko garraio sektoreak berotegi efektuko gasen isurpenak %23 handitu ditu 1990 eta 2003 artean. Aldiz, gainontzeko sektore guztiek beraien isurpenak txikitu dituzte epe horretan. Garraio sektorearen kanpo eraginak urtero 650.275 milioi euro direla balioztatu da; Europar Batasuneko BPGdren %7,3 da kopuru hori<sup>4</sup>. Bestalde, ibilgailuen trafikoak sortutako 65 dB(A) baino gehiagoko zarata maila bizi du Europako biztanleriaren %40k.

Nazioarteko testuinguru honetan, Europar Batasuneko Estatu kideek garapen iraunkorreko estrategiak definitu eta garatu dituzte azken urteetan. Horien artean, Erresuma Batua, Suedia eta Flandes izan dira gainontzeko herrialdeentzat eredu, metodologiarekin zein helburuekin lotutako anbizio handiko jarraibideak ezarri baitituzte. Ondorioz, 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programak esperientzia horiek aztertu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen politika Europar Batasuneko aurreratuenen artean kokatzeko asmoz.

<sup>3</sup> 2000ko martxoan Lisboan egindako Europar Batasuneko Kontseiluak hurrengo helburua ezarri zuen: 2010erako Europar Batasuna munduko ezagutzaren ekonomia dinamiko eta lehiakorrena izatea.

<sup>4</sup> EB-17, EB-15eko estatuek, Suitzak eta Norvegiak osatutako taldea.

## 1.3 Euskadiko ingurumen diagnostikoaren funtsezko elementuak

2002-2006 Ingurumen Esparru Programa amaitutakoan egindako Euskadiko ingurumen diagnostikoan, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiako Bost Ingurumen Helburuetan laburbildutako hurrengo elementuak nabarmentzen dira:

*Ur, aire eta lurzoru garbi eta osasungarriak bermatzea da 1. helburua.* Ildo horretan, kutsadura atmosferikoarekin lotutako hobekuntza ugari egin direla nabarmendu behar da. 1990 eta 2005 artean ozono troposferikoaren substantzia aitzindarien isurpenak %6,4 murriztu dira, eta substantzia azidifikanteenak %11. 2004an eta 2005ean, SO<sub>2</sub>, NO<sub>x</sub> eta CO kutsatzaileetarako ezarritako legezko immisio-mailak ez ziren gainditu. Aldiz, airearen kalitateari buruzko alderdi negatibo batzuek bere horretan irauten dute, bereziki, airean kontzentratutako partikulei dagokionez. 2005ean 18 udalerritako 21 behatoki gainditu zuten 35 aldiz baino gehiago giza osasunaren babeserako eguneko muga<sup>5</sup>. Pertsonen osasunean izan dezaketen balizko eragina kontuan izanda, PM<sub>10</sub> eta PM<sub>2,5</sub> partikulak eta ozonoa dira kutsatzaile arriskutsuenak.

Kutsatutako lurzoruak garbitzeari dagokionez, aurrerapausoak etengabe eman dira. 1990 eta 2005 artean 236 kokaleku aztertu dira, horietako 106 berreskuratu direlarik –guztien artean 229 hektareako azalera osoa dute–. Gainera, lurzoruak ez kutsatzeko eta kutsatutakoak garbitzeko 1/2005 Legeak hurrengo urteetan aurrerapausoak are eta garrantzitsuak izatea eragingo du. Uraren kalitateari dagokionez, ibaien egoeraren hobekuntza orokorra gertatu da 2000-2005 epean. Horren adibide, emaitza onak igortzen zituzten behatokiak %17 ziren 2000. urtean, eta %43 2005ean. Estuarioetako eta kostaldeko uretan ere hobekuntza gertatu da. 1998an, 30 behatokitatik 17k ez kutsatua edota kutsadura arina emaitza eman zuten, eta 2005ean 21era igo zen kopuru hori. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko *Uren Legeak* Euskadik bere baliabide natural garrantzitsuenetako bat era integratuan kudeatzea ahalbidetuko du.

**2. helburua**, berriz, *baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua* da. Ikusi ahal izan denez, hazkunde ekonomikoaren eta baliabideen erabilpenaren arteko deslotura erlatiboa gertatu da 1990 eta 2005 artean. Horren arrazoia ingurumen presio nagusiak Euskadiko *Barne Produkto Gordina* baino gutxiago hazi direla da. Izan ere, BPG %62 hazi den bitartean, energia kontsumoa %39 areagotu da, material kontsumoa %22 eta hiri-hondakinen sorkuntza %27.

Euskadiko baliabide materialen erabilpen altuaren arrazoia euskal ekonomiak izaera industrial nabarmena duela da. Era berean, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko herritar bakoitzak urteko 8,01 tona kareharri lehor kontsumitu zuela 2002-2006 epean. Egungo kontsumoen proiektzioaren arabera, berriz, 9,71 tona kontsumituko ditu urteko herritar bakoitzak 2004-2009 epean.

Ekonomiaren eraginkortasun ekonomikoa %17 hobetu da 1990 eta 2005 artean –unitate ekonomiko bat sortzeko beharrezko energia kopurua neurtzen du eraginkortasun ekonomikoak–. Bestalde, materialen erabilpenean eraginkortasuna %29 hazi da 1990-2004 epean. Azkenik, hiri-hondakinen kudeaketa ere nabarmen hobetu da. Horren erakusle, selektiboki jasotako etxe-hondakin kopurua bizkoiztu egin da eta zabortegietara eramandako hondakin kopurua ia 30 puntu portzentual txikitu da (%85etik %56ra).

*Natura eta biodibertsitatea babestea da 3. helburua.* Helburu hori bermatzeko asmoz, Euskadiko babestutako naturaguneen sarea handitu da. Ondorioz, lurralde osoaren %13,7 babestuta dago. Duela gutxi, Aizkorri-Aratz eta Armañon parkeak sartu ziren aipatutako sarean. Era berean, Euskadik 57 kokalekuk osatutako zerrenda proposatu dio Europar Batasunari Natura 2000 Sarean sartzeko –Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoaren %20

<sup>5</sup> Europar Batasunak ezarritako muga.

hartzen dute kokaleku horiek-. 2005ean Euskal Autonomia Erkidegoako korridore ekologikoen sareari buruzko dokumentua argitaratu zen. Bertan, lurraldearen zatiketa jasaten duten espezieak eta biotipoak identifikatu ziren, eta faunaren mugikortasuna bermatzeko korridoreak egitea proposatu zen. Era berean, horiek kartografikoki mugatu ziren. *Euskadiko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoaren aurreproiektua* ere egin da. Lan horren arabera, ikusizko inpaktu negatiboa jasaten duen azalera 321.868 hektareakoa da; azalera osoaren %45, hain zuzen ere. Galzorian dauden espezieei dagokienez, florako eta faunako 20 espezie daude arriskuan. Hala ere, 2004an NBN-Bren irizpideak jarraituta egindako azterketa baten arabera, 34 espezie ornodun desagertzeko zorian daude<sup>6</sup>.

**4. helburua** *lurralde oreka eta mugikortasuna* da. Arlo horretan, emaitza mugatuak izan dira. Izan ere, garraio sektoreak ingurumenaren eta lurraldearen gaineko presio eta inpaktu ugari sortzen ditu oraindik ere pertsonen eta merkantzien mugikortasunean gertatzen diren desoreka modalen ondorioz. Pertsonak ibilgailu pribatuetan mugitzen dira batez ere. Hala, bidaiari bakoitzak kilometroko egiten duen distantzia osoaren %58 ibilgailu pribatuetan egiten du, %25 garraio publikoan eta %15 oinez (2003ko datuak). Hiriburuei dagokienez, Bilbon garraio publiko bidezko mugikortasuna kopuru osoaren %24 da, Donostian %20 eta Gasteizen %17. Oinez egiten den mugikortasuna, berriz, %21 da Gasteizen, %17 Bilbon eta %16 Donostian.

Merkantzien garraioari dagokionez, errepideek trenbideekiko duten nagusitasuna erabatekoa da: trenez kilometro bat garraiatzen den tona bakoitzeko, 7,5 garraiatzen dira errepidez. Aldaroketa tonatan bakarrik egiten bada, guztien %70 errepidez garraiatzen dira, %25 itsasontziz, %4 trenez, eta %1 baino gutxiago hegazkinez. Garraioaren sektoreak energiaren kontsumoa %88 handitu zuen 1990 eta 2004 artean, eta berotegi-efektuko gasen isurketak, berriz, %101, 2005aren eta 1990 erreferentzi-urtearen artean. Garraio sektoreak Euskadin dituen kanpoko kostuak, aldiz, urteko 1.953 milioi eurotan balioztatu dira; hau da, BPGd-ren %4. Ingurumenarekin lotutako kanpoko kostuak (klima aldaketa, airearen kutsadura, zarata, natura eta paisaia) guztiaren %40 dira (790 milioi euro).

Lurraldearen artifizializazioari dagokionez, 1994 eta 2005 artean, Euskal Autonomia Erkidegoko azalera artifizializatua %5,2 izatetik %6,5 izatera igaro zen. Guztira, 9.440 ha-ko eremua artifizializatu zen. Indar eragile nagusiak ondokoak izan ziren: bizitzeko gune moduan kalifikatutako eremua (4.854 ha); jarduera ekonomikoak –industria eta merkataritza guneak– (2.908 ha); eta garraio-azpiegiturak (671 ha).

**5. helburua** *klima aldaketaren eragina mugatzea* da. Berotegi-efektuko gasen isurketak %24 handitu ziren 1990etik 2005era<sup>7</sup>. Zehatz-mehatz, energia-ekoizpenaren ondoriozko isurketa zuzenak %199 handitu ziren epealdi horretan, garraiokoak %101, zerbitzuen sektorekoak %99 eta bizilekuetakoak %49. 2005. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan izandako berotegi efektuko isurpenak sektoreka banatuz gero, hurrengo emaitzak ematen dira: isurpenen %34 sektore energetikoak egin zituen, garraio sektoreak %21, industriak %20, nekazaritzak %5, etxe-hondakinek %5, bizitegi sektoreak %3 eta zerbitzuen sektoreak %2. Elektrizitate inportazioari dagokio isurpenen gainontzeko %10a.

Egokitzapenaren ikuspegitik, beharrezkoa da ondokoak hobeto ezagutzea: Euskal Autonomia Erkidegoko tenperatura-igoeren aurreikuspenak (ikerketa batzuen arabera, XXI. mendearen amaierarako, udan eta kostaldean tenperatura 3 eta 5° C artean igoko da, eta 1-2° C neguan; barnealdean, berriz, 5-7° C artekoa izango da udako igoera eta 3-4° C artekoa negukoa), itsas mailaren igoera (mende amaierarako, 40 cm-koa izango dela uste da), biodibertsitatean izango diren eraginak eta hondamendi naturalak. Etorkizun hurbilari begira, beharrezkoa da Euskadik Kyotoko akordioak betetzea. Horretarako, ahalegin handia egin beharko da hurrengo urteetan. Hori lortzeko asmoz, 2008-2012 eperako *Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Plana* landu du *Klima Aldaketaren Euskal Bulegoak*.

<sup>6</sup> Arrisku kritikoa dauden espezie, arriskuan dauden espezie, edota espezie kaltebera moduan kalifikatuta, Natura Babesteko Nazioarteko Batasunak (NBNB) zehaztutako kategorien arabera.

<sup>7</sup> Ikusi 2005eko EAEko berotegi-efektuko gasen inbentarioa.

## 1.4 Aldaketarako palankak

Euskadik goi mailako aktibo humano, ekonomiko, teknologiko eta instituzional ugari ditu, eta horien guztien masa kritikoa oso esanguratsua da gaur egun. Aldaketarako palankak dira horiek, eta 2007-2010 eperako IEPk definitutako erronketan aurrerapausoak emateko bitartekoek egonkortzeko oinarria eskaintzen dute.

### 1. Gizarteak gero eta kontzientzia handiagoa izatea ingurumena zaindu beharraren inguruan

- 2004ko Ekobarometroaren arabera, naturaren eta ingurumenaren zaintzak<sup>8</sup> laugarren lekua betetzen du euskal herritarren lehentasunen artean.
- Ingurumenaren eta naturaren zaintzaren gaineko kezkek isla nabarmena du gizarte zibil antolatuan. Izan ere, azken urteetan milaka pertsonak hartu dute parte ibaiak eta kostaldeak garbitzeko antolatutako borondatezko ekimeneten. Era berean, euskal gizartearen ingurumena babesteko erakunde ugari daude, baita talde kontzertuak ere. Horiek guztiak Euskadik iraunkortasun maila handiagoak lortzeko aurrerapausoak ematearen aldeko konpromiso sendoa dute.
- Ingurumen-heziketako tresnak, *Ingurugela* esaterako, guztiz finkatuta daude, baita azken urteotan sentsibilizatzeko lan handia egiten ari den interpretazio-zentroen sarea ere.
- Unibertsitate munduko ingurumen heziketaren maila oso altua da.

### 2. Sare industrialean zein euskal administrazio lokalean ingurumen kapital handia izatea, ingurumen aldagaia eta bere baloreak gero eta barneratuagoak baitaude enpresa munduan zein administrazioan

- Euskadiko sare industrialak bilakaera oso positiboa izan du 1990etik ingurumenaren arloan.
- Euskadiko enpresek lidergo argia dute Estatu mailan kalitate sistemen ezarpenari, ingurumen kudeaketa sistemen ezarpenari, ardura sozial korporatiboari eta ekoizpen garbiarekin lotutako prozesuak aplikatzeari dagokionez.
- Munduan bakarra den Euskadiko esperientzia kooperatiboak herrialdeko talde industrial nagusia artikulatzen du, eta, bertan, ardura sozial korporatiboaren mezua anbizioz eta lidergoz bereganatu da.
- Industria sektoreak arauen betetzetik harago doazen ingurumen jarduerak ezartzeko borondatea du. Dagoeneko hamar dira borondatezko ingurumen hitzarmenak hartu dituzten sektoreak, guztiak ere ingurumen arloan garrantzi handia dutenak: porlana, kimika, altzairua, oregintza eta papergintza, burdin galdaketa, burdina ez denaren galdaketa, hondakin arriskutsuen kudeaketa, beira-zeramika-karea, azal tratamenduak eta aeronautika.
- *Tokiko Agenda 21en eta Udalsarea 21* Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarearen garapen aipagarria. Gaur egun, herritarren %98 Tokiko Agenda 21 programak abian jarri dituzten udaletan bizi dira. Izan ere, Euskadiko 251 udalerrietatik 138 Udalsarea 21eko kide dira.
- Foru Aldundiek garapen iraunkorreko estrategiak jarri dituzte abian.

<sup>8</sup> Lehen hiru lehentasunak aberastasunaren eta lanaren sorkuntza, gatuzken murrizketa, eta txirotasuna gutxiagotzea dira.



### 3. Ingurumenaren babesarekin lotutako ezagutzen, produktuen eta zerbitzuen garapenak eskaintako aukerak baliatzeko egoera ezin hobea

- Euskal Herriko Unibertsitateak ingurumenaren arloan berrikuntzak sartzeko aukera handiak dauzka. EHUk eta Mondragon Unibertsitateak sortutako *ekodiseinuko ikasgelak* aitzindariak eta erreferentziak dira Estatuan.
- Zientziaren eta Teknologiaren Euskal Sarea dago. 70 zentro eta 2.500 ikertzaile barne hartzen ditu, eta maila handia dauka. Horien artean, *Tecnalia* eta *IK4* korporazio handietan bildutako 11 zentro teknologikoak daude.
- Euskadik Ikerketa, Garapena eta Berrikuntzan (I+G+B) egindako ahalegina bikoiztu du, eta 2015erako horiei Barne Produktu Gordinaren %3 eskaintzea jarri du helburutzat.
- Energia berriztagarrien arloan munduko liderrak diren enpresak ditu Euskadik.
- Ingurumenarekin lotutako enpresa kluster garrantzitsua du Euskadik: ACLIMA. Bertan, 87 enpresak eta erakundeak hartzen dute parte. Zuzenean ingurumen arloko lanetan ari diren 3.000 langile baino gehiago daude klusterreko enpresetan.

### 4. Euskadiko autonomia fiskal handiak zerga sistema berde baten aldeko apustua egiteko gaitasuna ematen du

- Euskadiko autonomia fiskalak ez du parekorik Europan. Ondorioz, hurrengo urteetan zerga sistema berde baten alde egiteko abiapuntu garrantzitsua dugu. Horretarako neurriak hurrengoak izango lirarteke: lana eta inbertsioa bezalako aldagaiekin lotutako zergak murriztea eta ingurumenari kalte egiten dioten aldagaileen igotzea.

Azaldutako guztiak garapen kontzeptu berri baten aldeko aurrerapausoak emateko baldintza sozio-ekonomiko egokiak ditugula esan nahi du. Garapen kontzeptu horretan ingurumenaren babesa oinarritzeko izan behar da ezagutzaren eta berrikuntzaren Euskadi eraikitzeke.

## 1.5 Egoeraren analisisa

Eskuartearen dugun 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programa egiteko, ingurumen arloan funtsezkoak diren Euskadiko hainbat indar eragileren epe ertaineko eta luzeko joerak aztertu dira. Horien artean daude joera demografikoak, ekonomikoak, sozio-kulturalak, teknologikoak, energetikoak eta garraio arlokoak. Era berean, ingurumen arlo esanguratsuak dituzte joerak ere aztertu dira: berotegi efektuko gasen isurpenak, kutsatzaile atmosferikoen isurpenak, ur kontsumoa eta kutsadura, materialen eta energiaren kontsumoa eta eraginkortasuna, lurzoruaen artifizializazioa, eta hondakin sorkuntza<sup>9</sup>.

1. laukian, 2010-2020 eperako Euskadiko balizko agertoki orokorrean jasotzen denez, biztanleriaren egonkortzea eta zahartzea gertatuko da, eta familiako kide kopurua murriztu egingo da. Hazkunde ekonomikoa neurritzeko izango da, hirugarren sektoreak garrantzi handiagoa hartuko du egitura ekonomikoan eta kanpoko ingurumen faktoreak gero eta balio handiagoa izango dute. Era berean, ingurumena eta natura zaintzeko kezka handitu egin-

<sup>9</sup> EAEko Ingurumen Joerak: Agertokiaren Analisia txostena ikusi. 2007-2010 IEPre web orria ikusi. Egoeraren analisisa egiteko Eurostatek, Eustatek, Energiaren Euskal Erakundeak, Euskadiko Garraio Behatokiak eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak bildutako azken datuak eta egindako azken txostenak erabili dira.

<p><b>Joera Demografikoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Biztanleen kopurua egonkortzea.</li> <li>• Biztanleria zahartzea.</li> <li>• Inmigrazioa handitzea.</li> <li>• Familiako kide kopurua murriztea.</li> </ul>
<p><b>Joera Ekonomikoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Neurrizko hazkunde ekonomikoa.</li> <li>• Hirugarren sektoreak egitura ekonomikoan duen garrantzia handitzea.</li> <li>• Industria astunaren eta manufaktura-industiaren deslokalizazio arriskua.</li> <li>• Nazioarteko lehiakortasuna galtzeko arriskua.</li> <li>• Kontzentrazio ekonomikoa eta bat-egiteak gertatzeko joera.</li> <li>• Eraikuntzaren sektorea pixkanaka moteltzea.</li> <li>• Kontsumoaren hazkundea.</li> <li>• Per capita errentaren neurrizko igoera.</li> <li>• Kanpoko ingurumen faktoreen balorazio gero eta handiagoa.</li> </ul>
<p><b>Joera Sozio-kulturalak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurumen-kontzientzia handitzea; praxian, ordea, ez da horrela gertatu: etxebizitza-mota, garraio-moduak edota aisialdia aukeratzea.</li> <li>• Ingurumenaren babesa balio sozial garrantzitsu bezala finkatu da.</li> <li>• Ingurumen erregulazio handiagoa Europar Batasunaren aldetik.</li> </ul>
<p><b>Joera Teknologikoak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Energia eraginkortasunaren, material eraginkortasunaren eta ekoeraginkortasunaren neurrizko hazkunde iraunkorra, hein batean, garapen teknologiko handiagoaren eraginez.</li> </ul>
<p><b>Garraio Joerak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Garraio eskariaren hazkunde handia.</li> <li>• Autoz egindako joan-etorrien ugaltzea.</li> <li>• Garraio publikoaren eskariaren igoera txikia.</li> <li>• Abiadura handiko tren.</li> <li>• Tranbiaren erabilpenaren hazkunde handia herriz kanpoko joan-etorrietan.</li> <li>• Euskal Autonomia Erkidegoa jatorri eta helmuga duten pertsonen aire trafikoa hazkundea.</li> <li>• Materialen itsas trafikoa hazkundea.</li> </ul>
<p><b>Energia Joerak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Energia kontsumoaren hazkundea.</li> <li>• Erregai fosilen prezio ertain-altuak.</li> <li>• Energia berriztagarrien erabilpen gero eta handiagoa.</li> <li>• Energia eraginkortasunaren hazkundea.</li> <li>• Bioerregaiak ugaltzea.</li> <li>• Aldaketak energia-eskaintzan (sortzea/batera sortzea).</li> </ul>

1. taula.- Euskadi 2010-2020: Balizko agertokia.

go da arlo pertsonalean zein sozialean. Ondorioz, ingurumenaren babesa balio sozial garrantzitsu baezala finkatuko da. Garapen teknologikoaren eraginez, materialen eraginkortasuna eta ekoeraginkortasuna hobetu egingo dira. Garraioari dagokionez, autoa gehiago erabiliko da, garraio publikoaren erabilpenean igoera txikia izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoa jatorri eta helburu bezala duen pertsonen trafikoa hazi egingo da. Erregai fosilen erdi mailako prezioen eta prezio garestien ondorioz, energia-eraginkortasuna apurka eta etengabe handitu egingo da. Energia berriztagarriak gehiago erabiliko dira eta egungoak baino CO<sub>2</sub> eta partikula gutxiago isurtzen dituzten ibilgailuak fabrikatuko dira.

Ingurumen arloko joerak hurrengoak dira:

- Berotegi efektuko gasen isurpenari dagokionez, oso kezagarria da Euskadiko joera. Izan ere, egungo joera aldatzen ez bada, isurpenak %60 hasiko dira 2020an 1990 erreferentzia urtearekin alderatuta. Gainera, ez dira joera hori aldatzeko neurri politikoak hartzen. Klima aldaketarekin lotutako presioak gero eta handiagoak izan-



go dira: ur baliabideak murriztea, kostaldeko eremu kalteberenak desagertzea, biodibertsitateari kalte egitea... Ondorioz, ezinbestekoa da presio horiek Euskadin sortu ditzaketen kalteak murrizteko beharrezko politikak garatzea.

- Isurpen azidifikanteak murrizten ari dira teknologia berrien eraginez.
- Uraren kalitatea hobetzen ari da. Euskadik etekina aterako die saneamenduen eta azpiegituren arloan dagoeneko egin diren edota egiten ari diren ahaleginei.
- Ur kontsumoa egonkortzen ari da. Energia kontsumoak, berriz, ziklo ekonomikoaren araberako neurrizko igoera izango du. Hori bai, egitura ekonomikoan eta energia aurrezkian zein eraginkortasunen izaten diren hobekuntzak baldintzatuko du hazkundera. Material kontsumoak ere neurrizko igoera izango du.
- Lurzoruaren erabilpenean aldaketak emateko presio garrantzitsuak izango dira etorkizunean ere, bizitegi erabilpenerako, garraio azpiegiturarako eta industri erabilpenerako eskaera handitu egingo baita. Ondorioz, lurraldearen artifizializazio joera negatiboa da ingurumen ikuspegitik begiratuta. Gainera, kontuan izan behar da artifizializazioak kapital naturalaren galera, lurraldearen zatiketa handiagoa eta biodibertsitate murrizketa eragiten duela.
- Hiri-hondakinen sorkuntza hazi egingo dela dio joerak, kontsumoarekin oso lotuta baitago. Hori bai, hondakinen kudeaketan aurrerapauso gehiago emango dira. Industriako eta eraikuntza/eraispenerako hondakinetan, bigarren mailako lehengaien merkatua argi eta garbi finkatuko da.

#### DIAGNOSTIKOAREKIN LOTUTAKO PROZESU PARTE-HARTZAILEAREN MEZU NAGUSIAK<sup>10</sup>

- Ingurumenak ez du balore sozialen sisteman dagokion lehentasunezko lekua betetzen, oraindik ere. Gaur egun, balio eskalan sakoneko aldaketa gertatzen ari da, eta hori baliatzen jakin behar da.
- Eremu askotan arinkeriaz erabiltzen da garapen iraunkorraren kontzeptua. Garapenak ez du mugarik, baina bai hazkundera eta kontsumoak. Beharrezkoa da arlo ekonomikoarekin bakarrik lotutako aurrerapenaren kontzeptua aldatzea.
- Erakundeetan arazoak daude gaur egun administrazioko maila guztietan eragina izango duten politika diziplinartekoak abian jartzeko. Arazo horiek sektorialak, lurralde arlokoak zein eskumenekin lotutakoak dira.
- Merkatu sistemak ez du, oraindik ere, ingurumenaren errespetua ondasun bezala barneratzen. Ingurumen aktiboek balioa dute merkatuan. Ingurumen inpaktu nagusiei irtenbidea bilatzeko, bitarteko ekonomikoak garatzea eta ezartzea funtsezkoa da.
- Lurraldea iraunkortasunaren oinarritzko erpina da. Lurraldearen antolamenduak sektore eta parte-hartzaile guztiak inplikatzeko, eta eragin handia du bizitzeko moduan eta iraunkortasunean. Lurzoruaren okupazio ereduak eta egungo artifizializazio erritmoak zein hazkundera egitasmoetan jasotzen direnak kezkarriak dira.
- Klima aldaketari aurre egiteko neurriak prozesu industrialetan ari dira kontzentratzen, batez ere, eta zenbait eremu garrantzitsutan (etxe-ekonomian edota garraioan, adibidez) oraindik ez dira eragiten ari.

<sup>10</sup> II. eranskinak 2007-2010 Ingurumen Esparru Programa egiteko burututako prozesu parte-hartzailea jasotzen du zehatz-mehatz.

*“Iparraldeak bere zor ekologikoa ordaindu eta hegoaldeako klima eta ingurumen arazoak konpondu behar ditu. Izan ere, iparraldeak berak sortu ditu arazo horiek, orain artean izandako garapen ekonomiko ez iraunkorragatik”.*

(ACNUR. “Ingurumen-Iheslariak: XXI. Mendeko Arazo Nagusietakoa”)

## 2 Euskadi 2020: ingurumenaren positibo berria




# Euskadi 2020: ingurumenaren ikuspegi positibo berria

## 1. KAPITULUA. ANALISIA ETA DIAGNOSTIKOA



## 2. KAPITULUA. EUSKADI 2020



3. irudia.- 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programaren eskema. Euskadi 2020.

Aurreko kapituluaz azaldutako egoera eta ingurumen joera negatiboak aldatzeko egin da 2007-2010 eperako IEP. Helburua joera horiek hobetu eta ikuspegi positibo bat ezartzea da. Ildo horretan, epe motzeko zein epe luzeko helburuak uztartzen dira –2010 urtera begira ambizio handikoak izanagatik guztiz errealistak diren hobekuntza konpromisoak ezarri dira, eta 2020 urterako erabateko ingurumen aldaketa lortu nahi da 2002-2020 Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiaren testuinguruan–.

Epe luzeko estrategia eguneratzeko, lehenik eta behin, euskal ingurumen politikaren *printzipio gidariak* berriz ere zehaztu dira. Printzipio horiek dira euskal ingurumen politika inspiratzen duten balioak, eta, ondorioz, eduki etiko handia dute. Bigarrenik, ingurumenaren *ikuspegi* berria ezarri da aktore sozial publiko zein pribatuak herrialde bezala dugun helburu handiaren inguruan biltzeko. Ikuspegi horrek ingurumen arloan nora heldu nahi dugun eta horretarako bidea ezartzen du.

Hirugarrenik, hainbat *lehentasun* formulatu dira ikuspegi berria eta ingurumen diagnostikotik, Euskal Autonomia Erkidegoko agertoki analititik eta nazioarteko ingurumen joeretatik eratorritako funtsezko mezuak lotzeko. Lehentasunak zuzenki lotuta daude 2002-2020 Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiarekin –ikuspegi Irudia 3–. Laugarrenik, hainbat *helburu estrategiko* ezarri dira lehentasunetatik abiatuta. Helburu horiek 2020. urtean oinarrituko ingurumen arloetan izan nahi dugun egoera zehazten dute: airearen, uraren eta lurzoruen kalitatea, biodibertsitatea, lurraldea, klima aldaketa, etab.

Bosgarrenik, *erronka estrategiko* bat identifikatu eta ezarri da: ingurumena Euskadiko oinarri industrial, ekonomiko eta sozialaren aldaketarako eta modernizazio teknologikorako bektore bihurtzea. Ildo horretan, hurrengo urteetan Europar Batasunak ingurumen arloan gero eta errekerimendu zorrotzagoak ezarriko dituela, eta aldaketa klimatikoa, energia berriztagarriak, ur aurrezkia, airearen kalitatea edota hondakinak bezalako nazioarteko ingurumen gaiak garrantzi izugarria hartuko dutela baliatu nahi da.

## 2.1 Euskal ingurumen politikaren printzipio gidarien dekalogoia

Euskadi ingurumen politikako printzipio gidariak definitu eta ezartzen joan da urteetan zehar. Iraunkortasunerako bidea gidatzeko printzipioak 1998an Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Iraunkortasunaren Aldeko Konpromisoak agirian jasotzen dira. Bestalde, 2005eko maiatzean Europako Batzordeak Garapen Iraunkorren Printzipio Gidariak definitu zituen Europar Batasuneko Garapen Iraunkorreko Estrategiaren berraztertzea gidatzeko. Aipatutako mugari horiek guztiak inspiratu dute jarraian aurkezten den eta 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programako balioak osatzen dituen Printzipio Gidarien Dekalogoia.

### 1. Etorkizuneko belaunaldiak konpromiso etikoa

Garapen iraunkorrak egungo belaunaldiak etorkizuneko direnekin konpromiso etikoa izatea eskatzen du. Hurrengo ulertu eta onartu behar dugu: natura, dibertsitate biologikoa, paisaiak, lurraldea eta ingurumena zaintzeko, babesteko eta gordetzeko ardura dugu gure atzetik datozenek bizitzaz, edertasunez eta aberastasunez betetako Euskadi jaso ahal izan dezaten.

### 2. Pertsonen osasuna babestea, oinarrizko eskubidea

Gure ingurunean, ingurumenaren arloko hainbat faktore pertsonen osasuna kaltetzen ari direla esateko nahikoa ezagutza zientifiko dago. Airearen kalitatea da faktore nagusia. Horregatik, giza osasuna babestea oinarrizko eskubidetzat jotzen du euskal ingurumen-politikak eta sektore kalteberenak (haurrak eta adinekoak) kontuan hartu ditu. Ondorioz, osasunaren babesa gizarteak dituen beste eskari eta interes batzuen gainetik jarri behar da.

### 3. Garapen bidean diren herrialdeekin elkartasuna

Gure garaiko ingurumen arazo nagusiek mugak gaintzen dituzte. Ekonomikoki garatutako herrialdeek, horien artean Euskadik, hegoaldeko herrialdeak lagundu behar dituzte ekonomia eta gizarte iraunkorrak sor ditzaten. Euskadiko ingurumen politikak hurrengoak bezalako elkarlan ildoak sustatzen ditu garapen bidean dauden herrialdeekin: teknologia garbieran inbertsioak egiteko laguntzak, ezagutza zientifiko-teknikoa transferitzea, bidezko merkataritza, elkarlan proiektuak, garapenerako laguntzak...

### 4. Zuhurtzia printzipioa indarrean jartzea

Euskadiko ingurumen politikak zuhurtzia printzipioa bere egiten du. Erabaki jakin baten inguruko zentzuzko zalantza zientifikoak izanez gero, zuhurtzia printzipioa nagusituko da ingurumenaren edota pertsonen gaineko balizko kalteak eragozteko. Ezagutza zientifikoan ziurtasun eza izatea ez da nahikoa izango pertsonak, ingurumena edota natura babesteko edozein jardura abian ez jartzeko edota bertan behera uzteko.

## 5. Kutsatzen duenak, ordaindu egiten du. Merkatu bitartekoak sustatzea

Europako ingurumen doktrinak aspaldi ezarri zuen gizarteak eskubidea duela lurzorua, airea edota ura kutsatuz guztion ondarea kutsatzen duenari kaltea ordainarazteko. Ingurumen kostuak ez dira sozializatu behar: kutsatzen duenak bere gain hartu behar du dagokion kostua. Ildo horretan, merkatu bitartekoak oinarritzko tresna dira ingurumen iraunkortasunerantz urratsak emateko. Egunero milaka enpresak eta pertsonak prezio erlatiboek igorritako seinaleetan oinarritutako inbertsio, ekoizpen eta kontsumo erabakiak hartzen dituzte. Horregatik, funtsezkoa da prezioek ekoizpen eta kontsumo jarduerak ingurumenerantz duten benetako kostua islatzea.

## 6. Plangintza estrategikoa

Euskadiko ingurumen iraunkortasuna lortzeko ezinbestekoa izango da egindako ahalegina iraunkorra izatea denboran, borondate ezberdinak integratzea, neurri anitzak hartzea eta maila ezberdinetako jarduerak burutzea. Aldaketa garrantzitsuak egin beharko dira arlo guztietan: energia politika, garraio sistema, nekazaritza eta abeltzaintza eredia, herri eta hirien eraketa dinamikak, industri ekoizpena, etxeetako ur eta energia kontsumoa, edota ondasun eta zerbitzuen eguneroko erosketak.

## 7. Ingurumen irizpideak politika guztietan integratzea

Ingurumena zeharkakoa da. Oinarritzkoa da ingurumen irizpideak politika, plan eta programa guztietan integratzea. Horregatik, euskal administrazio publikoko maila eta eremu guztietako politika, plan eta programetan sartu behar dira ingurumen irizpideak. Beharrezkoa da erakundeetan koordinazio mekanismo ahaltsuak sortzea ingurumen irizpideak politiken lantzean eta gauzatzean sistematikoki integratzeko. Plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa integrazioarako funtsezko tresna izan behar da.

## 8. Eskura dagoen ezagutza zientifiko onena erabiltzea

Euskadiko ingurumen politikak bat egiten du Europar Batasunak eta Nazio Batuen Erakundeak ezarritakoekin. Bi erakunde horien ingurumen politikak mundu mailan eskuragarri dagoen ezagutza zientifiko onena hartzen dute oinarri, eta Euskadiko ingurumen politikak ere oinarri zientifiko sendoa du atzean. Hori bai, aurrerantzean ezagutza horretan are eta gehiago sakondu beharra dago lorpen berriak gauzatzeko.

## 9. Herritarren partaidetza eta elkarlan sistematikoa enprekin zein inplikaturako gainontzeko agenteekin

Ingurumen politikaren helburua hurrengo da: gizarte zibil antolatuak euskal administrazioko maila guztiek erabakiak hartzeko eta politikak lantzeko burutzen dituzten prozesuetan parte hartzea. Horretarako ezinbesteko aurrebaldintza da herritarrak informatzea. Ondorioz, biztanleriari bere bizi ereduak ingurumenean duen eragina jakinerazi behar zaio, baita eskura dituen alternatiba iraunkorrak zeintzuk diren ere. Ildo horretan, Tokiko Agenda 21 programak eskola garrantzitsuak dira herritarrek ingurumenarekin eta iraunkortasunarekin konpromisoak har ditzaten. Hori bai, beharrezkoa da sormenaren eta irudimenaren bitartez parte-hartze prozesuak are eta gehiago indartzea. Bestalde, ezin da ahaztu enpresa mundua funtsezkoa dela merkatu ekonomia batean. Izan ere, enpresen menpe dago aberastasunaren sorrera eta gizartearen ongizatea. Horregatik, Euskadin ingurumen eredu iraunkorra ezartzeko ezinbestekoa da gizarteko eragile ekonomikoen elkarlana. Ondorioz, funtsezkoa da enpresen erantzukizun sozial korporatiboa eta sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarlan iraunkorra sustatzea.

## 10. Gobernantzan bikaintasuna lortzeko bidean

Euskadiko ingurumen politika gizartearekin egindako kontratua bezala ulertzen da. Hurrengoak dira kontratu horretako oinarriak: gardentasuna, parte-hartzea, emaitzei begira lan egitea, kontu-ematea, eta politika guztien

arteko koherentzia. Egindako lana goraiatzan ibili beharrean, ingurumen politikak emaitzen zenbaketa garden eta objetiboa sustatzen du. Izan ere, helburua etengabeko hobekuntza da. Horregatik, Europar Batasuneko esperientzia aurreratuenekin aldaraketa zorrotza egiten da sistematikoki. Gobernantza lortzeko, aldaketa hori sustatuko duen nagusitasun politikoa beharko da, baita administrazioaren jarrera eredugarria ere.

Euskadik bitarteko dinamiko bezala sortutako epe luzeko estrategia du, eta periodikoki, emaitzak ebaluatu eta helburuak eguneratzen dira. Eragile ekonomiko eta sozial ugariak era aktiboan hartu dute parte strategiaren lantzean eta berritzean, eta Eusko Jaurlaritzako sail guztiek eta Euskadiko gainontzeko erakundeek elkarrekin artikulatu dute.

## 2.2 Ikuspegia, lehentasunak eta erronka estrategikoa

2007-2010 eperako IEPk epe luzeko eta epe motzeko helburuak uztartzen ditu. Hala, 2020 urtera begira aldaketa xede irmoa ezartzen du, eta, 2010era begira, anbizio handiko konpromiso errealistak. Beste modu batera esanda, 2007-2010 eperako IEPren helburua egoera eta ingurumen-joera negatiboak aldatzeko saiakerak egitea da, betiere, lor daitekeen anbizio handiko ikuspegi positiboa lortzeko. Horretarako, bere marko estrategikoan ingurumen *ikuspegi* berria ezartzen du Euskadirako:

### ● ● ● ● ● ● ● ● **I k u s p e g i a**

**“2020an, ingurumen arloko arazoak konpontzeko bidean direla uztea Euskadi hurrengo belaunaldiari”**

### 2.2.1 Ikuspegitik sortutako 2020rako lehentasunak

Ikuspegia *lau lehentasunetan* zehazten da 2020 urtera begira. Horiek betetzeko aurrerapausoak ematea Eusko Jaurlaritzaren eta gainontzeko administrazioen ardura da. Hori bai, Euskadi egituratzen duten eragile sozial eta ekonomiko guztien elkarlana eta laguntza beharrezkoa da. Eusko Jaurlaritzak Euskadiko ikuspegia zehazterako orduan bere egindako lau lehentasunak 2002-2020 Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategian definitutako bost *helburuekin* zuzenki lotuta daude. Irudia 3.

#### ► **Lehen lehentasuna etorkizuna ziurtatzea, klima aldaketari aurre egitea eta ondorioak jasateko prestatzea da**

Euskadi klima aldaketaren aurka borrokatzeko erabakia hartu duen nazioarteko komunitateko kide da. Hala, (1) eraginkortasunaren eta berriztagarriak erabiltzearen aldeko energia-politikak jarriko dira martxan, (2) trenbide eta itsaso bidezko garraioari eta garraio publikoari garrantzi handiagoa emateko oreka modal handiagoko mugikortasun-eredua garatuko da (3), garraio-eskaera integralki kudeatzeko xedearrekin, (4) herritarrei zuzendutako energia-kontsumo iraunkorra sustatuko da eta (5) klima aldaketara egokitzeko ekintzak antolatu beharko dira.

2020. urtera bitartean, eredu energetiko oso eraginkorra ezartzeko aurrerapausoak eman behar ditu Euskadik. Eredu horrek erregai fosilen gaineko menpekotasuna txikitu eta energia berriztagarrien erabilpena handitu

behar du. Helburua berotegi efektuko gasen isurpen maila 1990 erreferentzi urtearekiko era nabarmenean murriztea da. Horrez gain, Euskadiko garraio-politikak berriro zuzendu beharko ditu kanpo-eragin negatiboak, batez ere, berotegi-efektuko gasen isurketei eta airearen kalitatea kaltetzen duten kutsatzaileei dagokienez. Horretarako ezinbestekoa da anbizio handiko aurrerapausoak ematen joatea hiru lurralde historikoetan garraio publikoa era masiboan erabiltzeko eta errepede bidez egiten ez diren merkantzia garraio ereduak sustatzeko.

► **Bigarren lehentasuna gure kapital naturala indartzea eta gure biodibertsitatea babestea da**

Baliabide naturalak hil ala bizikoak dira gure existintziarako eta gure nortasun ikurrak zein bizimoduari eusteko. Horregatik, jarduera zehatzekin babestu behar dira ezinbestean. Hori lortzeko, natura gure gizarteko balio eskalako leku garrantzitsuan jarri behar da, horrela natura babestu eta berreskuratzeko motorea izango baitugu.

Europar Batasunaren helburua hauxe da: 2010erako biodibertsitatea galtzeari uztea. Zeregin horretan laguntzeko, Euskadin *Natura 2000 Sarean* sartuko diren espazioak indartu eta behar bezala kudeatu behar dira; *Euskadiko Biodibertsitatearen Behatokia* finkatu behar da; babestutako naturaguneen sarea hedatu eta kudeatu behar dira; hezeguneak berreskuratzeko programa indartu behar da; *Korridore Ekologikoen Sarea* garatu behar da; *Madariaga Dorretxea-Urdaibai Biodibertsitate Zentroa* sortu eta kudeatu behar da; ohiko laboreak eta labore ekologikoak indartu behar dira, eta gizakiak edota animaliak elikatzeko genetikoki eraldatutako laboreen ekoizpena eragotzi; eta biodibertsitatearen inguruko sentsibilizazio, informazio eta heziketa lanekin jarraitu behar da.

Era berean, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 legea baliatu behar dugu eragile publikoek zein pribatuek kutsatutako lurzoruak berreskuratzea eta balioan jartzea sustatzeko. Euskadirako definitutako ikuspegiaren arabera, 2020 urtean hurrengo belaunaldiaren esku utzi behar den herrialdean kutsatutako lurzoruen arazo historikoa ia guztiz konponduta izan behar da –ingurumenarekin begirune oso gutxi izan zuen iragan industrialaren herentzia da arazo–.

Uraren Legea eta Uraren Euskal Agentzia baliatu behar dira Euskadi lider izan dadin Europako Uraren Zuzentzariak ezarritako estandar ekologiko, ekonomiko eta sozialak betetzeko orduan. 2015 urterako Euskadiko ibaiek, estuarioetako eta itsasbaterretako urek, eta lurpeko urek kalitate handiko egoera fisiko, kimiko eta ekologikoa izan behar dute, eta uraren kudeaketa integrala bermatu behar da.

Era berean, lurraldea eta herrialdeko kapital naturala babestu behar dira iraunkortasun ikuspegi irmoa izanda. Ezin dugu ahaztu lurraldea gure kapital naturaleko oinarritzko osagaia dela, eta gurea bezalako herrialde batetan, oso baliabide eskasa dela. Argi dago gizartearen prozesu ekonomikoaren ondorioz kapital naturala giza kapital bihurtu beharra dagoela (urbanizazioak, garraio azpiegiturak, industriguneak eta abar). Aldiz, ezin da ahaztu artifizializazio maila jakin batzuk ezin direla gainditu. Azken urteetan Euskadik artifizializazio prozesu handiak izan ditu, eta ondorioz, gure kapital naturala higatu egin da. Horregatik, beharrezkoa da lurzoru naturalaren erabilpen ez hain intentsiboa ezartzen duen eredu baten aldeko aurrerapausoak ematea. Lurzoru naturala erabili beharrean, dagoeneko urbanizatuta dauden lurzoruen berrerabilpena sustatu behar dute urbanizazio planek, ekonomia eta garraio azpiegiturek, ekipamenduek...

Ingurumen iraunkortasuna kapital natural maila jakin batzuei eutsiz gero bakarrik da posible; hau da, ezinbestekoa da lurralde jakin bateko ekosistemen funtzionamendua eta kalitateari eustea. Ildo horretan, oso garrantzitsua da kapital naturalaren gaineko eragin garrantzitsua duten jarduera antropikoak ahalik eta gehien saihestea. Aipatutakoaren adibide dira baso naturalen, itsasertzen, biodibertsitatearen, erreka eta akuiferoen, eta nekazaritza sistema tradizionalen galerak. Kapital naturalaren galera eragin arren gauzatzen diren jardueren kasuan, ezinbestekoa da egindako kaltea konpentsatzea. Horretarako, kapital naturala handitzeko edota hobetzeko neurriak hartu behar dira.



► **Herriguneetako ingurumen kalitatea hobetzea da hirugarren lehentasuna, funtsezkoa baita pertsonen bizi-kalitateari eusteko**

Garapen Iraunkorreko Europako Estrategiako hainbat arlo kontuan izan behar dira ingurumena pertsonen bizi-kalitatearen funtsezko elementu bihurtzeko. Herritarren osasuna babestea beharrezkoa da eta horretarako ingurumenetik eratorritako gaixotasunei aurre egiteko neurriak hartu behar dira: herriguneetako ingurumen kalitatea hobetzea, eta pertsonen, naturaren eta lurraldearen erabilpenaren arteko erlazio adeitsuagoa sustatzea. Osasunaren zaintzaren gaineko ardurak bihurtuko da hurrengo urteetan ingurumen arloko gizarte sentsibilizazioaren bektore nagusia. Ingurumenak haurtzarora eta zahartzarora bezalako sektore sozial sentiberenetan izan dezakeen eraginak sortuko du kezka handiena. Horren adibide, hainbat alerta piztu dira jada Europar Batasunean gehiegizko zaratak sortutako gaixotasunengatik edota haurren arnasketa arazoengatik –hirietako kutsadura atmosferikoa da arazo horien erantzuleetako bat–.

Hurrengo urteetan aurrerapauso garrantzitsuak eman behar dira hainbat arazori irtenbidea bilatzeko: airearen kutsadura eta kalitatea –batez ere partikulei eta ozono troposferikoari dagokionez, giza osasunean eragin kaltegarria baitute–, zarata, trafiko pilaketak, herriguneetako eta hiri inguruetakoko parke eta inguru berde kopuru urria, portuetako jardueren eragina... Horretarako, garapen iraunkorreko jarduera sinergiko eta egituratzaileak sustatu behar dira hirietan: garraio iraunkor proiektuak, kutsatutako lurzoruen berreskurapenak, klima aldaketari aurre egiteko jarduerak, energia berriztagarriak, ingurumen aktiboak balioan jartzea... Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sareak oinarritzko rola jokatu beharko du anbizio handiko helburu hori betetzeko.

► **Laugarren eta azken lehentasuna euskal ekonomia iraunkorrerantz aurrerapausoak ematea da. Ingurumenerako iraunkorrak diren kontsumo eta ekoizpen ereduak hurbiltzea**

Gizartea ingurumen gaiekin gero eta sentiberagoa dela eta enpresek egindako ingurumen jauzia baliatuta, eredu iraunkorraren aldeko aldaketa esanguratsua sustatu behar da ekoizpen eta kontsumo ohituretan. Bide horretan, beharrezkoa da ingurumena enpresen lehiakortasun elementu bezala baliatzea, baita produktu eta zerbitzu berriak sortzeko motore izatea ere. Hala, Euskadiko ekoizpen sarea dibertsifikatu ahal izango da ezagutzen intentsiboagoak diren sektore teknologikoki aurreratuagoak sustatuz.

Era berean, beharrezkoa da ingurumenarekin lotutako enpresa sorkuntza laguntzea. Ingurumena enpresaburu eta enpresa berriak agertzeko aldagai erabakigarri moduan sustatu behar da. Hori horrela, ekoizpen-sarea dibertsifikatu beharko da ondoko arloetan: kutsatutako lurzoruen garbiketan, energia berriztagarrietan, banatutako energian, naturaren zaintzan eta balioan jartzean... Kapital sozial trebatuagoan oinarrituta, ekoeraginkortasuna bultzatu behar da. Gehiago eta hobeto ekoiztu behar da, baina baliabide natural, energia, ur eta lurralde gutxiagorekin, eta hondakin gutxiago sortuz. Horretarako, ezinbestekoa da herrialdeko kapital sozialaren heziketa eta ezagutza maila hobetzea. *Euskadiko Zientzia eta Teknologia Sistema* ezagutza aplikatua sortzeko epe luzeko lan ildo iraunkor batean integratu behar da, baita ingurumen arloan ere. Era berean, ikerketa sustatu behar da, ezagutza garatzeko eta ingurumen arloko eremu nagusiei (klima aldaketa, lurzorua babestea, biodibertsitatea...) lotutako edota horiek lehiakortasunerako erreferentzia moduan hartuko dituen enpresa-sarea sortzeko. Enpresa Lehiakortasunerako eta *Berrikuntza Sozialerako Euskal Autonomia Erkidegoko Estrategiak* jasotzen duenez, BPGren hazkundearen eta ingurumen eraginaren hazkundearen arteko loturarekin amaitzea ahalbidetu dezakeen gakoetako bat berrikuntza da. Ildo horretan egiten ari den lanaren abiapuntua *Teknologia Garbien Euskal Zerrenda* da, zerga-onurak ezartzen baitizkie ingurumenerako onuragarrienak diren teknologiei.



## 2.2.2 Erronka estrategikoa

Marko honetan, 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programak azaldutako lehentasunekin bat datorren Erronka Estrategikoa ezartzen du ikuspegi berria betetzeko asmoz. Hurrengoa da 2020 urtera begira finkatutako *Erronka Estrategikoa*:

# 2020rako Erronka Estrategikoa

“Ingurumen arloko nazioarteko kezkaz baliatzea, ekonomiaren sektore guztietan aplikazio berritzaileak sortzeko, betiere, Euskadi teknologia garbien, ekoeraginkortasunaren, energia-eraginkortasunaren eta eskuragarri dauden teknologia onenen erabileraren abangoardian kokatzeko helburuarekin”

Erronka honek zera eskatzen du: Euskadi 2020. urterako Europako eskualde liderretakoa izatea klima aldaketaren eta bestelako fenomeno globalen aurkako borrokan, herri eta hirien ingurumen kalitatearen gaineko kezkaz izatea, eta lurralde orekatua eta babestutako biodibertsitatea izatea. Azaldutako aldaketarako palankez eta nazioarteko ingurumen-kezkaz baliatzen jakin behar du Euskadik, industriarako, zerbitzuetarako, lehenengo sektorerako... aplikazio berritzaileak sortzeko. Era berean, teknologia garbiak garatzearen, ekoeraginkortasunaren, eraginkortasun energetikoaren eta eskuragarri dauden teknologia onenak ezartzearen abangoardian kokatu beharko du. Baliabide naturalak behar bezala kudeatzen dituen herrialdea izatearen aldeko apustua egin behar du. Azken finean, nazioarte mailan aitortua izan behar da Euskadi ingurumen iraunkortasun arloko ezagutzan eta aurrerapenean lider izateagatik.



### PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREKIN LOTUTAKO PARTE-HARTZE PROZESUKO MEZU NAGUSIAK

- Beharrezkoa da botere publikoek jarrera aktiboa hartzea garapen iraunkorraren kontzeptu berria zuzentzen duten printzipioen artean ingurumena sartzeko. Horretarako, ingurumenak eskala sozialean duen garrantzia handitzeko lan egin behar dute.
- Beharrezkoa da ingurumenak politika publikoetan gero eta eragin handiagoa izatea. Politiken koordinazio eraginkorra oinarrizkoa da mezu instituzionalaren koherentziari eusteko.
- Euskal Autonomia Erkidegoko, lurralde historikoetako eta udalerrietako erakunde guztiek barneratu behar dituzte ingurumen politikako konpromisoak. Era berean, duten ardura maila onartu behar dute.
- Gizarteari informazioa helarazteko bideak ez dira behar beste landu oraindik. Horregatik, beharrezkoa da informazio publikoko mekanismoetan indarra jartzea.
- Hezkuntzak jokatu beharreko rola funtsezkoa da.
- Erroka garrantzitsua da merkatuak ingurumen aktiboen balioa kontuan hartzea eta ingurumen kostu eta onurak prezioetan barneratzea.
- Beharrezkoa da jarraipen dinamika eraginkorrak definitzea, bide onean ari ote garen jakiteko eta hartutako konpromisoetara eta etengabe aldatzen ari den errealtatera egokitu ahal izateko.
- Euskadiko ingurunearen garapen ereduak beharrezko bihurtzen du herriguneekin lotutako gaietarako berezko espazioa sortzea. Izan ere, biztanle gehienak herriguneean eta hirietan bizi dira, eta bertan lan egiteko tarte handia dugu oraindik.
- *Klima aldaketaren* inguruko apustua funtsezkoa da, jarduera operatiboen ikuspegitik. Era berean, kontuan izan behar da eragile zein eredu sortzaile bezala duen garrantzia. Aurreikusitako jarduerak ez diote energia sektoreari bakarrik eragin behar: energia aurrezkoa eta eraginkortasuna guztiz beharrezkoak dira, baina ez dira nahikoa Kyotoko helburuak zein Kyoto osteko helburuak betetzeko.

### 2.2.3 Helburu estrategikoak

Azaldutako lehenetsunekin eta ikuspegiarekin bat eginik definitzen ditu bere *Helburu Estrategikoak* 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programak, baita Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiaren bost ingurumen helburuekin adostasunean ere. Helburu horiek berezko politiken garapena eskatzen duten oinarrizko hainbat arlotan 2020an Euskal Autonomia Erkidegoan izan nahi den egoera definitzen dute. Hurrengoak dira ingurumen arlo horiek: airearen kalitatea, hondakinak, biodibertsitatea, mugikortasuna, klima aldaketara egokitzea.

*Helburu estrategikoek* aipatutako lehenetsunak indarrean jartzea eskatzen dute. 2007-2010 eperako IEPren barruan lehenetsunek zubi lana egiten dute 2020. urtera begira ezarritako epe luzeko plangintza estrategikoaren eta 2010erako gauzatu nahi diren epe motzeko aurrepauso zehatzen artean. Eusko Jaurlaritzak Esparru Programa honetan hartutako konpromisoek bat egiten dute 2010 urterako ezarritako ingurumen kalitate hobekuntzekin -hirugarren kapitulua ikusi-. Konpromiso horiek, berriz, jarraian azaltzen diren helburuak egituratzen dituzte.

Jarraian datorren atalean ezarritako 2010erako konpromisoak *helburu estrategikoen* barruan daude. 2002an Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia onartu zenetik indarrean jarritako ingurumen politikako dokumentuetan azaltzen diren funtsezko arlo guztiak biltzen dira hamaika helburuetan -dokumentu horiek Ingurumen Adierazleak, Ingurumen Egoera, eta Ingurumen Iraunkortasuneko Txostena dira).

## HELBURU ESTRATEGIKOAK 2007-2010 IEP

### I. HELBURUA: Aire, ur eta lur garbiak eta osasungarriak bermatzea

#### 1. HELBURU ESTRATEGIKOA. AIRE GARBIA

- Lurralde osoan airearen kalitatea hobetzea, herritarren osasunean eta bizi-kalitatean duen eraginagatik. Horretarako, herriguneei arreta handia jarriko zaie.

#### 2. HELBURU ESTRATEGIKOA. URAREN KALITATE ONA

- Euskal Autonomia Erkidegoko Plangintza Hidrologikoan zehaztutako ur-masek egoera ekologiko ona izatea eta ur horiek ez kaltetzea, pertsonen garapena eta bizi-kalitatea zein ekosistemen egoera ona sustatzeko.

#### 3. HELBURU ESTRATEGIKOA. LURZORUA EZ KUTSATZEA ETA KUTSATUTAKOIA GARBITZEA

- Lurzorua egoki kudeatzea, kutsadura historikoa lehentasunez berreskuratuta eta beste kutsadura mota batzuk aurreikusita.

### II. HELBURUA: Baliabide naturalak eta hondakinak erantzukizunez kudeatzea

#### 4. HELBURU ESTRATEGIKOA. BALIABIDEAK ERANTZUKIZUNEZ KONTSUMITZEA

- Baliabide naturalen (lurzorua, ura eta materialak) kontsumo arduratsua sustatzea eta eraginkortasuna optimizatzea. Azken hori lortzearren, ikerketa eta berrikuntza bultzatu behar dira, lehiakortasuna handitu dadin.

#### 5. HELBURU ESTRATEGIKOA. ENERGIA KONTSUMO ETA EKOIZPEN IRAUNKORRA SUSTATZEA

- Kontsumo sektore guztietan energia aurrezkoa, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilpena sustatzea.

#### 6. HELBURU ESTRATEGIKOA. HONDAKINAK MURRIZTEA ETA ISURKETARIK EZ EGITEA

- Hondakinen ekoizpena murriztea eta hauen kudeaketa hobetzea, tratatu gabeko hondakinen isurketa-maila hutsera iritsi arte.

### III. HELBURUA: Natura eta bioaniztasuna zaintzea: babestu beharreko balore aparta

#### 7. HELBURU ESTRATEGIKOA. GURE ANIZTASUN BIOLOGIKOARI EUSTEA

- Lurreko eta itsasoko habitaten eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra babestuta eta berreskuratuta, aniztasun biologikoaren galera gelditzea.

### IV. HELBURUA: Lurraldearen oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua

#### 8. HELBURU ESTRATEGIKOA. MUGIKORTASUNA KUDEATZEKO EREDU BERRI BATERA BIDERATZEA

- Pertsonen mugikortasun-eskaerari erantzuteko, oinez, bizikletaz eta garraio kolektiboan ibiltzea sustatzea. Merkantzien garraioan, berriz, itsaso eta trenbide bidezko garraioa sustatzea, errepide bidezkoa murrizteko xedearekin.

#### 9. HELBURU ESTRATEGIKOA. LURRALDEA MODU OREKATUAN ERABILTZEA LORTZEA

- Lurraldean eragiten duten sektoreen plangintza bateratua eta koherentea egitea, lurraldeko artifizializazio- eta zatiketa-arazoak konpontzeko.

### V. HELBURUA: Klima aldaketaren eragina murriztea

#### 10. HELBURU ESTRATEGIKOA. BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURKETAK MUGATZEA

- Berotegi efektuko gasen isurketak murriztea, karbono gutxiko ekonomiarantz bideratuta.

#### 11. HELBURU ESTRATEGIKOA: KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA

- Klima aldaketarako egokitzapena kudeatzea, aurreikusitako eraginaren aurrean gure urrakortasuna ahalik eta gehien murriztu dadin.

*“Gure bizi-kalitatea iraunkortasunaren oinarrien gainean eraikitzea beharrezkoa da: ongizate ekonomikoa, justizia soziala, ingurumen garbi eta osasuntsua... Garapen iraunkorra berehalako neurri sendo eta ausartak eskatzen dituen estrategia iraunkor gisa ulertu behar da”.*

*(Euskadiko Iraunkortasunaren Aldeko Konpromisoa.  
Bilbo, 2001eko urtarrilaren 22a)*

# 3 | 2010ari begira. Ingurumen | hobekuntzarekin konprometituta

# 2010ari begira. Ingurumen hobekuntzarekin konprometituta




4. irudia.- 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programaren eskema. 2010ari begira.

2020. urtera begira landutako marko estrategikoa ezarritakoan (*Ikuspegia, Lehentasunak eta Helburu Estrategikoa*), 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programak 2010 urtea epe-mugatzat hartuta zehazten ditu bere jarduerak. Hurrengo irudian bi epe-mugen arteko harremana zehazten da.

Ingurumen Esparru Programak hainbat *konpromiso, jarduera ildo eta beharrezko baldintza* zehazten ditu 2007-2010 eperako.

**Konpromisoak** zehatzak eta neurgarriak dira, eta aurkeztutako helburu estrategikoen norabidean emandako aurrerapausoak neurtzeko ezarri ditu Eusko Jaurlaritzak<sup>11</sup>. Konpromiso horiek osatzen dute 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programaren bihotza. Izan ere, beraiek adierazten dituzte era zehatzean eta neurgarrian hel-

<sup>11</sup> 2002-2006 IEPk 178 konpromiso jaso zituen; 2007-2010 Ingurumen Esparru Programan, aldiz, konpromisoak lehenesteko aukera egin da. Ondorioz, 2007-2010 IEPko konpromisoak ingurumenaren kalitate hobekuntzekin daude lotuta eskusibloki eta ez administrazioaren jardura instrumentalekin. Egindako aukerak autoexijentzia handiagoa eskatzen du, erronka gizartearen aurrean *ingurumen emaitzak aurkeztea* baita. Horrenbestez, Gobernuak ingurumen hobekuntzan emandako aurrerapausoak azaldu beharko dizkie herritarrei urtetik urtera. Aurrerapauso horiek zehatz-mehatz kuantifikatzeko, adierazle panelak erabiliko dira.



5. irudia.- 2020. urterako helburu estrategikoen eta 2010eko horizontetaren arteko erlazioaren eskema.

buru estrategikoak betetzeko emandako aurrerapausoak, eta, ondorioz, ingurumen aldaketa ikuspegi berri baten alde Eusko Jaurlaritzak egindako apustua neurtzen dute. Konpromisoek Euskadiko ingurumen egoerarekin lotutako hobekuntza zehatzekin dute zerikusia, horiek baitira benetan herritarrei interesatzen zaizkienak. Era berean, konpromiso guztiak adierazle sistema baten bitartez neurtu ahal izango dira. Horrela, Eusko Jaurlaritzak lortutako aurrerapausoak azaldu ahal izango dizkie urtero herritarrei. Adierazle bakoitzaren jarraipena egitea zer gobernu zuzendaritzari dagokion ere ezarrita dago.

Konpromisoak betetzeko eta helburu estrategikoetarantz zein ingurumen helburuetarantz aurrerapausoak emateko erabiliko diren bitartekoak **jarduera ildoak** dira. Azken finean, helburuak betetzeko bitartekoak dira. Jarduera ildoak inplikaturako aldean arteko eztabaida eta adostasun prozesu zorrotz baten ostean identifikatu eta artikulatu dira, eta orotarikoak dira: plangintza hobekuntzak, lege berrien sustapena Eusko Legebiltzarrean, bitarteko ekonomikoen aplikazioa, azpiegituren sorrera... Jarduera ildoak egoeraren arabera egokitu eta aldatu daitezke, beraien funtzio bakarra konpromisoak betetzen laguntzea baita. Hori bai, oraingoz uneotan Eusko Jaurlaritzaren esku dauden bitarteko garrantzitsuenak azaltzen dituzte gaur egun eskuragarri dagoen ezagutza kontuan izanik. Bitarteko horien helburua jarraian azaltzen diren konpromisoak betetzeko aurrerapausoak ematea da.

**Beharrezko baldintzek**, berriz, administrazioak euskal ingurumen politikan burututako jardueren eraginkortasuna hobetzeko ezarritako ikuspegian eta helburu estrategikoan aurrerapausoak ematea laguntzeko konpromisoen zeharkakoak diren bitartekoak biltzen dituzte.

### 3.1 Konpromisoak eta jarduera ildoak

Jarraian helburu eta helburu estrategiko bakoitzerako 2010era begira ezarritako konpromisoak azaltzen dira, baita beraiekin lotutako jarduera lerro nagusiak ere.

## 1. HELBURUA.

Aire, ur, eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea

<b>1. helburu estrategikoa.</b> AIRE GARBIA	38
<b>2. helburu estrategikoa.</b> URAREN KALITATE ONA	40
<b>3. helburu estrategikoa.</b> LURRAREN KUTSADURA AURREIKUSTEA ETA ZUZENTZEA	42





aireaAIRE

## 1. HELBURUA.

### 1. helburu estrategikoa. AIRE GARBIA

Lurralde osoan airearen kalitatea hobetzea, osasunean eta herritarren bizi-kalitatean duen eragina dela eta. Arreta berezia jarriko zaie herriguneei.

Giza osasunaren eta ekosistemen gaineko eragin kaltegarriak saihesteko baldintza argi eta beharrezkoenetakoa airearen kalitatea da. Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen diagnostikoak atmosferari egindako substantzia kutsatzaileen isurpenean hobekuntza nabarmenak izan direla erakusten du. Kontuan izan behar da gure artean ohikoak izan direla tradizionalki isurpen horiek jarduera industrial handiaren eraginez. Hala ere, azken urteotan airearen kalitatea kaltetzen duten beste indar eragile batzuk sortu dira, adibidez: garraioa. Era berean, beste parametro kutsatzaile batzuetan ere (partikulen isurketa, besteak beste) arreta handiagoa jarri beharra dago.

Kutsadura akustikoaren arazoa ere nabarmena da. Horren erakusle, euskal gizarteak osasunean eta bizi-kalitatean eragiten duen lehen mailako ingurumen inpaktu bezala ikusten du jada. Trafikoak, industri instalazioek edota aisialdi jarduerak sortutako kutsadura akustikoa ingurumen arazo nagusietakoa bihurtu da, batez ere herrigunetan.

Hain zuzen ere, 2020 urtera begira, herriguneetako ingurumen kalitatea hobetzea da euskal ingurumen politikaren lehentasunetako bat. Ondorioz, ahalegin berezia egingo da atmosferara isuritako parametro kutsatzaile kopurua eta zarata maila handia jasaten duten herritar kopurua murrizteko.

Hurrengo lau urteetan bost konpromiso zehatzetan gauzatuko da helburu estrategiko hori. Hurrengo arlotan jarriko dute indarra konpromiso horiek: aire kalitate maila orokorrak hobetzea, partikulen kontzentrazioak murriztea, NO<sub>x</sub>, SO<sub>2</sub> eta konposatu organiko hegokorren isurpenak murriztea, eta zarata maila handia jasaten duten herritar kopurua murriztea.

2010erako KONPROMISOAK	Jarraipena egitearen arduraduna
M1.1 Neurritzak eta onargarria mailak %95 baino gehiago izango diren aire kalitate indizea lortzea; aldiz, txarra, oso txarra eta arriskutsua mailak %1 baino gutxiago izatea. Txarra, oso txarra eta arriskutsua maila jasaten duten herritarren kopurua %20 murriztea, 2006arekin alderatuta.	Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza
M1.2 Airearen kalitateari buruzko jarduera-planak egitea beharrezkoa den eremutan, urteko batez besteko partikula kontzentrazioa gutxienez %10 murriztea.	Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza
M1.3 Sareko estazioetan, Europar Batasunak zehazten duen PM <sub>2,5</sub> en urteko muga-balioa ez gainditzea.	Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza
M1.4 NO <sub>x</sub> , SO <sub>2</sub> eta konposatu organiko hegokorren isurpenak hurrengo portzentaietan murrizten laguntzea, 1990eko datuekin alderatuta: NO <sub>x</sub> : -%31, SO <sub>2</sub> : -%64, KOHEM: -%58.	Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza
M1.5 Osasunerako Mundu Erakundeak aglomerazio handietarako gomendatutako mugak gainditzen dituzten zarata mailak jasaten dituzten herritarren kopurua %10 murriztea, 2006 urtearekin alderatuta.	Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza



## JARDUERA ILDO NAGUSIAK

1. **ILDOA.** Airearen kalitateari buruzko jardueraren planak garatzea eta ezartzea herrietan eta eskualdeetan. Plan horien helburua da kutsadura mailak osasunerako eta ekosistemarako balio onargarrietara jaitea, eta, horretarako, partikulatan arreta handia jartzea. Herrietako kutsadura atmosferikoan eragin handiena duten sektoreetarako neurriak jasoko dituzte planek (ibilgailuen garraioa, herri-lanak eta lan zibilak, industria-jarduerak eta etxebizitzaren eta zerbitzuen sektorea).
2. **ILDOA.** Indarrean dagoen legedia Euskal Autonomia Erkidegoko atmosfera kutsatzeko arriskua duten jardueren egungo baldintzetara egokitzea.
3. **ILDOA.** Euskal Autonomia Erkidegoko *Airearen Kalitatea Kontrolatzeko* eta Ikusatzeko Sarea hobetzea eta handitzea. Airearen Kalitateari Buruzko Europako Zuzentarau berriarekin neurtu beharreko beste kutsatzaile bat,  $PM_{2,5}$  arautuko da. Era berean, konposatu organiko hegazkorren eta material partikulatuen konposizioaren gaineko ikerketa berriak egingo dira.
4. **ILDOA.** Kutsadura atmosferikoko kasuetarako jardueraren protokoloa ezartzea. Ozono maila altuak gertatzen direnerako protokoloa ezarriko da.
5. **ILDOA.** 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan zonifikazio akustikoa, zarata mapak eta jardueraren planak egitea. Mapek eta planek kutsadura akustikoko guneak aztertuko dituzte. Gune horiek iturri mugikorrek (ibilgailuen trafikoa eta trenbidea) zein finkoek (jardueraren industrialak, ostalaritza, merkataritza jarduerak eta zarata komunitarioak) sortzen dituzte. Era berean, kutsadura akustikoa murrizteko helburuak ezarriko dira, zaratek kaltetutako biztanleen proportzioan edota eragindako lurzorua azalera oinarrituta.

\*Oharra.- Garraioarekin eta lurralde antolaketarekin lotutako jardueraren ildoak zortzigarren eta begeratzigarren helburu estrategikoetan zehazten dira («Beste mugikortasun kudeaketa eredu baterantz» eta «Lurraldearen erabilpen orekatua lortzea»).

### INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Osasun Saila
- Herrizaingo Saila.
- Foru aldundiak
- Udalak

## 1. HELBURUA.

## 2. helburu estrategikoa. URAREN KALITATE ONA

Euskal Autonomia Erkidegoko Plangintza Hidrologikoan zehaztutako ur-masek egoera ekologiko ona izatea eta ur horiek ez kaltetzea, pertsonen garapena eta bizi-kalitatea zein ekosistemen egoera ona bultzatzeko.

Instituzioek ahalegin berezia egin dute uraren kalitatea hobetzen, eta ondorioz, bilakaera positiboena izan duen arloetako bat izan da. *Uraren Zuzentarua Markoak* jasotako planteamenduen aplikazioak zehaztuko du hurrengo urteetan Europako eta Euskadiko ur kudeaketa. Plantemenedu horiek *1/2006 uraren legeak* egokitu ditu Euskadiko errealitatera. Ura baliabide natural eta habitat bezala ikusten duen kultura berria indarrean jarri da jada Euskadin zaintza eta kontrol sare zabalaren egokitzapenaren bitartez.

2010erako KONPROMISOAK	Jarraipena egitearen arduraduna
M1.6 Azaleko ur masak babestu, hobetu eta birsortzea, uren %80k egoera ekologiko ona izatea lortzeko <sup>12</sup> .	Uren Zuzendaritza/Uraren Euskal Agentzia
M1.7 Ur masa artifizialak eta oso aldatutakoak babestea eta hobetzea, horietatik %80k potentzial ekologiko eta egoera kimiko ona izateko <sup>12</sup> .	Uren Zuzendaritza/Uraren Euskal Agentzia
M1.8 Lurpeko ur masak babestea, hobetzea eta birsortzea. Ur horiek ateratzearen eta elikatzearen arteko orekari bere horretan eustea, lurpeko uren %80 egoera onean egoteko <sup>12</sup> .	Uren Zuzendaritza/Uraren Euskal Agentzia
M1.9 Saneamendu azpiegitura publikoek jaso beharreko herri eta hirietako hondakin-urak, biztanleen %97ri dagozkionak, beraien isurirako eta hartzaileentzat egokiak diren HUA motako araztegiatan tratatzea lortzea.	Uren Zuzendaritza/Uraren Euskal Agentzia
M1.10 Bainatzeko uretako lagin-hartze puntuen %95ek ona edo onargarria kalifikazioa izatea lortzea <sup>13</sup> .	Osasun Publikoko Zuzendaritza
M1.11 Euskadiko biztanleen %95i egokia kalifikazioko kontsumo ura hornitzea lortzea <sup>14</sup> .	Osasun Publikoko Zuzendaritza

Hurrengo urteetan beharrezkoa izango da sistema hidrikoko elementu guztien arteko erlazioa aztertzea eta mugape hidrografiko bakoitzean era orekatuan kudeatzea. Helburua garbia da: ura arrazionalki aprobetxatzeko eta habitatei eta ekosistemei eusteko kopuru, kalitate eta jario beharrezkoak eskura izatea bermatzea.

<sup>12</sup> Egoera ekologiko ona, potentzial ekologiko ona, egoera kimiko ona, egoera ona, azaleko ura, azaleko ur masa, ur masa artifizial eta oso aldatua, eta lurpeko ur masa kontzeptuen definizioa, uraren gaineko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen arabera.

<sup>13</sup> **Kalitate oneko ura:** lagin gehienetan analizatutako parametroen emaitzak aginte-balioen eta gidaren azpitik dituen (EBko Zuzentarauan adierazita daude biak). **Osasun ikuspegitik onargarria den ura:** lagin gehienetan parametroen emaitzak aginte-balioen azpitik izan arren, gida-balioak gainditzen dituen. **Ur ez gomendatua:** lagin gehienetan emaitzak aginte-balioak gainditzen dituen.

<sup>14</sup> **Egokia:** analisien %95ean, gutxienez, edangarri kalifikatutako ura. **Onargarria:** analisien %5 eta %10 artean ez edangarri kalifikatutako ura. **Eskasa:** analisien %10ean baino gehiagoan ez edangarri kalifikatutako ura.

Helburu estrategiko hori gauzatzen duten 2010erako konpromisoak hurrengoak dira: euskal legean ezarritako uren babeserako ingurumen helburuak lortzea, herri eta hirietako hondakin-uren saneamendu sarea amaitzea, eta ur horniduran eta gozamenen kalitate bermeak indartzea.

- **Helburu estrategiko honekin lotutako konpromisoa:** “Gaur egun garatu gabe dauden eta 100 urteko epean uholdeak jasateko arriskua duten eremuen artifizializazioa saihestu behar da, ahal den neurrian.» M5.3 erreferentzia. 11. helburu estrategikoan jaso da («Klima aldaketara egokitzea»).

### JARDUERA ILDO NAGUSIAK

1. **ILDOA.** Uraren erabilpenarekin lotutako zerbitzu handiak erregulatzeko arau orokorrak onartzea, 1/2006 Uren Legea garatuz. Hurrengoak dira zerbitzu horiek: hornidura, saneamendua, araztea eta ureztatzea.
2. **ILDOA.** Uren egoera kontrolatzeko sareak hobetzea (ibaien egoera ekologikoaren jarraipen sarea, lehenasunezko substantziek eragindako ibaietako kutsadura zaintzeko sarea, trantsizio eta itsasertzeko uren egoera ekologikoaren jarraipen sarea, barnealdeko hezeguneen egoera ekologikoaren jarraipen sarea eta lurpeko urak kontrolatzeko sarea).
3. **ILDOA.** Indarrean dauden saneamendu planetako saneamendu eta arazketa azpiegiturak amaitzea, ur kolektore eta arazketa sistemen egite-mailaren jarraipena egitea, eta polizia eremuko erabilpenen berrikuste eta eguneratze sistematikoa.
4. **ILDOA.** Bainatzeko eremuetako eta giza kontsumoko uren kalitatearen gaineko jarraipenari buruzko informazioa herritarrei helarazteko dauden sistemak hobetzea.
5. **ILDOA.** Ibaiak edota ibai-zatiak babesteko jarduerak sustatzea (ibai eszenikoa edota ibai-erreserba), baita, presio morfologikoa murriztuta, ur-masen naturaltasuna berreskuratzeko leheneratze-ekintzak (oztopoak eta estaldurak kentzea, uholdeen aurrean defentsak aldatzea, urertzeko basoak berriro sortzea, lurak erostea, etab.) eta ibaiak ura aske jariatzeko espazioak sortzea ere. Hala, uholdeen ondorioak arinduko dira eta LPLEtan eta egungo ikerketetan zehaztutako eremuetan ibai-ertzak motel eta horizontalki urperatuko dira. Hori oinarritzko ekarpena da egoera ekologiko onari lotutako konpromisoa lortzeko.
6. **ILDOA.** Jarduera-plana eta eremu kaltebera berrikustea, nitrato bidezko ur kutsadurekin lotutako nekazaritza jardueren jarraipena eta ikuskapena optimizatzeke.

### INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Osasun Saila
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila
- Foru aldundiak
- Udalak

## 1. HELBURUA.

### 3. helburu estrategikoa. LURRAREN KUTSADURA AURREIKUSTEA ETA ZUZENTZEA

Lurzorua ongi kudeatzea, kutsadura historikoaren lehentasunezko berreskurapenaren bidez eta beste kutsadura mota batzuk aurreikusita.

Lurzoruaren kutsadura gure lurraldeko ingurumen arazo garrantzitsuenetakoa izan da historikoki, eta oraindik ere hala da. Erakundeetatik bideratutako erantzuna funtsezkoa izan da kutsadura hori aurreikusteko eta zuzentzeko urratsak emateko. Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 legearen onarpena inflexio-puntua izan zen ahaleginak optimizatzeko eta inplikaturako eragile guztiak aurreikuspen eta konponketa lanen arduradun egiteko. Horrela, arazoa etorkizuneko belaunaldiei uztea ekidin da.

Horrenbestez, hurrengo da orain aurrez aurre dugun erronka bikoitza: lurzoruaren kutsadura iraganeko arazo bihurtzea ahalbidetuko duen prebentzio politika finkatzea, eta jada kutsatuta dauden lurzoruen berreskuratzea bermatzeko eskura ditugun bitartekoak optimizatzea.

Ondorioz, lurzoruaren kudeaketa egokian aurrerapausoak emateko konpromisoek prebentzioa hobetzea eta potentzialki kutsatuak dauden lurzoruen berreskurapenarekin jarraitzea dute helburu.

2010erako KONPROMISOAK	Jarraipena egitearen arduraduna
M1.12 Lurzoruaren kutsadurari aurre hartzea, ditugun bitarteko administratibo zehatzak erabilia (aurretiazko egoera txostenak).	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza
M1.13 Potentzialki kutsatuta dauden eta hiringintzako plangintzak beste erabileraren bat ematea edota jardueraren bat gauzatzea aurreikusita duen 407 hektarea garbitzea.	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza
M1.14 Potentzialki kutsatuta dauden eta hiringintzako plangintzak beste erabileraren bat ematea edota jardueraren bat gauzatzea aurreikusita ez duen 35 hektarea garbitzea.	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza
M1.15 Jabetza publikoko zabortegei ez aktiboen ingurumen kontrol eta jarraipen etengabea.	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza

**JARDUERA ILDO NAGUSIAK**

1. **ILDOA.** 2007-2012 Euskadiko Lurzoru Kutsatuen Plana landu, onartu eta indarrean jartzea. Planaren xedea lurzuaren kudeaketa egokia ezartzea da lurzuaren kutsadurak eragin minimoa izatea aurreikusi eta bermatzeko.
2. **ILDOA.** Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legea betetzea erraztuko duten hainbat bitarteko arau-emaile onartzea: lurzorurako potentzialki kutsagarriak diren jarduerak jasaten dituzten kokaguneen inbentarioa eta lurzuaren kalitatearen erregistro administratiboa arautzen duen sistema onartzen dituen araua.
3. **ILDOA.** Zabortegei ez aktiboen ingurumen eraginaren kontrol eta jarraipena, eta titulartasun publikoko zabortegeien %100aren kontrol sistematiko eta iraunkorra bermatzeko sistema ezartzea. Helburua da berreskurapen jarduerak eraginik handiena duten zabortegetan burutzea lehenik eta behin.
4. **ILDOA.** Kutsatutako lurzuaren eta lurpeko uren arteko erlazioaren ezagutzan sakontzea. Helburua lurpeko uren babes eraginkorra ahalbidetuko duten bitartekoak garatzea da.
5. **ILDOA.** Udaletako plangintzetan hurrengo irizpidea sartzeko: lurzoru urbanizaezina berriz kalifikatu aurretik, kutsatutako lurzuaren berreskurapenari ematea lehentasuna.

**INPLIKATUTAKO  
ERAKUNDEAK**

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Foru aldundiak
- Udalak



## 2. HELBURUA.

Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua

<b>4. helburu estrategikoa.</b>	BALIABIDE NATURALEN KONTSUMO ARDURATSUA	45
<b>5. helburu estrategikoa.</b>	ENERGIA KONTSUMO ETA EKOIZPEN IRAUNKORRAK SUSTATZEA	47
<b>6. helburu estrategikoa.</b>	HONDAKINAK MURRIZTEA ETA TRATATU GABEKO ISURKETARIK EZA	49



## 2. HELBURUA.

### 4. helburu estrategikoa. BALIABIDE NATURALEN KONTSUMO ARDURATSUA

Baliabide naturalen (ura, energia<sup>15</sup>, materialak eta lurzorua<sup>16</sup>) kontsumo arduratsua sustatzea, eta eraginkortasun-mailak optimizatzea.

Azken horretarako, ikerketa eta berrikuntza bultzatuko dira, lehiakortasuna handitu dadin.

Ondasunen ekoizpen eta kontsumoa da egun Euskal Autonomia Erkidegoan zein gure ingurune hurbilean indarrean dagoen bizitza estiloaren zein testuinguru sozialaren eta ekonomikoaren ezaugarri nagusietakoa. Geroz eta handiagoa den ekoizpen eta kontsumoak ingurumen eragin nabarmenak sortzen ditu ezinbestean. Izan ere, mugatuak diren baliabide naturalak erauztea, eraldatzea, erabiltzea eta deuseztatzea ekartzen du. Erabilitako erreferentzia adierazleek hazkunde ekonomikoaren eta baliabideen erabilpenaren artean nolabaiteko deslotura ematen ari dela adierazi arren, kontsumok igotzen jarraitzen dute kopuru absolutuei dagokionez.

2020. urterako Euskadirako ezarritako ingurumen ikuspegitik ondorioztatutako lehentasunetako bat kontsumo eta ekoizpen eredu iraunkorrak ezartzeko urratsak egin beharra da. Hobeto ekoiztu eta gutxiago kontsumitu ahal izateko, beharrezkoa da ur, energia, material eta lurzoruaren kontsumoan aurrezkia eta eraginkortasuna sustatzeko urrats garrantzitsuak ematen hastea. Era berean, baliabide naturalak erabiltzearen ondoriozko ingurumen-inpaktuaren kudeaketan iraunkortasuneko irizpideak sartu beharko dira, eta baliabide horiek bizi-ziklo osoan ebaluatu beharko dira.

Helburu estrategiko honetatik eratorritako konpromiso nagusia uraren eta baliabide naturalen kontsumo arduratsua da. Energia eta lurzoru bektoreak 5. eta 9. helburu estrategikoetan aztertzen dira espezifikoki -hurrenez hurrez «Kontsumo energetiko iraunkorra sustatzea» eta «Lurraldearen erabilpen orekatua lortzea».

2010erako KONPROMISOAK	Jarraipena egitearen arduraduna
M2.1 Zenbatu gabeko herrietako ur eskaria murriztea %25 izan arte hornitutako biztanleriaren %80an.	Uren Zuzendaritza/Uraren Euskal Agentzia
M2.2 Gero eta handiagoa den ur hornidura publikoko eskaria eta industri zein nekazaritza jarduetarako hartune propioen bitartez egiten dena %20 murriztea 2001 urtearekin alderatuta.	Uren Zuzendaritza/Uraren Euskal Agentzia
M2.3 Bitartekoen kontsumoa (eraginkortasun materiala) 2001. urteko mailetan eustea.	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza

<sup>15</sup> Energia. 5. Helburu Estrategikoa ikusi.

<sup>16</sup> Lurzorua. 9 Helburu Estrategikoa ikusi.

## JARDUERA ILDO NAGUSIAK

1. **ILDOA.** *Ingurumenaren Aldetik Iraunkorra den 2006-2010 Euskal Kontsumo Planean* hiru helburu jasotzen dira:
  - Herritarrei kontsumo-ildoan eraginen berri ematea.
  - Modu iraunkorragoan kontsumitzeko sentsibilizatzea eta trebatzea.
  - Merkatuan gero eta iraunkorragoak diren produktuak izatea.
 Helburu horiek lortzeko, eraikuntza sektoreko energia kontsumoa arrazionalizatzeko ahalegin berezia egingo da. Horretarako, aurrezki eta eraginkortasun energikoa sustatuko dira; eraikuntza sektoreko ur kontsumoa optimizatuko da, baliabide hidriko eskuragarriaren kudeaketa eraginkorragoa laguntzeko; eta, elikagaien eta etxe-ondasunen kontsumoaren ingurumen eragina murriztuko da.
2. **ILDOA.** Baliabide naturalen kontsumoan aurreztea eta eraginkortasuna sustatzea (lehengaiak ordeztzea, ontziak gutxitzea, etab.).
3. **ILDOA.** Azpiegiturak eraikitzean, hondeaketaren ondoriozko materialak eta beste hondakin batzuk oinarri edota betetzeko material moduan erabiltzea aktiboki sustatzea. Hala, sortutako hondakinen kopurua murriztu egingo da eta, aldi berean, harrobiko produktuak ateratzea eragotziko da.
4. **ILDOA.** Iraunkortasun irizpideak eraikuntza sektoreko araudien garapenetan integratzea (etxebizitza, erabilpen publikoko eraikinak eta industria instalazioak). Birgaitzean arreta berezia jarriko da.
5. **ILDOA.** Bizi-zikloko ikuspegia duten produktuen ingurumen portaera islatzen duten mekanismoen garapena. Hala, energia erabiltzen duten produktuetan, eraikuntza materialetan eta ontzietan produktuen ingurumen adierazpenak sustatuko dira.
6. **ILDOA.** Ur balantzeak egitea, udalerrietan kontsumo altuko puntu edo eremuak atzemateko. Balantze horiek ostean egingo diren ura optimizatzeko planteamenduetarako oinarria izango dira. Zehazki, ura aurrezteko jarduerak sustatuko dira kale-garbiketan edota ureztaketetan, galerak saihesteko hornidura-sareak kontserbatuko eta hobetuko dira, etab.
7. **ILDOA.** Industri eta nekazaritza jardueretarako hartune propioak ikuskatzea.
8. **ILDOA.** IPCC industria eta beste eragile pribatu batzuekin *borondatezko hitzarmenak lantzea*. Hitzarmen horiek indarrean dagoen legeria gaingitzen duten helburu eta proiektu partekatuak ezarri behar dituzte lehengaien kontsumoan, hondakin sorkuntzan, airea egindako isurpenetan eta uretara egindako isurietan, beste hainbaten artean.

## INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Etxebizitza eta Gizarte Gaien Saila
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Osasun Saila
- Ogasun eta Herri Administrazio Saila
- Foru aldundiak
- Udalak

## 2. HELBURUA.

### 5. helburu estrategikoa. ENERGIA KONTSUMO ETA EKOIZPEN IRAUNKORRAK SUSTATZEA

Kontsumoko sektore guztietan energia aurreztea, eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.

Azken urteotan, energia-kontsumoa ingurumen arloko elementu adierazgarrienetako bat izan da, klima aldaketaren eta kutsadura atmosferikoaren eragile nagusien artean baitago. Klima aldaketari aurre egiteak honakoa esan nahi du: aurreztea eta eraginkortasuna sustatuko dituen energia-eredu arduratsura igarotzeko bidea behar bezala lantzea.

Euskadiko politika energetikoko ildo nagusiek erronka hori bere egiten dute *2010erako Euskadiko Estrategia Energetikoaren* bitartez. Hori bai, benetako erronka ildo horiek energiaren kontsumoko eremu guztiek barneratzea da, etxeetatik hasi eta enpresa handietaraino. Garraioaren sektorea ere kontuan hartu behar da.

2010. urtera begira ezarritako arlo honetako Euskal Autonomia Erkdiegoko konpromisoek aurrezkian, eraginkortasunaren handitzean, energia berriztagarrien sustatzean eta teknologia garbiagoak ezartzean jartzen dute indarra.

2010erako KONPROMISOAK	Jarraipena egitearen arduraduna
M2.4 2010 urtean 975.00 tep-eko energia aurrezkia lortzea.	Energia eta Meategi Zuzendaritza
M2.5 Intentsitate energetikoa %16 hobetzea, 2000. urtearekin alderatuta.	Energia eta Meategi Zuzendaritza
M2.6 Energia kontsumoaren %29 energia berriztagarriaren eta baterako sorkuntzaren bitartez egitea lortzea.	Energia eta Meategi Zuzendaritza
M2.7 Garraioan urtero 177.000 tep bioerregai kontsumitzea lortzea.	Energia eta Meategi Zuzendaritza

## JARDUERA ILDO NAGUSIAK

1. **ILDOA.** Industria-sektoreetan energia aurrezteko, babes publikoko politika indartzea, laguntzen, dedukzio fiskalen (*Teknologia Garbien Euskal Zerrenda*) edota ekipoak berritzeko, aldaketa teknologikoetarako, heziketa-ekintzetarako, sentsibilizazio-ekintzetarako, azterketetarako... zuzeneko promozioaren bidez. Horiei guztiei esker, CO<sub>2</sub> isurketa gutxiago egingo dira.
2. **ILDOA.** Garraioan energiaren kontsumo iraunkorra indartzea, garapen teknologiko berriak sartuta, herritarrak informatzeari eta sentsibilizatzeari esker erabilera arduratsuagoa sustatuta, ibilgailuen parkea berrituta, garraio bideak hobeto erabilia, garraio publikoa sustatuta, ontzien kudeaketa hobetuta, aldeko arau-aldaketak sustatuta, gutxiago kutsatzen duten erregaiek erabilia (bioerregaia) eta gutxiago kutsatzen duten ibilgailuekiko bazterketa positiboa sustatuta.
3. **ILDOA.** Eraikinetan, etxebizitzetan eta kontsumoko ekipoetan eraginkortasuna handitzea. Jardueren barruan erakunde-politika indartzea sartzen da, eta horiek ondokoetan oinarritzen dira: etxebizitzetan eta eraikinen ziurtapena orokortzean, euskal administrazioaren ereduak rola handitzean, herritarren sentsibilizazioa handitzean, kontsumo baxuko etxetresna elektrikoaren eta ekipoen erosketa sustatzean, instalazioen kontrola eta araudia hobetzean, sektorean heziketa sustatzean, finantzaketako berariazko programak ezartzean eta udalerrietan eremu honetako jarduerak antolatzean.
4. **ILDOA.** Baterako sorkuntza sustatzea. Horretarako, industrian, hirugarren sektorean (mini eta mikrosorkuntza) eta bigarren sektorean, aprobetxamenduko instalazio berriak sartuko dira.
5. **ILDOA.** Eguzki-energia gehiago erabiltzea. Hala, ur bero sanitarioa izateko, batik bat hirugarren sektorean, instalazio fotovoltaiko eta eguzki-kolektore termiko asko jarriko dira martxan.
6. **ILDOA.** Biomazaren erabilera sustatzea, baterako sorkuntzan eta industriako erabilera termikoetan eta elektrizitatea sortzeko basoko, nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinen eta beste mota bateko hondakinen aprobetxamenduan. Era berean, bioerregai gehiago erabiltzea ere sustatu behar da. Horretarako, biodiesel eta bioetanola ekoizteko lantegiak jarriko dira martxan, tokiko energia-laboreak sustatuko dira, banaketa promozionatuko da eta euskal sektore publikoa erduzkoa izango da bioerregaien erabilpenean.
7. **ILDOA.** Energia eolikoa sustatzea. Helburu hori lortzeko, *Lurralde Plan Sektorialeko* marko nagusian parke eolikoak jarriko dira martxan, tokian tokiko miniparkeak jarriko dira eta haize-erroten instalazioa bultzatuko da, oro har, autohornidura hobetzeko.
8. **ILDOA.** Ibilgailuen tasak CO<sub>2</sub> isurketa-mailaren arabera ezartzea. Horretarako, Ibilgailuen Zirkulazioaren Gaineko Zerga egokitu behar da, ezarritako zerga egindako CO<sub>2</sub> isurketen arabera izateko<sup>17</sup>. («*Merkatua ingurumenaren alde erabili*» beharrezko baldintzan jasoa).

### INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK

- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Garraio eta Herri Lan Saila
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila
- Foru aldundiak
- Udalak

<sup>17</sup> Europako Batzordeak turismo-automobilei aplikatutako zerga-sistemak berregituratzeko zuzentarau-proposamena egin du. Helburua matrikulazio zergaren zein urteko zirkulazio zergaren oinarriak berregituratzea da, ibilgailuen karbono dioxido isurpen mailekin zuzenki lotuta egon daitezzen. 2005/261/azkena Europako Zuzentaraua.



## 2. HELBURUA.

### 6. helburu estrategikoa. HONDAKINAK MURRIZTEA ETA TRATATU GABEKO ISURKETARIK EZA

Hondakinen ekoizpena murriztea eta kudeaketa hobetzea, hondakin ez tratatuen isurketa-maila hutsera iritsi arte.

Hondakin sorkuntza ekoizpen eta kontsumo kontzeptuei zuzenki lotuta dago. Ondorioz, baliabideen kontsumo arduratsua egiteko helburura hurbiltzen garen heinean, hondakinen murrizketaren helburura ere hurbilduko gara. Azken urteetan bilakera positiboa gertatu da Autonomia Erkidegoan hazkunde ekonomikoaren eta hiri-hondakinen zein hondakin arriskutsuen arteko erlazioari dagokionez. Hala ere, hondakinen sorkuntza osoa handitzen ari da oraindik ere.

Bestalde, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira Euskal Autonomia Erkidegoan, berrerabileraren eta birziklatzearen hazkundeari dagokionez. Oraindik, ordea, bide luzea dago egiteko, eta alde zuzenetik inolako tratamendurik jaso ez duten hondakinen isurketak behin betiko desagerrarazteko neurri ugari ezartzeko ahalmena ere badago.

2010erako konpromisoen helburu nagusia uskal Autonomia Erkidegoko hondakinen korrante nagusiak murriztea eta horien kudeaketa hobetzea da. Korrante nagusiak ondokoak dira: hondakin arriskutsuak, eraikuntza eta eraiste hondakinak, eta hiri-hondakinak.

2010erako KONPROMISOAK	Jarraiapena egitearen arduraduna
M2.8 Industria-hondakin arriskutsuen sorrera eta erantsitako industria-balio gordina bereiztea.	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza
M2.9 <i>Hondakin arriskutsuetako</i> baliabide materialak berreskuratzea, horien birziklatze-tasa %65era arte igota.	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza
M2.10 Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako <i>eraikuntza eta eraiste hondakinen</i> %50 berrerabiltzea eta birziklatzea lortzea <sup>18</sup> .	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza
M2.11 Industria jatorriko <i>hondakin ez arriskutsuen</i> birziklatze tasa %75ekoa izatea lortzea.	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza
M2.12 Sortutako <i>hiri-hondakin</i> guztien %35 birziklatzea.	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza
M2.13 Azken metaketa aurretik tratamendurik jaso ez duten <i>hiri-hondakinen</i> isurketarik ez izatea.	Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza

<sup>18</sup> Indusketa lurra kanpo utzitza.

### JARDUERA ILDO NAGUSIAK

1. **ILDOA.** Hondakin isurketa arloko garapen arau-emailea. Zabortegetako hondakinen deusezteara arautzen duen Europako legedi berriak beharrezko egiten du gure artean ere garapen arau-emailea izatea. Ezarritako helburuak betetzeko, hondakin inerteen eta inertizatuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua indargabetu behar da.
2. **ILDOA.** Plangintza arloan, hondakin birziklapena sustatu behar da *2007-2010 eperako Hondakin Arriskutsuen Planaren* eta *2007-2010 eperako Hondakin Ez Arriskutsuen Planaren* bitartez –azken plan honetan Eraikuntza eta Eraiste Hondakinen Foroko ondorioak sartu behar dira–. Era berean, lehenengo sektoreak sortutako eta egun elaborazio-prozesuan dagoen hondakinei buruzko plana amaituko da.
3. **ILDOA.** Eraikuntza arloan, *eraikuntza eta eraiste hondakinetatik* eratorritako lehor sekundarioen, hainbat motako zepen eta galdategi haren erabilpena sustatzea.
4. **ILDOA.** *Eraikuntza- eta eraiste-hondakin* guztiak tratatzeko gaitasuna izatea ahalbidetuko duen azpiegituren sarea sortzea, baita zepak edota edozer hondakin mota heltzeko eta tratatzeko instalazioak ere. Horrela, horien ezaugarri teknikoak eta ingurumen-baldintzak hobetuko dira, agregakin sekundario bezala erabil daitezten.
5. **ILDOA.** Tratamendu egokien bidezko galdategi haren berrerabilpena sustatzea.
6. **ILDOA.** Ekoizle handien artean materia organikoen konpostajea eta etxez etxeko biltzea sustatzea. Era berean, ostalaritzako beiren birziklapena sustatzea, sektorerako berariazko biltetak martxan jarrita.
7. **ILDOA.** Balorazioa edota isuria egin aurretik birziklatu gabeko frakzio guztia tratatzeko instalazioen eraikuntza sustatzea.
8. **ILDOA.** Hondakin isuri tasa ezartzea (*«Merkatua ingurumenaren alde erabili» beharrezko baldintza ikusi*).

### INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Foru aldundiak
- Udalak



### 3. HELBURUA.

Natura eta bioaniztasuna babestea:  
sustatu beharreko balio aparta

**7. helburu estrategikoa.** GURE ANIZTASUN  
BIOLOGIKOARI EUSTEA

52

0  
1  
0  
2



### 3. HELBURUA.

## 7. helburu estrategikoa. GURE ANIZTASUN BIOLOGIKOARI EUSTEA

Aniztasun biologikoaren galera geldiaraztea, lurreko eta itsasoko habitaten eta ekosistemen funtzionamendu iraunkorra babestuta eta berreskuratuta.

Aniztasun biologikoaren galera da nazioarteko ingurumen-joera kezagarrienetako bat. Erakunde kontserbazionistek kalkulatu dutenez, egungo espezien desagertze erritmoa gizakien aurreko aroan ematen zena baino 100 eta 1000 aldiz handiagoa da. 2010. urterako biodibertsitate galera geldiaraztea da Europar Batasuneko ingurumen politikaren helburu nagusietako bat. Era berean, Eusko Jaurlaritzak Euskadirako ezarritako ingurumen-ikuspegiko lehentasunetako bat ere bada. Egun, galtzeko arrisku handian daude faunako 42 espezie eta florako 44 («galzorian» edota «kaltebera» moduan kalifikatuta). 2004an Natura Babesteko Nazioarteko Batasunak (NBNB) zehaztutako irizpideei jarraiki egindako diagnostiko baten arabera, Euskadiko 34 espezie ornodun daude desagertzeko arriskuan.

Biodibertsitatea desagertzearen eta txirotzearen atzean dauden indar eragile nagusiak hurrengoak dira: lurzorua erabilpenen eraldaketa, nekazaritza sektoreko ekoizpen ereduaren intentsifikazioa eta espezializazioa, eta espezie aloktonoen sarrera. Lurzorua erabilpenen eraldaketak natur inguruneen zatiketa eta degradazio erritmoa bizkortu du, eta horrek eragin kaltegarria du Euskadiko dibertsitate biologikoa ziurtatzen duten habitatak gordetzeko asmoan.

Dibertsitate biologikoari eusteko konpromiso zehatzak hartu dira, arriskuan dauden espezien egoera hobetzeari garrantzi berezia emanez. Hartutako konpromisoetako batzuk eraldaketak eragiten dituzten indar eragileekin daude lotuta (nekazaritza, basoak, espezie aloktonoak...), eta beste batzuk, biodibertsitatea ziurtatzen duten habitatekin (babestutako naturguneak, hezeguneak, basoak...).

2010erako KONPROMISOAK	Jarraipena egitearen arduraduna
M3.1 Desagertzeko arriskuan edota egoera larrian dauden faunako eta florako espezieek 2007 eta 2010 urteen artean joera positiboa izatea lortzea.	Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritza
M3.2 Baso autoktonoen azalera 10.000 hektareatan handitzea, 2006an zegoenarekin alderatuta ( <i>Baso Inbentarioa</i> ).	Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritza
M3.3 <i>Euskadiko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean</i> sartutako hezeguneetako 50 hektarea berreskuratzea.	Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritza
M3.4 Biodibertsitatearen babesarekin lotutako nekazaritza-ingurumen neurriak gutxienez <i>Nekazaritza Azalera Erabilgarriaren</i> %10ean ezartzea lortzea.	Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
M3.5 Nekazaritza ekologikorako erabilitako azalera handitzea 1.200 hektareatarra heldu arte.	Elikagaien Kalitateko Zuzendaritza
M3.6 Baso ustiapen ziurtatuen azalera 50.000 hektareatakoa izatea lortzea.	Berrikuntza eta Garapen Teknologikoko Zuzendaritza
M3.7 Espezie exotiko inbaditzaileen presentzia murriztea*.	Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritza
M3.8 <i>Natura 2000 Sareko</i> espazioen artean, <i>Eskualde Biogeografiko Atlantikoan</i> dauden guztiak eta <i>Eskualde Mediterraneoan</i> dauden %30 <i>Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE)</i> izendatzea lortzea.	Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritza
M3.9 <i>Euskadiko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoko</i> guneen %10ek kudeaketako neurri egokiak izatea lortzea.	Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritza

\* 2007an egingo den diagnostikotik abiatuta lortu behar diren datuak.

## JARDUERA ILDO NAGUSIAK

1. **ILDOA.** Biodibertsitateari buruzko ezagutza oinarritzakoaren eta aplikatuaren sustatzea biodibertsitatearen kontserbazio eta erabilpen iraunkorrerako ezagutza oinarria indartuz eta biodibertsitatearen kalitatea eta bilakaera islatzen duten indizeak ezarri.
2. **ILDOA.** Natura 2000 Sarea: Ezarpena, zaintza eta kudeaketa planak. Jarduera nagusiak Natura 2000 Sarerako arau-markoa sortzea eta horri buruzko informazioa, hedapena eta finantziaketa sustatzea dira, baita Kontserbazio Bereziko Eremuen izendapenerako lehentasuneko irizpideak eta horien kudeaketarako neurri egokiak ezartzea ere.
3. **ILDOA.** *Babestutako Naturguneen Katalogoa* martxan jartzea, babestutako naturguneen mugak egokituta: informazio publikoa eta Babestutako Naturguneen Katalogoaren hedapena, baita Babestutako Naturguneetan finkatutako finantzaketa- eta konpentsazio-bideak ezartzea ere.
4. **ILDOA.** Babestutako naturguneetatik kanpo dauden eremuak babesteko gaitasuna, koherentzia eta konektibitatea. Horretarako, ondoko aurrerapausoak emango dira: *Korridore Ekologikoen Sarea* garatzea; paisaia babestea Euskal Autonomia Erkidegoko *Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoa* martxan jarrita eta paisaiaren kalitateari buruzko helburuak eta irizpideak zehaztuta; ibaiak eta hezeguneak babesteko aurrerapausoak ematea, giro horiek kudeatzeko, leheneratzeko eta jarraitzeko oinarriak ezarri; eta tokian tokiko babes sustatzea, parke periferikoak sortuta eta arau subsidiarioetan babes bereziko guneak aitortuta.
5. **ILDOA.** Kostaldearen eta itsasoaren kontserbazioan, aurrerapausoak emango dira bioaniztasunaren «kontserbazio egoera ona» lortzeko, Natura 2000 Sareko itsas eremuak izendatzeko irizpideak ezartzeko eta, arrantza-tokiak egoki kudeatuta, itsas ekosistemak babesteko.
6. **ILDOA.** Desagertzeko arriskuan dauden espezieak kontserbatzeko, galzorian dauden espezieen jarraipena eta haien kontserbazio egoeraren analisiak indartuko dira, *Desagertzeko Arriskuan Dauden Espezieen Kudeaketa Planak* onartuko dira, desagertzeko arriskuan dauden espezieen katalogoa osatuko da eta, *in situ* kudeaketako neurriak laguntzeko, egoera larrienean dauden espezieak *ex situ* kontserbatuko dira.
7. **ILDOA.** Espezie exotikoen edota inbaditzaileen eta izurriteen kontrolari dagokionez, «inbaditzaile edo izurrite» estatusa legalki definitzea, espezie exotiko inbaditzaileen diagnostikoak eta kudeaketa-planak egitea eta espezie batzuentzat premiazko neurriak abiaraztea.
8. **ILDOA.** Bioaniztasun genetikoari bere horretan eustea, genotipo aloktonoek bioaniztasunean duten eragina murriztuta, eta arraza zein barietate tradizionalen kontserbazioa, erabilera eta salerosketa sustatzea.
9. **ILDOA.** Eremu berdeen eta herri barruko ibai zatien ingurumen-kalitatea hobetzea, herrietako eta hirietako bioaniztasuna hobeto kontserbatzeko.
10. **ILDOA.** Hurrengoak izango dira landa eremuetan biodibertsitatearen kontserbazioa eta berreskurapena, eta baliabide naturalen erabilpen iraunkorra sustatzeko jarduera ildo nagusiak: Bioaniztasunaren aldeko nekazaritzako, landa-garapenerako eta basogintzako politikak optimizatzea (2007-2013 eperako Landa Garapen Iraunkorreko Planean ezarritako ingurumen-laguntzak ebaluatzea, jarraitzea eta sustatzea), baso-lurren erabilera iraunkorra sustatzea Baso Kontratuak sinatuta, *Baso Kudeaketa Iraunkorreko Planak* eta PEFC zein FSC ziurtagiriak onartzea, basoak berreskuratzeko jardunbide egokien eskuliburua idaztea, lurzorua baliabidea babestea eta landa-inguruneetako lurzorua eta uraren kutsadura murriztea.
11. **ILDOA.** Eskualde- eta lurralde-garapeneraren eta biodibertsitatea kontserbatzearen bateragarritasuna sendotzea, azpiegitura handiak Natura 2000 Sarearekin bateratuta, korridore ekologikoen eta paisaiekin uztartuta, turismo iraunkorra bultzatuta eta Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta tokiko administrazioek balio natural bereziko lurzorua erostea eta babestea sustatuta.

### INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila
- Foru aldundiak
- Udalak

## 4. HELBURUA.

Lurraldearen oreka eta mugikortasuna:  
ikuspegi bateratua

<b>8. helburu estrategikoa.</b> BESTE MUGIKORTASUN KUDEAKETA EREDU BATERANTZ	56
<b>9. helburu estrategikoa.</b> LURRALDEAREN ERABILERA OREKATUA LORTZEA	58

#### 4. HELBURUA.

### 8. helburu estrategikoa. BESTE MUGIKORTASUN KUDEAKETA EREDU BATERANTZ

Pertsonen mugikortasun-eskaerari erantzuteko, oinez ibiltzea, bizikleta hartzea eta garraio kolektiboa erabiltzea sustatzea. Merkantzien garraioan itsasoz eta trenbidez egindakoa sustatzea, errepide bidezkoa murrizteko.

Euskadiko herritarrek ohiko lanegun batean egiten duten distantziaren %58 autoz egiten dute, %23 garraio publikoan eta %13 oinez. Era berean, lanegun bakoitzean 150.000 gidarik baino gehiagok Euskadiko errepideetan auto-ilarak jasaten dituzte, eta batez beste egunero 20 minutu galtzen dituzte. Merkantzien garraioari dagokionez, desoreka handia ematen da errepide garraioaren mesedetan. Aldiz, trenbide bidezkoa oso gutxi erabiltzen da, ingurumena eta lurraldea gehien errespetatzen duena eta osasunerako kalte gutxien eragiten duena izan arren. Mugikortasun eredu horren ondorioz, osasunaren, ingurumenaren eta lurraldearen gaineko presio garrantzitsuak gertatzen dira: herriguneetako airearen kalitate galerak, berotegi efektuko gasen isurpenak gero eta gehiago izatea, zaratak eragindako eragozpenak, lurraldearen zatiketa, biodibertsitaterako kalteak, petrolioa bezalako baliabide ez berriztagarrien gaineko menpekotasun osoa...

Azken hamarkadetan Euskadin nagusi izandako mugikortasun eredu azpiegituren eskaintza etengabeagatik be-reizi da, batez ere errepideena. Iraunkortasunaren ikuspegitik begiratuta, eredu horren ibilbidea ia erabat agortuta dago. Europar Batasuneko jarraibideekin eta Eusko Jaurlaritzako ingurumen lehentasunekin adostasunean –klima aldaketa, kapital naturalaren zaintza, herriguneetako ingurumen kalitatearen hobekuntza–, funtsezkoa da beste mugikortasun eredu bat ezartzeko aurrerapausoak ematea. Eredu hori eskariaren kudeaketan oinarritu behar da, eta garrantzi berezia eman behar dio mugikortasunaren banaketa modala sustatzeari.

2010erako KONPROMISOAK	Jarrai-pena egitearen arduraduna
M4.1 Bidaiariaren banaketa modala berriro bideratzea, motorrik gabeko garraioa (oinez eta bizikletan) eta garraio publikoa (trena, tranbia eta autobusa) sustatuta. Helburua pertsonak urteko egiten duten distantziaren %40 garraio mota horietan egitea da (bidaiari kilometroko neurtuta) <sup>19</sup> .	Garraio Zuzendaritza
M4.2 Merkantzien garraioaren banaketa modala berriro bideratzea. Hala, trenbide bidezkoa azalera-garraio osoaren %15 izango da tona-kilometroko. Azalera-garraioak errepide eta trenbide bidez egindakoak hartzen ditu barne <sup>20</sup> .	Garraio Zuzendaritza

<sup>19</sup> Herriguneetako ingurumenerako estrategia tematikoari buruzko Europako Parlamentuko ebazpenak hurrengo eskaria egiten die estatu kideei: tokiko agintariekin elkarlanean, herriguneetan egiten den kilometro-bidaiari distantzia osoaren gutxienez %5 garraio publikoan edota bizikletaz egitea igartzeko ahalegina egitea 2002-2012 epean.

<sup>20</sup> Europar Batasunak proposatutako Marco Polo II programako helburu kuantitatiboa da, 2007-2013 epean, aurreikusitako merkantzien sistemako hazkundera osotasunean trenbideek eta itsas garraioak bereganatzea. Hazkundera 144.000 milioi tona-kilometrokoa izatea espero da. 2001eko Garraioaren Liburu Zuriak 2010eko banaketa modalari 1998ko mailetan eusteko ezarritako helburuarekin koherentea da xede hori.



Helburua betetzeko, pertsona eta merkantzien mugikortasunean banaketa modala sustatzen duten bi konpromiso zehatz formulatu dira, garraioak eragindako presioak eta inpaktuak erabilitako moduegatik guztiz baldintzatuta baitaude. Hala, pertsonen mugikortasunak inpaktu askoz ere txikiagoa du ibilgailu pribatuan egin beharrean garraio kolektiboan egiten bada. Merkantzien garraioak, berriz, askoz ere inpaktu txikiagoa du trenbidez edota itsasoz egiten bada, eta ez errepedez.

### JARDUERA ILDO NAGUSIAK

1. **ILDOA.** Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun iraunkor eta seguruaren legea garatzeko aurrerapausoak ematea. Lege horrek hurrengo puntuak izan behar ditu kontuan: Europako politikako jarraibideak betetzea, garraio publikoaren hobekuntza, autoaren erabilpena ez sustatzea, trafikoa txikitzeko politikak bultzatzeko neurri ekonomikoak ezartzea, eta garraibide ez motordunak sustatzea.
2. **ILDOA.** *Mugikortasun Iraunkor eta Seguruko Planak* lantzea eta indarrean jartzea 20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, eta udalez gaindiko planak ezartzea eskualde mailan. Planek eskariari zein eskaintzari eragingo diote. Eskariari dagokionez, hurrengo neurriak hartuko dira: herri ereduak diseinatzea, partekatutako autoak sustatzea, udalerriek aparkalekuak arautzea... Eskaintzaren arloan, berriz, garraio kolektiboa sustatuko da, trafikoa arintzeko neurriak hartuko dira, oinezkoentzako espazioak berreskuratuko dira, disuasio-aparkalekuak sortuko dira, merkantzien herri logistika landuko da...
3. **ILDOA.** *Mugikortasun Iraunkorraren eta Seguruaren Planak* lantzea eta abian jartzea, 1.000 langile baino gehiagoko enpresetan eta industrialdeetan. Hurrengoak bezalako neurriak jasoko dituzte plan horiek: garraio kolektiboko eskaintza handitzea, partekatutako garraioa sustatzea, enpresa garraioa antolatzea, ibilgailu pribatuentzat aparkalekuak murriztea, eta ordutegi malgu edo mailakatuak sustatzea. Neurri horiek guztiek auto-ilarak, atmosferara egindako isurpenak (CO<sub>2</sub>) eta istripu-tasa murriztea dute helburu.
4. **ILDOA.** Euskal Autonomia Erkidegoko Bidegorrien Gida Plana eta bizikletaren erabilpena sustatzeko estrategia integrala definitu eta abian jartzea. Estrategia horrek bere egin behar ditu herrialde historikoetan indarrean dauden planak.
5. **ILDOA.** Lanegunetan ibilgailu pribatuak Euskadiko hiriburueta erdialdeetara sartzea mugatzea, eta horietan helmugako aparkalekuak arautzea murrizketak ezarriz.
6. **ILDOA.** Eurobiñeta Zuzentzarautik eratorritako instrumentu ekonomikoak ezartzea (merkantzia garraioko ibilgailu astunei zergak ezartzea azpiegitura jakin batzuk erabiltzeagatik).
7. **ILDOA.** Erreferentzia dokumentuak garatzea garraio iraunkorreko politikak lurralde antolamenduan era eraginkorrean integratzeko.

### INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK

- Garraio eta Herri Lan Saila
- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Osasun Saila
- Foru aldundiak
- Udalak

#### 4. HELBURUA.

## 9. helburu estrategikoa. LURRALDEAREN ERABILERA OREKATUA LORTZEA

Lurraldean eragiten duten sektoreen plangintza bateratua eta koherentea egitea. Horrela, lurraldearen artifizializazioari eta zatiketari lotutako arazoak konponduko dira.

Euskadiko ingurumen diagnostikoan berebiziko garrantzia du lurraldearen artifizializazioak. Izan ere, Euskadiko orografia oso menditsua da, eta, ondorioz, ibarretako hondoak okupazio masiboa jasaten dute. 1994 eta 2005 artean, Euskal Autonomia Erkidegoko azalera artifizializatua %5,2 izatetik %6,5 izatera igaro zen. Guztira, 9.440 ha-ko eremua artifizializatu zen. Indar eragile nagusiak ondokoak izan ziren: kalifikatutako bizitzeko eremua (4.854 ha); jarduera ekonomikoak, hau da, merkataritza gunek eta industrialdeak (2.908 ha); eta garraio-azpiegiturak (671 ha).

Lurralde-antolaketa eta hirigintzako plangintzak rol erabakigarria daukate mugikortasun-ereduan. Hirigintzako garapenak, merkatalguneak, industrialdeak, zentro teknologikoak, gizarte, kirol eta kultura ekipamenduak eta abar egiterakoan, orain artean ez da ia kontuan izan horiekin lotutako mugikortasun fluxuek dituzten ingurumen eta lurralde eraginak. Azken finean, ibilgailu pribatuen bidezko irisgarritasuna bermatzea nahikoa zela onartu da inplizituki. Pentsamolde hori errotik aldatzea ezinbestekoa da, garraioan iraunkortasun irizpide eta parametroak ezartzeko modu bakarra baitago: garraioaren auzia era koherentean integratzea lurralde eta hirigintza plangintza-tan –integrazioa Euskadi osoan, lurralde historikoetan eta udalerrietan egin behar da–.

Eusko Jaurlaritzak hurrengo urteetarako duen ingurumen arloko lehentasunetako bat Euskadiko kapital naturala babestea da. Ildo horretan, funtsezkoa da lurzoru naturalaren erabilpenean hain intentsiboa ez den garapen eredia ezartzeko aurrerapausoak ematea. Horretarako garapen berrietan lurzoru naturala erabili beharrean dagoeneko urbanizatutako luzorua erabiltzeari lehentasuna eman behar zaio.

Bidea egiteko, egungo lurralde artifizializazio prozesuen murrizketa funtsezkoa eskatzen duen konpromiso kuantitatibo garrantzitsu eta bakarra formulatu da.

2010erako KONPROMISOAK	Jarraipena egitearen arduraduna
M4.3 Urtero hirigintza ekintzen ondorioz artifizial bihurtzen den hektarea kopurua murriztea.	Lurralde Antolamendu Zuzendaritza
M4.4 Urtero azpiegitura berriak eraikitzearen ondorioz artifizial bihurtzen den hektarea kopurua murriztea.	Lurralde Antolamendu Zuzendaritza

## JARDUERA ILDO NAGUSIAK

1. **ILDOA.** *Lurralde Antolamendurako Arauen (LAA)* berrikustean hurrengo irizpideak integratzea sustatzea: herri eta garraio garapen eredu integratua, aurrezkoa lurzoruaren erabilpenean, erabilpen mistoak, espazio libreen sarea...
2. **ILDOA.** Ingurumen irizpideak sustatzea udalerrietan planteamendu orokor bezala zein garapen planteamendu zehatzetarako. Irizpide horiek bat egin behar dute Hirigintza Planteamenduak Idazteko Eskuliburuarekin. Bertako iraunkortasun irizpideek lehenetsua ematen diete hiri eta herri trinko eta anitzei.
3. **ILDOA.** Udalerrietako plangintzatan hurrengo irizpidea sartu behar da: dagoeneko artifizializatutako lurzoruak erabiltzeari lehenetsua eman behar zaio lurzoru urbanizaezinak berriz kalifikatu aurretik. Era berean, ahalegin berezia egin behar da nekazaritzako lurzoruak eta lurzoru naturalak babesteko.
4. **ILDOA.** Eratzun Berdeak sortzea udalerrietan, batez ere 5.000 biztanle baino gehiago dituztenetan. Eratzun Berdeak herrigunearen inguruko natura integratu behar du biodibertsitatea lagunduz, berdeguneak handitu behar ditu, eta herri-sareari kalitate handiagoa eman behar dio.
5. **ILDOA.** Udalerrietan berdeguneak sustatzea eta handitzea herriguneeen aireztatze naturala laguntzeko. Horrela, klima aldaketaren ondorioz herriguneeetan gero eta ohikoagoak diren tenperatura oso altuak eta kutsadura atmosferiko maila altuak saihestea laguntzen da. Izan ere, egoera horiek herriguneeen aireztatze natural urriak sortzen ditu hein handi batean.
6. **ILDOA.** Lurraldean eragina duten *Planen eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren* prozesuak 2007-2010 eperako IEP honetako konpromiso kuantitatiboekin koherenteak diren aztertzea.
7. **ILDOA.** Biodibertsitatea lurralde-antolamendu ereduetan eraginkorki integratzeko erreferentzia dokumentuak garatzea.
8. **ILDOA.** Erabiltzen ez diren lurzoru artifizializatuak berriz naturalizatzeko eta berreskuratzeko programak egitea. Horien adibideak dira abandonatutako bideak, neurritz kanpoko urbanizazioak...

## INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Etxebizitza eta Gizarte Gaien Saila
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Garraio eta Herri Lan Saila
- Osasun Saila
- Foru aldundiak
- Udalak

## 5. HELBURUA.

### Klima aldaketaren eragina mugatzea

<b>10. helburu estrategikoa.</b> BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURPENA MUGATZEA	61
<b>11. helburu estrategikoa.</b> KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA	63



## 5. HELBURUA.

# 10. helburu estrategikoa. BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURPENA MUGATZEA

Berotegi efektuko gasen isurketak murriztea, karbono gutxiko ekonomiarantz bideratuta.

Nazio Batuen Erakundeak 1997ko Kyotoko bileraz geroztik behin eta berriro esan duen bezala, klima aldaketa da XXI. mendeko ingurumen arazo nagusia. Erresuma Batuko Gobernuak eskatutako Stern Txostenak ere horixe adierazi zuen. *Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeko* txostenen arabera (IPCC), Lurreko klima aldatu egin da atmosferan izandako berotegi efektuko gasen metaketa dela eta. Azken mendean 0,6 ° C igo da Lurreko batez besteko tenperatura, eta XXI. mendearen amaierarako litekeena da 1,4 eta 5,8 ° C artean igotzea. Kyotoko Protokoloa mugarri izan da nazioarteko komunitatearen erantzunean. Klima aldaketari aurre egiteko Europar Batasuneko strategiari dagokionez, berriz, isurketa-eskubideen salerosketa arautzen duen 2003/83/EE Zuzentaraua oinarritzko tresna da.

Berotegi efektuko gasen isurpenak %24 hazi dira Euskadin 1990 eta 2005 artean –inportazio elektrikitik eratorritakoak ere hartzen dira kontuan–. Isurketen hazkundera urrun dago Europar Batasunak, Kyotoko Protokolon oinarrituta, Estaturako ezarritako %15etik urrun dago. Eusko Jaurlaritzak hurrengo urteetan klima aldaketaren aurkako borroka lehentasunezko jarduera-eremu bihurtzea erabaki du, eta, ondorioz, arazo larri honi aurre egiteko nazioarteko ahaleginean erabakitasunez parte hartuko du. Ondorioz, energiaren sektoreak, garraioak, industriak, hirigintzak eta nekazaritzaren sektoreak, datozen urteetan, isurketak asko murriztu beharko dituzte.

Era berean, Euskadi erregai fosilen gaineko menpokotasun txikiagoa duen ekonomia eredu batera igarotzeko oinarriak ezartzen joan beharko da aurrezkoa, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatuz –petrolio eta gasa dira erregai fosilak–. Eusko Jaurlaritzaren ustez, ingurumenak ekoizpen-sarea eta ekonomia eguneratzeko eta garatzeko aukera estrategikoa emango du, eta aurretik aipatutako eremu horiek ere aukera horren parte dira. Horregatik, jarraian formulatutako helburua betetzeko aurrerapausoak emateak teknologian, berrikuntzan, enpresa sorkuntzan, eta garapen ekonomiko eta sozialean hobetzea esan nahiko du.

Hartutako konpromiso kuantitatiboaren xede nagusia Euskadiko berotegi efektuko gasen isurpenei Kyotoko Protokoloako eskakizunen barnean eustea da.

### 2010erako KONPROMISOAK

M5.1 2010erako, Kiotoko Protokoloan araututako berotegi efektuko gasen isurpen guztiak mugatzea, 1990eko isurpen-mailaren %14tik gorakoak ez izateko<sup>21</sup>.

### Jarraipena egitearen arduraduna

Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa

<sup>21</sup> 1990 erreferentzia urte bezala aipatzen denean, hurrengoa ulertu behar da: aipamenak 1990ari dagozkio CO<sub>2</sub>, CH<sub>4</sub> eta N<sub>2</sub>O gasen kasuan, eta, 1995ari, SF<sub>6</sub>, PFC eta HFC gasen kasuan. Era berean, 2010 urteari egiten zaizkion erreferentzien kasuan, kontuan izan behar da 2008-2012 epeko batez bestekoei buruz ari garela –horrela ezartzen da Kyotoko Protokoloako arauetan–.

## JARDUERA ILDO NAGUSIAK

1. **ILDOA.** *2008-2012 eperako Klima Aldaketaren* Aurkako Euskal Plana lantzea, onartzea eta abian jartzea, isurpenak murrizteko, klima aldaketara egokitzeko eta karbono gutxi erabiltzen duen ekonomia batera hurbiltzeko, beharrezko politika sektorialak eta jarduerak ezartzeko xedearekin.
2. **ILDOA.** *Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa* guztiz garatzea arintze eta egokitze politika eraginkorrak sustatzeko sailen arteko erakunde koordinatzailea izan dadin.
3. **ILDOA.** *Klima Aldaketari Buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Markoarekin* (UNFCC) lotutako nazioarteko foroetan parte hartzea Kyoto osteko akordioak definitzeko, eta *nrg4SD* sareko eskualde gobernuekin elkarlanean aritzea jardunbide egokiak trukatzeko, mekanismo malguak erabiltzeko, eta eskualde gobernuek Kyotoko Protokoloaren markoan duten presentzia bermatzeko.
4. **ILDOA.** Eraikuntza iraunkorerrantz. *2006-2009 Etxebizitza Gida Planak* arkitektura bioklimatikoaren garapenean eta eraginkortasun energetikoaren sustapenean sakontzen du. Arkitektura bioklimatikoari dagokionez, etxebizitza berrietan erabili beharrezko materialak, beraien bizi-zikloa eta balizko birziklapena jorratzen dira. Eraginkortasun energetikoaren sustapenari dagokionez, berriz, energia aurrezkiaren exijentzia eraikuntza guztietara hedatzea edota etxeko ur beroa izateko eraikuntzetan eguzki energia termikoa erabiltzea bezalako gaiak aztertzen dira.
5. **ILDOA.** Energia-kontsumo iraunkorra lortzeko bidean. *2010erako Euskadiko Energia Estrategiak*, urte horretarako, lortu beharrezko hainbat jarduera-ardatz ezarri ditu kontsumitzaileen sektoreetan eta energiaren euskal sektorean. Horiek energiaren eraginkortasuna indartzean eta energia berriztagarrien erabilera sustatzean oinarritzen dira; izan ere, energia berriztagarriak erabakigarriak dira Kyotoko helburuak lortzeko. Esleipen Plan Nazionalako sektoreetan (industria-sektore intentsiboak) eta energia-kontsumoaren sektore barreiatuetan (industria arina, etxebizitza, zerbitzuak, garraioa, etab.) aplikatu ohi dira.
6. **ILDOA.** «*Isurketa barreiatuen sektore erantzuleak*» deiturikoetan isurketak murrizteko tresnak garatzea eta kostuen murrizketan eragiten duten zerga-tresnak edota eskemak martxan jartzea. Aipatutako sektore erantzuleak ez ditu isurketa-eskubideen Europako merkataritzak arautzen eta BEGen isurketen %40 baino gehiago sortzen dituzte.
7. **ILDOA.** Isurpen eskubideen Europako merkataritza Euskadin aplikatzea. Eusko Jaurlaritzaren helburu zehatzak hurrengoak dira: isurpenen murrizketa eraginkorra sustatzea, isurpenen kontrol eta jarraipenerako araudia era zehatz eta koherentean aplikatzen dela zaintzea, eta eskubideen esleipena eta araudiaren aplikazioa kutsatzen duenak ordaintzen du printzipioa eta ekitate printzipioa betez ematen dela ziurtatzea –eskubideak eraginkortasun irizpideen arabera ematea ezartzen du ekitate printzipioak–.
8. **ILDOA.** Euskal Autonomia Erkidegoko hustubideetan karbono finkapena handitzea lortzea lurraren erabilpeneko, lurraren erabilpen aldaketako eta silbikulturako politika egokiak ezarri.
9. **ILDOA.** Herrietan, klima aldaketaren aurkako tokiko ekintza-programak egiteko eta martxan jartzeko, *klima aldaketaren aurkako politika sustatzea*. Programa horiek berotegi efektuko gasen inbentarioa, isurpen murrizketa helburuak eta ezarri beharrezko neurriak jasoko dituzte.

## INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Garraio eta Herri Lan Saila
- Etxebizitza eta Gizarte Gaien Saila
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila
- Udalak





## 5. HELBURUA.

### 11. helburu estrategikoa. KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA

Klima aldaketara egokitzea kudeatzea, aurreikusitako inpaktuen aurrean gure urrakortasuna minimizatzeke.

Klima aldaketarena da gizarte osoak aurre egin beharreko ingurumen arloko arazorik larriena. Ez eskuragarri dauden hainbat ikerketa zientifikok iragarritako inpaktu handiengatik soilik, baita fenomenoaren hedapenagatik eta gure bizimoduan eta ekoizpenean izango duen efektuagatik ere. Noski, klima aldaketaren arazoa ez da gure ekoizpen-sistemaren gune zehatz batean koka daitekeen irregulartasun bati lotutako fenomeno bakartua; iraunkorretik ezer gutxi duen eredu batean oinarritutako hazkunde ekonomikoaren prozesu luze baten emaitza da.

Nazioarteko komunitatearen erantzuna zalantzarikoa izan da orain arte eta, beraz, ez dio aurre egin fenomeno larri honi. Baina, egun, joera bestelakoa da. Ikerketa zientifikoak gero eta sendoagoak dira eta, arau-proposamenen arabera, neurri moldakorren garaia pasatu da. Kyotoko Protokoloa klima aldaketari buruzko *Nazio Batuen Esparru Konbentzioak* garatzen du eta, gaur egun, erreferentzi bilakatu da; izan ere, industrializatutako herrialdeen isurketak mugatzen ditu. Muga horiek tamaina handiko lehenengo erronkak dira gure ekonomietarako.

Etorkizun hurbilean isurpenen murrizketa orokorra gertatu arren, atmosferaren batez besteko tenperaturen igoera ez da geldituko azken hamarkadetan atmosferara igorritako gasen eraginez. Horregatik, ezinbestekoa da jasango ditugun ondorioei aurre egiteko prestatzea.

Euskadiko pertsonentzat, espezieentzat eta ekosistemetarako hauskorrenak diren eremuak identifikatzea beharrezkoa da. Hurrengoak bezalako eremuak aztertu behar dira alde aurreko neurriak hartzeko: 2003koa bezalako bero-boladek pertsonen osasunean duten balizko eragina; itsas-mailaren igoera dela eta desagertu daitezkeen Euskadiko itsasertzak; uholdeei aurre egiteko baliagarriak diren eremu naturalen babesa; tenperaturetan eta eurimailetan izaten diren aldaketek fauna eta flora dituzten eraginak; gero eta ohikoagoak eta gogorragoak diren lehorteek kontsumorako eta nekazaritzako ur erabilgarritasunean duten eragina; orain artean latitude beroagoetan ohikoagoak ziren gaixotasun-bektoreak Euskadin agertzeak osasunean izan dezakeen balizko eragina...

*Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Planaren* markoan, ezinbestekoa da klima aldaketari egokitzen joatea. Horregatik Eusko Jaurlaritzak erronka hori bere egin du gure lurraldearen urrakortasuna murrizteko.

2010erako KONPROMISOAK	Jarraipena egitearen arduraduna
M5.2 Euskal Autonomia Erkidegoak klima aldaketaren aurrean duen urrakortasuna murriztea *.	Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa
M5.3 Ahal den neurrian, gaur egun garatu gabe dauden eta 100 urteko itzulera epeko uholdeak jasateko arriskua duten eremuen artifizializazioa saihestea.	Uren Zuzendaritza/Uraren Euskal Agentzia

\* 2007an egin beharreko lanetik abiatuta eskuratu behar diren datuak.

## JARDUERA ILDO NAGUSIAK

1. **ILDOA.** Klima aldaketaren arloan, urrakortasuna baloratzen duen diziplina anitzeko lan-talde egonkorra sortzea. Hala, aipaturako taldeak erabakiak hartzeko oinarri zientifikoak ezarriko ditu. Lantaldearen lehentasunezko ikerketa ildoak hurrengoak izango dira:
  - Klima aldagaien eta klima aldaketak eragindako adierazleen jarraipena egitea Euskal Autonomia Erkidegoan.
  - Klima aldaketak animalia eta landare populazio nagusietan dituzten eraginak ikertzea, arreta berezia jarriz interes ekologi berezia eta urrakortasun maila handia dutenetan. Itsas-mailaren igoera edota olatuen aldaketak direla eta itsasertzeko zatiek jasan dezaketen urrakortasunaren kartografia zehatza egitea. Helburua urrakortasun maila handiena duten elementuak identifikatzea eta balorazio ekologikoa egitea da.
  - Klima aldaketak nekazaritzan eta abeltzaintzan duen benetako eragina aztertzea, baita labore ekologikoen bideragarritasun edafiko eta klimatikoa ere (biomasa, bioetanola, biodiesel).
  - Lurreko, aireko eta itsasoko garraio sistemak azpiegituren eta segurtasun operazioen ondorioz izango dituzten eraginaren kartografia egitea.
2. **ILDOA.** Laborantza metodoak egokitzea lurzorua emankortasuna eta ur aurrekia laguntzeko.
3. **ILDOA.** Lurreko eta itsasoko espezieen behaketa eta kontrol sistemak sustatzea –sistema horiek beste latitude batzuetako espezieen inbasio eta kolonizazio arriskuak adierazi behar dituzte–.
4. **ILDOA.** Garraio-azpiegituren, jarduera ekonomikoen, lan hidraulikoen... diseinuan irizpide berriak sartzea.
5. **ILDOA.** Diagnostiko lokalak/eskualdekoak egitea arrisku-eremuak eta klima aldaketarekiko kalteberagoak direnak zehazteko, lurralde-planifikazioa klima aldaketara egokituta.

## INPLIKATUTAKO ERAKUNDEAK

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila
- Garraio eta Herri Lan Saila
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila
- Osasun Saila
- Foru aldundiak
- Udalak

Klima aldaketaren aurkako borroka da 2007-2010 eperako *Ingurumen Esparru Programako* bost helburuen arteko erlazioaren eta zeharkakotasunaren adibiderik nabarmenetako bat. Hala, 1etik 4rako helburuetan ageri diren konpromiso eta ekintza-ildo gehienek 5. helburuko xede estrategikoak lortzeko aukera ematen dute («Berotegi efektuko gasen isurketak murriztea eta klima aldaketara egokitzea»).

Zehazki, 5. helburuak bere gain hartzen ditu aurreko helburuetan azaldutako eta jarraian zehaztuko diren ondoko konpromisoak:

<p><b>I. HELBURUA.</b> Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea</p>	<p><b>M1.1</b> %95 baino handiagoko aire-kalitate neurritzakoa eta onargarria indizea lortzea; aldiz, txarra, oso txarra eta arriskutsua mailak %1 baino gutxiago izatea. Txarra, oso txarra eta arriskutsua maila jasaten duten herritarren kopurua %20 murriztea, 2006arekin alderatuta.</p> <p><b>M1.6</b> Azaleko ur masak babestea, hobetzea eta birsortzea, %80k egoera ekologiko ona izatea lortzeko.</p> <p><b>M1.7</b> Azaleko ur masak eta oso aldatutakoak babestea eta hobetzea, %80k potentzial ekologiko ona eta egoera kimiko ona izan dezaten.</p> <p><b>M1.15</b> Jabetza publikoko zabortegi ez aktiboen etengabeko ingurumen-kontrola eta -jarraipena.</p>	<p><b>V. HELBURUA.</b> Klima aldaketaren eragina murriztea</p>
<p><b>II. HELBURUA.</b> Baliabide naturalak eta hondakinak erantzukizunez kudeatzea</p>	<p><b>M2.3</b> Baliabideen kontsumoaren eraginkortasunari (eraginkortasun materiala) 2001. urteko mailetan eustea.</p> <p><b>M2.4</b> 2010. urterako 975.000 tep-eko energia aurrezte.</p> <p><b>M2.5</b> 2000. urtearekiko, intentsitate energetikoa %16 hobetzea.</p> <p><b>M2.6</b> Energia kontsumoaren %29 energia berriztagarriaren eta baterako sorkuntzaren bitartez egitea.</p> <p><b>M2.7</b> Garraioan, urteko, 177.000 tep-eko bioerregai kontsumoa lortzea.</p> <p><b>M2.13</b> Azken metaketaren aurretik, tratamendurik jaso ez duten hiri-hondakinak isurketarik ez izatea.</p>	
<p><b>III. HELBURUA.</b> Natura eta biodibertsitatea zaintzea: babestu beharreko balio aparta</p>	<p><b>M3.2</b> Baso autoktonoaren azalera 10.000 hektarea handitzea, 2006. urtekoarekin alderatuta (Baso Inbentarioa).</p>	
<p><b>IV. HELBURUA.</b> Lurraldearen oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua</p>	<p><b>M4.1</b> Bidaiarien banaketa modala berriro bideratzea, motorrik gabeko garraioa (oinez eta bizikletan) eta garraio publikoa (trena, tranbia eta autobusa) sustatuta. Helburua da pertsonen urteko egiten duten distantziaren %40 garraio mota horietan egitea (bidaiari kilometroko neurtuta).</p> <p><b>M4.2</b> Merkantzien garraioaren banaketa modala bideratzea, trenbide bidezkoa, tona-kilometroko, azalera garraio guztiaren %15 izan dadin –errepidea gehi trenbidea–.</p> <p><b>M4.3</b> Artifizializatzen den hektarea kopurua urtez urte murriztea.</p>	

## 3.2 Iraunkortasuneranzko aurrerapausoak emateko beharrezko baldintzak

2007-2010 eperako IEPn aurreikusitako ikuspegiak, helburuek eta helburu estrategikoez zein konpromisoek euskal ingurumen-politikaren nukleoa osatzen dute. Hori lortzeko, beharrezkoa da *Gobernantzan bikaintasuna* («*Gobernu ona*») lortzea. Bikaintasunak hainbat ezaugarri sistematikoki aplikatzea esan nahi du; hala nola, epe luzeko ikuspegia, eredutasuna administrazio-ekintzetan, nagusitasun irmoa eta iraunkorra, etengabeko hobekuntzara orientatzea nazioarteko esperientzia aurreratuagoak alderatuta, ingurumen-kalitatea eta herritarren bizi-kalitatea hobetuko dituzten emaitza nabarmenetara orientatzea, norbere buruaren atseginetik ihesi, espiritu eraikitzailea, kritikoa eta autoexijentea sustatzea, eta, azkenik, administrazio publikoaren ekintza herritarrei eskainitako zerbitzu gisa balioztatzea.

Azken finean, Ingurumen Esparru Programa honetan zehaztutako ingurumen-politika gizartearekin egindako kontratu gisa ulertu behar da. Kontratu hori gardentasunean, parte-hartzean, emaitzen orientazioan, kontu ematean, eta politika, plan zein programa publikoen arteko koherentzian oinarrituko da, ingurumen-iritzia barne hartuta. Horretarako, helburu bakoitzari lotutako konpromisoak lortzeko, garatu beharreko ekintza-ildo batzuk barne hartzen dituzten eta oinarria ematen duten zeharkako tresnak behar dira. Horiei beharrezko baldintzak deitzen zaie, Euskal Autonomia Erkidegoan iraunkortasunerantz aurrerapausoak emateko nahikoak ez diren arren.

### Beharrezko baldintzak

1. Ingurumen aldagaia beste politiketan integratzea
2. Indarrean dagoen araudia eta horren aplikazioa hobetzea
3. Merkatua ingurumenaren alde erabiltzea
4. Herritarrak gaitzea eta erantzukizuna banatzea
5. Ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzea ingurumen arlorako
6. Nazioarteko ingurumen-lankidetzak

## 1. BALDINTZA. Ingurumenaren aldagaia beste politika batzuetan integratzea

JARDUERA ILDO NAGUSIAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Lurralde antolamendurako arauen berrikusketan ingurumen-irritziak elementu gakoak izatea.</li> <li>● Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarea finkatzea iraunkortasun politikak herrian bertan integratzeko eta koordinatzeko mekanismo gisa.</li> <li>● Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren osasunean ingurumen-inpaktuen balioztapena ezagutzeko eta sustatzeko oinarriak ezartzea.</li> <li>● Ingurumen-kudeaketako sistemak zein mugikortasun iraunkorreko planak eta euskal administrazioen instalazioei edota jardueri lotutako aseguruak.</li> <li>● Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa bideratzeko erreminta sustatzea.</li> </ul>

Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat tresna metodologiko (Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa, Planen eta Programen Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa) eta parte hartzeak (Ingurumen Aholku Kontseilua, Ingurumen Batzordea, Udalsarea 21 eta Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordea) jarri dira martxan, politika eta ekintza orotan ingurumen-zaintzaren integrazio handiagoa lortzeko. Esaterako, 2007-2010 eperako arteko IEP hau hurrengo laurtekorako Eusko Jaurlaritzaren planifikazio osorako oinarrizko erreferentzia gisa integratuko da.

Beharrezkoa da, euskal administrazio osoan, sailek –Industria, Garraioa, Nekazaritza, Etxebizitza, Osaguna...– onartutako politiketan, planetan eta programetan ingurumen-irritziak integratzen jarraitzea. Iraunkortasunean duen eraginagatik adibide gisa, Lurraldearen Antolamendurako Arauen berrikusketa eta lurralde antolamenduko beste tresna batzuen onarpena –Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak– Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiako (2020) eta 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programa honetako irizpideak esplizituki sartuta egingo dira. Horretarako, *ingurumen-ebaluazio estrategikoa* edota planen zein programen ingurumen-*inpaktuaren ebaluazio bateratua* eredu gisa aplikatuko dira, integrazio hori behar bezala burutzeko eta analizatzeko, IEP honetan zehaztutako konpromisoetan oinarrituta.

IEP honetan zehaztutako lau lehentasunek, laster, euren planak eta ingurumen-integrazioko egitura operatzaileak edota koordinazio-mekanismoak izango dituzte. Ondoko taulan harreman horiek bildu dira:

LEHENTASUNAK	Esparru planifikatzailea	Ingurumen-integrazioko egitura
1. Klima aldaketaren aurrean ekitea eta ondorioak pairatzeko prest egotea	Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Plana (egiten ari gara)	Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa
2. Gure kapital naturala indartzea	Biodibertsitatearen Estrategia (egiten ari gara)	Biodibertsitatearen Behatokia
3. Gure herriguneetako ingurumen-kalitatea hobetzea	Udalsarea 21 en 2006-2009 arteko Plan Estrategikoa	Iraunkortasunerako Euskadiko Sarea (Udalsarea 21)
4. Kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak	Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den 2006-2010 arteko Euskal Kontsumo Plana. Ekoizpen Iraunkorrerako Arauak	Zuzendaritza Batzordea eta Planaren Batzorde Teknikoa

Bitarteko ekonomikoen, teknikoen eta gizatiarren bidez, Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarea, Udalsarea 21, sustatzea; 2002-2020 arteko Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiaren eta 2007-2010 eperako arteko IEP honen aplikazioan, Eusko Jaurlaritzaren aliatu estrategikoa dena, hain zuzen ere. Ildo horretan, aurreko IEPn zehaztu bezala, 2010. urterako 5.000 biztanle baino gehiagoko Euskadiko udalek, banaka edota mankomunitatuta, ingurumen-arduradun teknikoak izatea lortu behar da.

Osasunari eta ingurumenari buruzko ikerketa sustatzea. Pertsonen osasunean zuzenean eragiten duten faktore gisa aurkeztu behar dira ondokoak: herriguneetako airearen kalitatea, lurzorua eta uraren kutsadura, hondakinak sortzea eta kudeatzea, euskal nekazaritza-sistemak ekoiztutako elikagaiak, klima aldaketaren ondorioak gure herrialdean, hirietan eta herrietan berdeguneak egotea, etab. Hala, beharrezkoa da herritarrek, herriguneetan, ingurumenaren zaintza eta osasunaren babesa gero eta gehiago eta hobeto uztartzea.

### Administrazioaren ereduak jarrera

Herritarrek adibide zehatzak behar dituzte, begi bistakoak, erreferentzia gisa ikus eta balora daitezkeen ekintzen adibide praktikoak. Adibideak ezinbestekoak dira sinesgarritasuna sortzeko. Administrazioak gizartea bultzatzeko botere handia dauka, baina igortzen dituen mezuek eredu gisa erabil daitezkeen ekintzak izan behar dituzte, jendeari erakusteko administrazioa dela berak eragindako ingurumen-inpaktua murrizten lehenengoa. Horren adibide da Beharrezko Baldintzen ataleko 3. puntuan bildutako Erosketa Publiko Berdea sustatzea.

Beste lan-ildo batek Eusko Jaurlaritzako eta foru aldundietako eraikinen edota jardueren ingurumen-kudeaketako planekin dauka zerikusia, baita, mugikortasun-plan iraunkorrei zein seguruei garrantzia berezia emanda, ingurumen-balantzeak eta balantze energetikoak hobetzeko ekintza-planekin ere. Administrazioaren eraikin berriek eraginkortasun energetikoaren, arkitektura bioklimatikoaren eta materialen analisiaren irizpide aurreratuak daukate.

## 2. BALDINTZA. Indarrean dagoen legedia eta horren aplikazioa hobetzea

### JARDUERA ILDO NAGUSIAK

- Ingurumen-legedi sektoriala garatzea 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programarekin eta Europar Batasunetik igorritako ildo berriekin bat; bereziki, *kutsaduraren kontrol integratuari* dagokionez.
- Indarrean dagoen ingurumen-legediak ezarritako administrazio-prozedurak laburbiltzea eta integratzea.
- Ingurumen-legedian ezarritako eskakizunak eta baimenetan, lizentzietan eta arau hau aplikatzeko jarritako beste administrazio-egintzetan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzea.

Europar Batasuneko erakundeek, azken urteotan, gero eta azkarrago onartzen dituzte zuzentarauak, araudiak eta beste egintza batzuk. Helburua ingurumena zaintzeko eskakizun handiagoei erantzuna ematea da. Hori dela eta, beharrezkoa da Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen ingurumen-araudia ondoko arloetan baldintzatzailer berrietara etengabe egokitzea: atmosfera potentzialki kutsatzen duten jardueren kontrolean, ur erabileren erregulazioan (hornidura, saneamendua, arazketa eta ureztaketa), lurzorua ez kutsatzean eta kutsatutakoa garbitzean, hondakinen isurian, mugikortasunean zein garraio iraunkorrean edota bioaniztasuna babestean.

Ingurumen-araudi zorrotza indarrean jartzea, eta batzuetan administrazio-izapideak bikoizten dituzten eta administrazio dokumentazioa behin eta berriro bidaltzea exijitzen dioten baimen-prozedurak ezartzea, ordea, araudi

hori betetzeko oztopo bilaka daitezke, eta, azkenik, litekeena da araudiaren xede den ingurumen-zaintza ez lortzea. Hori dela eta, beharrezkoa da prozedurak bateratzen dituzten eta baimenak, lizentziak zein sektoreko legedian banatuta dauden bestelako administrazio-egintzak integratzen dituzten arau-tresnak sortzea. Hala, kutsaduraren kontrol integratuari dagokionez, otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 39. artikulua egintzen duena bete egingo da.

Ingurumen-araudia etengabe hobetzeaz eta egokitzeaz gain, ezinbestekoa da araudi hori bete egingo dela bermatzea. Horrela, aldizka, arau-xedapenen hartzaileek baimenetan, lizentzietan eta eskudantzietan ezarritako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu behar da. Helburu hori lortzeko beharrezkoa da indarrean dagoen 2004-2007 Ingurumen Ikuskaritza eta Kontrol Plana ezartzen jarraitzea eta 2008-2011 Ingurumen Ikuskaritza eta Kontrol Plana lantzen hastea, baita kutsadura eragiteko arriskua duten jardueri buruzko informazioa aldizka zabaltzea bultzeko tresnak sortzea ere.

### 3. BALDINTZA. Merkatua ingurumenaren mesederako erabiltzea

#### JARDUERA ILDO NAGUSIAK

- Zerga Erreforma Berdea eta Ekologikoa lortzeko analisia, eta gai horretan sakontzea.
- Euskal administrazioen esparruan, erosketa publiko berdea sustatzea.
- Inpaktu potentzialik handieneko programetan, diru-laguntza publikoen ingurumen-orientazioan aurrerapausoak ematea.
- EPko lehentasun estrategiko nagusiak sustatzeko tresna gisa, prezioak, ordainsariak eta kuotak sartzea.
- Ingurumenaren kudeaketan, zaintzan eta balorazioan ekimen pribatua sartzea.

Euskal gizarteak gero eta hobeto ezagutzen ditu ingurumen-arazoak eta ingurumak duen garrantzia, baina, hala eta guztiz ere, ingurumenaren gaiak oraindik ere ez du lehentasunezko lekua okupatzen gure gizarte-balioen sistema. Ingurumen-arlo guztietan aurrerapauso handiak eman dira, baina sarri aurrerapauso horiek ez dituzte pertsonen, enpresen eta erakundeen ingurumen-kontzientziak eragin, arau-ezarpenek edota arrazoi ekonomikoek baizik. Halakoa da, esaterako, eraginkortasun energetikoan, materialen aurreztean eta era guztietako hondakinen kudeaketa hobetzean enpresek lortzen dituzten irabazien kasua. Jakina, ingurumen-aurrerapenak oso positiboak dira, horretara eramán gaituzten arrazoiak edozer motatakoak izanda ere.

2007-2010 eperako IEPk eragile sozialak eta ekonomikoak ingurumenaren alde ekitera eramango dituzten pizgarri sistemak ezarri nahi ditu, eta, horretarako, ahalik eta gehien baliatu nahi du, beste tresna batzuen artean, seinale egokiak bidaltzeko merkatu-sistemaz. Baliabideen esleipenean nagusi den sistema ekonomikoak ez du behar bezala barne hartzen ingurumenarekiko errespetua; izan ere, ingurumena ez du ondare gisa ulertzen eta, ondorioz, ez dio jabetza-eskubide argirik edota preziorik jartzen. Normala den moduan, horren guztiaren ondorioz, eragileek –enpresek zein etxeko ekonomiek– edota erakunde publikoek eta pribatuek ez dituzte behar bezala baloratzen ingurumen-aktiboak. Ura alferrik galtzen dugu eta berriztagarriak ez diren baliabide naturalak kontsumitzen ditugu horien benetako kostuz jabetzen ez garelako, enpresak eta pertsonok aire, ura eta lurzorua kutsatzen ditugu horrek ez dielako ekoizpen-kostuei eta errenta handiei eragiten, lurra artifizializatzen dugu eta biodibertsitatea galdu, inolako zalantzarik gabe, gure aktiborik baliotsuena den natura xahutzen ari garela ohartzen ez garelako. Azkenik, erregai fosil gehiegi kontsumitzen dugu. Horiek berotegi efektuko gasak sortzen dituzte, eta klima aldaketa eragiten dute, horrekin guztiarekin ondorio globalak sortzen ditugula kontuan izan gabe. Ondorio horiek planetako bizitarako dramatikoak izango dira eta izaten ari dira.



Aurreko IEPrekin hasitako bideari jarraiki, orain are gehiago sakondu nahi dute ingurumen-kostuen nazioarteko-tzean. Horretarako, tresnak garatu behar dira eta ekimenak martxan jarri, ondoko bost norabide gakoetan:

### Zerga-erreforma ekologikoa

«*Aldaketarako palankak*» zeintzuk ziren adierazten genuenean agerian geratu zen moduan, Euskadiko elementurik apartekoenetako eta bereizgarrienetako bat, eskualdeko beste esparru geografiko batzuei dagokienez, zerga propioak arautzeko gaitasuna zen, ez funtsak biltzeko eta bere politikak finantzatzeko soilik, baita ekoizpen- eta errenta-mailetan eta eragileek ingurumenarekiko daukaten jarreran eragiten duen zerga-politika egiteko ere.

Gobernuak IEPre inguruko gogoeta eta azterketa prozesu sakon bat bultzatuko, foru aldundi eta udalekin batera, *euskal ingurumen fiskalitatea gidatzeko agiri adostu bat* egiteko helburuarekin.

Proposatutako ingurumen arloko zerga-erreformaren oinarritzko printzipio orientatzaileak ondokoak dira:

- **Parte-hartzea.** Jaurlaritzarekin batera arlo honetan eskumena duten eragile ororen parte-hartzea, batez ere hiru lurraldeetako foru-alduendiena, baina baita udalena ere.
- **Foru aldundietako, udaletako, estatueta eta Europako zerga-arauekin bateragarria izatea.**
- **Bilketako ez den espiritua.** Ez da administrazio publikoak funtsak biltzeko zerbait, baizik eta eragileen jokaerak orientatzeko ekimena da. Hala, egungo zerga-figures ordez berriak ezarriko dira, eta zerga-bilketa osagarrien igoerari dagokienez, berriz, ingurumen-promozioko proiektuetarako erabiltzea.
- **Neutraltasuna.** Errentaren ekoizpen- eta banaketa-mailetan inpakturik ez egoten, edota egonda ere gutxiene-koa izaten saiatuta.

### Erosketa Publiko Berdea sustatzea

2004ko Lisboako Estrategiaren berrikusketan Europako Batzordeak ondokoa gomendatu zuen: «*Agintaritzak nazionalak eta lokalek ekintza-planak ezarri behar dituzte, 2006. urtea amaitu baino lehen, dimentsio ekologikoa kontratazio publikoan integratzeko*». Xehetasun gehiagorekin, garapen iraunkorra lortzeko 2006ko udako EBren strategiaren berrikusketak (EBren GIE) ondokoa planteatzen du: «*2010erako, EB osoan, estatu kide bikainenek orain arte lortu duten kontratazio publikoaren batez besteko maila*». Maila hori, gutxienez, kontratazioaren %40ri dagokio. Europako beste politika sektorial eta ildo batzuk ere erosketa eta kontratazio publikoak produktu ekoeraginkorren eta berrikuntza teknologikoaren merkatua mugitzeko tresnak direla uste dute<sup>22</sup>.

2006an erosketa zein kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak sartzen hasi ziren. Euskal administrazioek horretara bideratutako aurrekontu globala nahiko handia da, eta, ondorioz, lan-ildo oso garrantzitsua da merkatuari ingurumenaren ikuspuntutik positiboagoak diren produktuen eta zerbitzuen aldeko seinaleak igortzeko. Europako Batzordeak ezarritako ildoei jarraiki, 2006-2010 arteko Ingurumenaren Aldetik Iraunkorra den Euskal Kontsumo Planaren helburua, 2010erako, erosketa publiko «*esanguratsuen*» %40 ingurumen-irizpideak kontuan izanda egitea da. Kontratazio esanguratsuek, beste batzuen artean, ondokoak hartzen dituzte barne: papera, papezko produktuak eta inprimatzea, ekipo informatikoak, altzariak, ibilgailuak, egurra (ziurtatua), eta lorezaintzako eta eraikinen garbiketako zerbitzuak.

<sup>22</sup> Energiaren eta energia-zerbitzuen azken erabileraren eraginkortasunari buruzko 2006ko apirilaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/32/EE Zuzentarauak kontratazio publikoak barne hartzen du, ingurumen-irizpideekin, ibilgailuen, ekipoen eta eraikuntzaren esparruetan, administrazio publikoek onartu beharreko neurri gisa. Esaterako, errepede bidezko garraio-ibilgailu garbiak sustatzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/0283 Proposamenak, lehenengo fasean, ibilgailu garbietarako %25eko gutxieneko kontratazio-kuota ezarri zuen, merkatuaren zati handi batean kontratazio publikoak zuten ibilgailuen kategorietarako.

## Diru-laguntza publikoen orientazioa

Zergek bezalaxe, administrazio publikoak hainbat arlo sektorialetan eskaintzen dituen diru-laguntzek ere eragiten dute ingurumean inpaktua izan dezaketen pertsonen eta enpresen inbertsio- ekoizpen- eta kontsumo-jarreretan. 2007-2010 eperako IEPren esparruan, diru-laguntzak emateko administrazio publikoaren programa nagusiak analizatuko dira (Eusko Jaurlaritzarenak eta foru aldundienak), erakunde horietako arduradunak ingurumenaren ikuspegitik orientatu ahal izateko.

## Prezioak, ordainsariak eta kuoten ezarpena

Ingurumenaren aldeko merkatua martxan jartzeko beste bitarteko bat parte-hartze publikoa da, bai produktu zein zerbitzu batzuen prezioak aldatzeko (igo edota jaitsi), baita mugako kuotak ezartzeko ere (kontsumoari edota ekoizpenari, natur ingurunean eragiten duten produktuen eta materien isurketei edota isuriei).

Tresna mota hauek zeharka eragiten diete IEPn ezarritako bost helburuei eta lau lehentasunei. Lehenik eta behin, kutsadura atmosferikoaren ondoriozko klima aldaketaren eta osasunean izaten den inpaktuaren aurka borrokatzeko, ibilgailu pribatuaren erabilera mugatzen duten neurriak hartuko dira, bereziki, auto-pilaketa gehien gertatzen den herriguneetan. Neurriok ordainsarien edota zirkulazio-mugatzeen bidez jarriko dituzte martxan. Horretarako, ahalik eta gehien aprobeztatuko dituzte elektronikak eta informazioaren teknologiek eskaintzen dituzten aukerak.

Kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak sustatzeko, beste aukera batzuk analizatuko dira. Hala, produktu lokaletarako eta ekologikoetarako primen zein pizgarrien sistemak erabiliko dira, baita ekodiseinuko estandarrei bere horretan eusten dieten, ingurumenarekiko ekoizpen errespetuzkoa duten eta ontziak zein bilgarriak ahalik eta gutxien erabiltzen eta asko aurrezten dituzten produktuen kasuan ere.

## Ingurumenaren kudeaketan, zaintzan eta balorazioan ekimen pribatua sartzea

Ingurumen-garapenak eta, bereziki, gure historiaren ondoriozko ingurumen-arazoek pixkanakako errekupezioak euskal administrazio publikoak aurrekontu handia bideratzea eskatzen dute. Baliabide publikoekin bakarrik, ordea, oso zaila izango da gure gizarteak eskatzen duen erritmoan aurrerapausoak ematea.

Hori dela eta, ingurumena ekimen pribatuari lotzeko imajinazio handia behar da. Horrela, funtsak eskuratzeaz gain, ideiak, baliabide teknologikoak eta kudeaketa-gaitasunak ere lortuko dira, datozen urteetan iraunkortasun-erronkei aurre egin ahal izateko.

Horrela, IEPk tresnen garapenean aurrerapausoak ematea proposatzen du, hala nola, egungo finantza-sistema osatzeko eta ingurumenaren inguruko negozio-aukeretan (lurzoruak garbitzea, hondakinak aprobeztatzea, energia garbiak, etab.) kapital pribatuak eskuratzeko funtsetan. Ildo berean, aseguru-modu banakoak eta kolektiboak sustatzeak ingurumenean eragin handia duten ekintza ugariaren arriskuak orekatzeko bide berriak ekar ditzake.

Bestalde, azpiegitura berrien kudeaketan beharrezkoa izango da ekimen pribatuari ingurumen-proiektuen ekipamenduak eta garapena eranstea, egun nahikoa masa kritiko ez duten merkatu berriak sortzea sustatuta.

## 4. BALDINTZA. Herritarrek gaitzea eta erantzukizuna banatzea

### Informazioa eta komunikazioa

*“Iraunkortasunera zuzendutako aurrerapausoak emateak herritarren sektore guztiak inplikatzeari eskatzen du, batez ere, erabakiak hartu behar dituztenak edota gizartean eragin handiena dutenak”.*

#### JARDUERA ILDO NAGUSIAK

- Informazioa lortzeko prozesuak hobetzea, informazioa ahalik eta ondoen prozesatzea, eta ingurumen-informazioa hedatu eta informazio hori eskuratu ahal izatea erraztea.
- Iraunkortasunaren aldeko ingurumen heziketarako estrategia 2007-2010 eperako hezkuntza sistema formalean ezartzea.
- Unibertsitatean eta lanbide-heziketan ingurumen-irizkiak integratzea.
- Ingurumenaren arloan, informazioko, komunikazioko eta herritarrek parte hartzeko estrategia martxan jartzea.

Ingurumena ezagutzea zaintzen hasteko lehenengo pausoa da: ezagutzen ez dena ezin daiteke baloratu, ezta defendatu ere. Ingurumena partikularki ere goza daitekeen gizarte-ondasun gisa ikusi eta baloratu behar da. Ingurumenaren mehatxu nagusien jakitun izatea banakako ardura eta ardura kolektiboa geure gain hartzeko, eta ingurumenaren aldetik errespetuzkoagoak diren jokoak izateko lehenengo pausoa da.

Ingurumen-informazioa eskuratzea eta ingurumen-gaietako parte-hartze soziala administrazio publikoek herritarrei bermatu beharreko eskubideak dira. Informazioa eskuratzeari, erabakiak hartzerakoan publikoaren parte-hartzeari eta ingurumen-arloan justizia eskura izateari buruzko *Nazio Batuen Europarentzako Batzorde Ekonomikoaren Hitzarmena (Aarhuseko Hitzarmena)* ondoko postulatuan oinarritzen da: herritarrek ingurumen osasuntsua izateko eskubideaz gozatzeko, eta hori errespetatzeko eta zaintzeko, ingurumen-informazio garrantzitsua eskuratu ahal izan behar du, ingurumen arloko erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko aukera izan behar du, eta eskubide horiek urratzen direnean justizia eskura izan behar du.

Ingurumen-arloan informazioko, komunikazioko eta herritarrek parte hartzeko Estrategiak helburu hori garatzen duten esparru-ekintzak ezartzen ditu. Ekintza horiek, era berean, informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikoko eta ingurumen-arloan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean ezarritako lege-betebeharrak betetzea bermatzen dute<sup>23</sup>.

### Heziketa, prestakuntza eta gaikuntza

*“Heziketa jokaeretan aldatetako sustatzeko eta herritar orori garapen iraunkorra lortzeko beharrezko gaitasun gakoak eskaintzeko baldintza da. Enpresan iraunkorrak ez diren joerak aldatzearen arrakasta, hein handi batean, garapen iraunkorra lortzeko maila orotan kalitate handiko heziketa egotearen araberakoa izango da. Heziketa horrek ondoko gaien inguruko prestakuntza eskaini behar du: energien eta garraio-sistemen erabilera iraunkorra, kontsumo- eta ekoizpen-jarraibide iraunkorrak, osasuna, hedabideen eskumena eta herritar global arduratsuak.”*

*(Garapen Iraunkorreko Europako Estrategia, 2006)*

<sup>23</sup> Lege honek Espainiako estatuak Aarhuseko Hitzarmena onartu ostean bere gain hartutako konpromisoei erantzuten die, eta, informazioaren eta parte-hartzearen arloan, Aarhuseko konpromisoak erkidegoko zuzenbidera egokitzen dituzten Europako Zuzentarauen transposizioa egin du.

Unibertsitatea gure gizarteko ezagutzaren fabrika nagusia da. Ondorioz, unibertsitateek oinarritzko zeregina daukate, herrialde honek teknologiarik eta ingurumen-ezagutzarik aurreratuenak garatzeko, berritzeko eta ustiatzeko gaikuntza teknikoa izan dezan, beharrezko heziketa eta prestakuntza ematerako garaian.

Beraz, trantsizio horretan aurrerapausoak emateko EHUren parte-hartze aktiboa ezinbestekoa da. Horretarako, ordea, ekonomiaren, energiaren, garraioaren, ekodiseinuaren eta ekoizpen garbiaren, eraikuntzaren eta lehen sektorearen arloei arreta berea jarri behar zaie. Hala, irakasleek ingurumen-heziketa jasotzeko esfortzu berezia egin beharko litzateke. Ingurumen-iraunkortasunaren arloan erreferentzia diren Estatuko zein Europako unibertsitateekin aliantza egonkorrek sortzea bide oparoa izango litzateke gure unibertsitatean praktikarik onenak sartzeko. 2005ean, Lituaniako Vilna hirian, Nazio Batuek onartutako Garapen Iraunkorrerako Heziketa Estrategia, ildo horretan, erreferentzia garrantzitsua izango da.

Gazteen heziketa alderdi gakoa da. Hala, unibertsitateak oso egiteko garrantzitsua dauka, ereduzko jarrera izanda eta ikerketa-planak diseinatuta, edota ingurumenaren zein ekologiaren ikerketa oinarritzkoa eta aplikatua eginda.

Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sisteman, aurreko 2002-2006 eperako IEPn ezarritako konpromisoari bere horretan eusten zaie. Hala, xedea 2012rako lanbide-heziketako zentroen %100ek ingurumen-kudeaketako sistematik martxan jartzea da. Era berean, 2012rako derrigorrezko irakaskuntzako ikastetxeen %100ek euren Eskolako Agenda 21 martxan jartzea da helburua.

Gainera, hainbat neurri hartuko dira euskal hezkuntza-sisteman garapen iraunkorrerako hezkuntza sustatzeko. Horien artean, ondokoak nabarmenduko ditugu:

- Garapen Iraunkorrerako Heziketaren Nazio Batuen Hamarkadara (2005-2014) atxikitzea sustatzea, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan.
- Derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeetan *Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzako koordinatzaile* kargua sortzea.
- Lau urtetik behin, eskolako ekobarometroa egitea, hezkuntza-erkidegoaren ingurumen- eta iraunkortasun-sensibilizazio maila ezagutzeko.

## Herritarren parte-hartzea

Euskadiko udalerrri gehienetan Tokiko Agendak 21ak jadanik martxan daude. Hirigintzako plangintzari, garraioari eta ingurumenari buruzko tokiko erabakietan herritarrek parte hartzea sendo eta sormenarekin sustatu behar da. Horretarako, gehienezko gardentasuna sustatuko duen eta eskuragarri dagoen informazioa modu egokian zainduko duen gobernantza sustatu behar da. Herritarrek behar bezala informatuta egon behar dute, informazio hori izanda bere iritzia eman ahal izateko, eta iritzi horrek arduradun politikoen erabakietan eragin eta erabaki horiek baldintzatu ahal izango ditu.

Hala, beharrezkoa da 2002-2006 arteko IEPn hasitako lanarekin jarraitzea; lurraldean eragiten duten planak egin baino nahikoa denbora aurretik publikoak jakinaren gainean egon dadin mekanismoak artikulatzea, hain zuzen ere. Era berean, herritarrek izapidean zehar eragiten dieten planak ezagutzeko eta analizatzeko astia izan dezaten, neurri zehatzak garatzen jarraitu behar da, planetako proposamenak modu argian eta ulergarrian eskuratuta.

## 5. BALDINTZA. Ikerketa, garapena eta berrikuntza ingurumenean

### JARDUERA ILDO NAGUSIAK

- Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuen ingurumen-berrikuntza sustatzea.
- Ingurumen-arloetan ikerketa garatzea, klima aldaketara egokitzea, kutsatutako lurzorua, hondakinen zikloaren itxiera, kontsumo iraunkorreko eskaeraren kudeaketa, biodibertsitatea eta osasuna.
- Ingurumen-teknologiak sustatzeko Europako Batzordearen ildoak hedatzea.
- Lurralde-planifikazioaren eta -erabileraren ondoriozko ingurumen-inpaktuei buruzko ereduaren garapena.
- Basoetan ikerketa sustatzea (bioteknologia, hobekuntza, basogintza, izurrien eta gaixotasunen kontrol integratua, etab.) eta ikerketako emaitzen transferentzia.
- Ingurumen-aktiboak ekonomikoki baloratzeko ikerketen garapena.

*2010erako Zientzia, Teknologia eta Gizarte Planak* Euskal Autonomia Erkidegoko sailen eta erakunde publikoen I+Gko ekintza-ildoak kokatzen, biltzen eta koordinatzen ditu, ingurumenekoak barne. Bestalde, *2006-2009 arteko Enpresa Lehiakortasunaren eta Gizarte Berrikuntzaren Planak*, Herrialdeko eragile publikoekin eta pribatuekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan berrikuntza sustatzeko hainbat programa eta erreminta garatzen ditu.

Plan hauek Europako Batzordeak ezarritako COM (2004) 38 amaiera Ingurumen Teknologien Ekintza Planeko ildoak hedatzeko esparru ongarrirua osatzen dute. Xedea ingurumen arloko I+G+b merkatura eramatea, eta horretarako merkatu-baldintza egokiak sortzea da.

Horri ingurumen esparruko I+G+b arloan nazioartean egindako lankidetzaren aldeko apustua eransten badiogu, uskal Autonomia Erkidegoko ingurumen arloko I+G+b-ren gaitasuna finkatu egingo da. Hala, hurrengo ingurumen-esparru programetako helburuak betetzeko ekarpen handiak egingo dituzten ingurumen-produktuen eta teknologien ingurumen-ikerketa estrategikoaren eta berrikuntzaren etorkizuneko proiektuetan nagusi izango den giza kapitala eskuratuko da. Aipatutako nazioarteko lankidetzak Surprise sarean parte-hartzea eta, batez ere, ingurumen-arlo berrietan oinarrizko ezagutza sortzea hartzen ditu barne; hala nola, produktua, lurralde-antolamendua, klima aldaketari egokitzea, hondakinen zikloaren itxiera edota kontsumo iraunkorra.



## 6. BALDINTZA. Nazioarteko ingurumen-lankidetzaz

Ingurumen-arazoak gero eta gehiago ezaugarritzen dira euren osagai globalagatik; esaterako, klima aldaketa, itsas biodibertsitatea eta arrantzako baliabideak, mugaz bestaldeko kutsadura atmosferikoa edota substantzia kimikoak. Hori dela eta, beharrezkoa iruditu zaigu IEP honetan nazioarteko ingurumen-lankidetzari buruzko 6. baldintza ezartzea.

### JARDUERA ILDO NAGUSIAK

- Euskadik Garapen Iraunkorrerako Eskualde Gobernuen Sarean (nrg4SD) duen rola indartzea.
- Klima aldaketaren esparruan eta, bereziki, hori arintzeari eta horretara egokitzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko parte-hartzea sustatzea.
- Natura zaintzeko sareetan zeregin aktiboa izatea.
- Udalsarea 21 sarearen nazioarteko lankidetzaz sustatzea.
- Kontsumo eta ekoizpen iraunkorraren esparruetan, Europako eskualde nagusien baterako proiektuetan buru izatea.
- Euskadin Lurrerako Ekintza Globalaren Plana (GAP programa) martxan jartzea.
- Garatuta ez dauden herrialdeekin eta eskualdeekin lankidetzaz eta elkartasun-harremanak sustatzea.

Mundu globalizatu batean bizi gara, eta planeta-dimentsioa erabaki sozioekonomiko nagusiak hartzen diren gune nagusia da. Era berean, tokiko ekintzek globalki eragin handia izaten dute. Ingurumena, agian, kasurik paradigmatikoa da. Gure ingurumen-arazo nagusiak, klima aldaketa adibidez, arazo globalak dira, argi eta garbi, eta herrialdeen arteko baterako ekintza koordinatuak behar ditugu arazo hori konpontzeko eta ondorioei aurre egiteko.

Bestalde, garapen iraunkorra planeta osoa inplikatzeko duen kontzeptu globala da, baina 1992ko Rioko Konferentzian aitortu zuten moduan, planetaren iraunkortasunerako ekintza-planik iraunkorrenak esparru lokaletik abiatuko dira. Ingurumenaren kudeaketa zuzenduko duen esaldia *osotasunean pentsatu, tokian ekin* da.

Hala, nazioarteko dimentsioa da euskal ingurumen-politikaren alderdietako bat. IEPn ezarritako lau lehentasun estrategikoak esparru lokaletik hasita artikulatzen dira, nazioarteko alderdiari benetako zentzua ematen dion ekintza-markoan.

Eusko Jaurlaritzak ere, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin, garapen iraunkorraren aldeko eta klima aldaketaren aurkako nazioarteko konpromisoak hartu ditu. Hala, gai honen inguruan nazioarteko egin dituzten gailur nagusienetan modu aktiboan parte hartu du (*Nairobi 2006* da adibidetako bat). Era berean, konpromiso honi erantsi behar zaio Euskadik garapen iraunkorraren aldeko politikekin konprometitutako eskualdeen sarean, *nrg4SD*, bere gain hartutako nagusitasuna eta lan bateratua zein koordinatua (Euskadik sarearen presidentetza dauka, eta bertako idazkaritza teknikoaz arduratzen da). Sare hori Johannesburgoko Garapen Iraunkorrari buruzko Mundu gailurrean sortu zuten, eta helburua globalki eskualdeko gobernuen bozeramaile eta ordezkari gisa ekitea da, mundu osoan garapen iraunkorra eta eskualdeko elkarrekin sustatuta.

Bigarren lehentasuna giza kapitala indartzea eta biodibertsitateari bere horretan eustea da. Hala, babestutako guneei dagokienez, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak modu aktiboan hartzen du parte Europako Parke Naturalen eta Nazionalen Federazioaren Espainiako Estatuaren Atalean (EUROPARC). Erakunde horretan babestutako naturaguneen planifikazioan eta kudeaketan inplikaturako erakundeek hartzen dute parte, gune horiek hobetzeko proposamenak eztabaidatzen eta egiten dituzten profesionalean foro nagusia osatuta. Hezeguneak

Nazioarteko Garrantzia Duten Hezeguneen Batzordean, RAMSAREn, parte hartuta kontserbatzen dira. Garrantzi handia du, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren (Bizkaia) bidez, Unescoren Biosfera Erreserben Sarean parte hartzeak (Bizkaia); izan ere, iraunkortasunaren ikuspegitik, baliabide naturalak kontserbatzeko elementu gakoa da.

Herriguneetako ingurumen-kalitatea eta ingurumenaren arloan konprometitutako udalerrien sarean egindako lana izan dira lehenengo IEPn markatutako bideak, eta, hala, datozen urteetarako, zentzu berritua hartuko dute, pertsonen bizitzan hiri-inguruneak duen garrantziaren ondorioz. Nazioartetik begiratuta, Udalsarea 21 sarea ICLEI Local Governments for Sustainability-n integratua dago; iraunkortasunaren aldeko konpromisoa hartu duten tokiko gobernuen nazioarteko elkarte nagusian, hain zuzen ere. Udalsarea 21eko udalerrri guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko iraunkortasunaren aldeko konpromisoa onartu dute, edota Aalborgeko Ituna sinatu dute, eta, ondorioz, dagokien Tokiko Agenda 21 daukate. Tokiko erakundeekin egindako baterako lana talde-lanerako foro garrantzistua da hainbat arlotan proiektuak zein ekintzak garatu nahi dituzten hiri iraunkorren esparruan. Arlo horiek klima aldaketa, uraren kudeaketa, mugikortasuna, etab. izan daitezke.

Kontsumo eta ekoizpen iraunkorren atalean, Euskadik hainbat urte daramatza nazioartean lan egiten. Bereziki, Ingurumenari buruzko Europako Eskualdeen Konferentziako (ENCORE) Zuzendaritza Batzordeko kide da. Batzorde horrek arlo honen garrantzia nabarmentzen du, eta arlo hauetan Europako eskualdeek politika eraginkorrak eta berritzaileak onartzearen alde agertzen da. 2006an, Eusko Jaurlaritzak Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Kontsumo Plana onartu zuen, eta plan hori izango da IEPren arlo honetan ekintzak zuzenduko dituen ardatza. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Europako eskualderik eta herrialderik aurreratuenen ingurumen-berrikuntzako programak koordinatzen eta optimizatzen dituen SUSPRIZE sarean hartzen du parte.

Era berean, Euskadi Lurrerako Ekintza Globalerako Plana (GAP programa) martxan jartzen ari da. Programak Nazio Batuen Ingurumen Programaren laguntza izan du (NBIP), eta helburua pertsonen bizi-baldintzak hobetzea da, ingurumean duten eragina murriztuta, etxetik bertatik egin daitezkeen ekintzen bidez. Ingurumenaren zaintza etxetik hasten dela dioen esaldia praktikara eraman behar dugu. Programa nazioarteko lankidetzaren ondorioz sortu da (proposamenean 15 herrialde baino gehiago bildu dira), eta euskal familia askorekin lan egin nahi du (izena emateko epean, jada, 4.200 pertsona baino gehiago daude), kontsumo irainkorrari lotutako ingurumen-neurri zehatzen bidez, emaitza praktikoak lortzeko. Emaitza horiek gure planetako ingurumen-kalitatea hobetzen lagundu behar dute, bizimodu iraunkorragoa izateko, baliabideak kontsumitzeko ohiturak aldatuta.

Azken finean, nazioarteko euskal ingurumen-politikaren xedea gure antzeko erronkak dituzten eskualdeekin koordinazioa sustatzea da, herrialdeko ingurumen-lehentasun estrategikoen norabidean ekintza bateratuak orientatzeko joera aktiboa izanda.

Gainera, Euskadiko nazioarteko harremanek gurea bezain beste garatuak ez dauden eskualdeekin eta herrialdeekin elkartasun-harremanak indartu nahi dituzte; izan ere, eskualde zein herrialde horiek premiazko laguntza behar dute euren ingurumen-beharrak egoki kudeatzeko. nrg4sd sarearen, eta sare horrek Latinoamerikan Nazio Batuen Ingurumen Programarekin daukan lankidetzaproto-koloaren esparruan, Latinoamerikako hainbat eskualde-gobernurekin hainbat akordio sinatuak daude, eta produktuen zein zerbitzuen ekodiseinuaren arloan aholkularitza tekniko eskaintzen da.



*“Ez badakizu nora zoazen, edozein bidek eramango zaitu hara”.*

(Ekialdeko esaera zaharra)

# 4 | Ingurumen Esparru Programaren kudeaketa eta jarraipen eredu operatiboa

# Ingurumen Esparru Programaren kudeaketa eta jarraipen eredu operatiboa

**G**arapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 eta Ingurumen Esparru Programa 2002-2006 onartzeak ingurumen politika kudeatzeko sistema integratu bat edukitzea ahalbidetu du. Sistemak analisi estraterikiko ziklo oso bat du bere baitan: *diagnostikoa, plangintza, garapena, jarraipena eta ebaluazioa*, hain zuzen, eta haien osagarri nagusi hauek finkatuta daude dagoeneko:

## ► Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena

Ingurumen Esparru Programa 2002-2006ren jarraipena ri buruzko lehen txostena 2003an egin zuten, eta urtero egiten dute txosten hau ekaineko lehenengo asteko Gobernu Kontseiluan aurkezteko, Nazio Batuen Erakundeak babestutako Ingurumenaren Nazioarteko Egunarekin bat egin dezan. Azken txostena 2006koa da, eta Ingurumen Esparru Programa 2002-2006ren balantze orokorra egin zuen.

Ingurumen Esparru Programa honen urrats metodologikoa ondokoak dira: adierazleen bidez neur daitezkeen ingurumen kalitateari buruzko konpromisoak ezartzea, eta Eusko Jaurlaritzak segimendua egiteko zuzendaritza bat eratzea. Horrek ingurumen iraunkortasunaren aldeko pausoak ebaluatzen lagunduko du, neurri handi batean.

## ► Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren egoera

Txostena hiru urtetik behin egiten da, Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrari jarraiki, eta ingurumenaren egoeraren diagnostikoa buruzko analisi zehatza egitean oinarritzen da.

## ► Ingurumen-adierazleen txostena

Urteroko txostena da, 2002an egin zuten lehena, eta lehentasunezko zatitza jotzen diren ingurumen helburuen joera orokorrak biltzen ditu, erreferentziak jotzen diren 22 adierazletan. Horregatik, 2007tik aurrera, adierazle hauek Ingurumen Esparru Programa honetan finkatutako konpromisoekin lotuko dira, ahal den neurrian. Txosten hau urteko azken hiruhilekoan kaleratzen da, eta garai horretan funtsezko komunikaziotzat jotzen da, beraz, datozen ekitaldietan ere txostena kaleratzeari eutsiko zaio.

## ► Gizarte-, industria- eta hezkuntza-ekobarometroak

Herritarren, industriaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen ingurumenari buruzko iritzien eta haien ingurumenarekiko elkarrekintzaren analisia. Bi edo lau urtetik behin egiten da, eta ingurumenarekiko sentikortasunaren bilakaerari buruzko ikuspegia ematen dute, baita harekiko jokabidearen bilakaerarena ere. Kudeaketa eta jarraipenaren ikuspuntu operatibotik, Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperako ondoko antolaketa ereduari jarraiki egituratzen da:

- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko *Plangintza, Ebaluazio eta Ingurumen Kontrol Zuzendaritza* da kudeaketa eta jarraipen prozesu osoaren erantzulea.
- *2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programako Koordinazio Foroa*: 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programako konpromisoen segimendua egiten duten Eusko Jaurlaritzako sailek osatzen dute, eta urtean behin bilduko da, gutxienez, Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena prestatzeko. Zuzendaritza hauek, era berean, esku hartzen duten eragileen jardueren gaineko informazioa jasoko dute.

IHOBERen esku geratuko da *2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programako Idazkaritza Teknikoa*, eta hauek izango dira bere eginbeharrak:

- 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programako Koordinazio Foroa deitu, antolatu eta dinamizatzea.
- Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostenaren (Ingurumen Esparru Programaren segimendua), Ingurumen Adierazleei buruzko Txostenaren eta Ingurumenaren egoerari buruzko Txostenaren zirriborroak prestatzea, baita Ekobarometroak ere.
- Ingurumen Esparru Programako parte-hartze foroak deitu, antolatu eta dinamizatzea (Soziala eta enpresariala, eta Udalsarea 21). Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenetan eta ingurumen adierazleetan oinarrituta, egingo dako aurrerapausoei buruz eztabaidatuko dute.
- Ingurumen Esparru Programako elkarren segidako zirriborroen egintza koordinatu.

*“Balizko errotak, irinik ez”.*

*(Esaera zaharra)*

# 5 | 2007-2010 eperako

Ingurumen Esparru Programako  
aginte-koadro integrala

# 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programako aginte-koadro integrala

Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperako *Aginte Koadro Integrala* (AKI) berau modu eraginkorrean eta integrean kudeatzeko tresna da. 2010 arteko konpromisoak erreferentziatzeko egungo adierazlearekin eta segimendu erakunde arduradunarekin lotzen ditu. Urtero, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak konpromisoen jarraipenari buruzko txosten bat aurkeztuko dio gizarteari eta txosten hori adierazleetan egungo da oinarrituta. Txosten hori Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperako egungo AKIan oinarrituko da.

HELBURUKO KONPROMISOAK 1	Adierazlea (urtea)	2010eko Helburua	Jarraipena egitearen arduraduna
<b>M1.1</b> Neurritzkoa eta onargarria mailak %95 baino gehiago izango diren aire kalitate indizea lortzea; aldiz, txarra, oso txarra eta arriskutsua mailak %1 baino gutxiago izan beharko lirateke. Txarra, oso txarra eta arriskutsua maila jasaten duten herritar kopurua %20 murriztea 2006arekin alderatuta.	%93,4  %1,47 (2005)	%95  < %1	Ingurumen Plangintzako zuzendaria
<b>M1.2</b> Airearen kalitateari buruzko jardueraren planak egitea beharrezkoa den eremutan urteko batez besteko partikula kontzentrazioa gutxienez %10 murriztea.	Barakaldo: 43 Basauri: 35 Bilbo: • Mazarredo: 36 • Indautxu: 41 • Elorrieta: 36 Erandio: 39 Portugalete: 45 Errenteria: 32 Beasain: 28 Zornotza: 31 Arrasate: 32 Durango: 34 Zierbena: 39 (2003)	< 38 < 31  < 32 < 37 < 32 < 35 < 40 < 29 < 25 < 28 < 29 < 30 < 35	Ingurumen Plangintzako zuzendaria
<b>M1.3</b> Sareko estazioetan, Europar Batasunak zehaztuko duen PM <sub>2,5</sub> en urteko muga-balioa ez gainditzea lortzea.	-	20-25	Ingurumen Plangintzako zuzendaria
<b>M1.4</b> NO <sub>x</sub> , SO <sub>2</sub> eta konposatu organiko hegazkorren isurpenak hurrengo portzentaietan murrizten laguntzea 1990eko datuekin alderatuta: NO <sub>x</sub> : -%31, SO <sub>2</sub> : -%64, KOHEM: -%58.	NO <sub>x</sub> : +%8 SO <sub>2</sub> : -%39 KOHEM: -%43 (2003)	-%31 -%64 -%58	Ingurumen Plangintzako zuzendaria
<b>M1.5</b> Osasunerako Mundu Erakundeak aglomerazio handietarako gomendatutako mugak gainditzen dituzten zarata mailak jasaten dituzten herritar kopurua %10 murriztea 2006 urtearekin alderatuta.	Vitoria-Gasteiz:- Bilbo: - Donostia: - Errepide sarea: %18 Trenbide sarea: %2 (2004)	- - - %15 -	Ingurumen Plangintzako zuzendaria
<b>M1.6</b> Azaleko ur masak babestu, hobetu eta birsortzea beraien %80k egoera ekologiko ona izatea lortzeko.	Ibaiak: %40 Trantsizio-urak: %35 Kostako urak: %75 Zingirak eta hezeguneak: %50 (2005)	%80	Uren zuzendaria
<b>M1.7</b> Ur masa azalako eta oso aldatuak babestu eta hobetzea beraien %80ak potentzial ekologiko ona eta egoera kimiko ona izatea lortzeko.	Ibaiak: <%10 Trantsizio-urak: %33 (2005)	%80	Uren zuzendaria
<b>M1.8</b> Lurpeko ur masak babestea, hobetzea eta birsortzea. Ur horien ateratzearen eta elikatzearen arteko oreka bermatzea, lurpeko uren %80k egoera ona izatea lortzeko.	%77 (2005)	%80	Uren zuzendaria

2007

HELBURUKO KONPROMISOAK 1	Adierazlea (urtea)	2010eko Helburua	Jarraipena egitearen arduraduna
M1.9 Saneamendu azpiegitura publikoek (biztanleen %97) jaso beharreko herri eta hiritako hondakin-urak isuri horretarako egokiak diren HUA motako araztekietan tratatzea lortzea.	%87 (2005)	%97	Uren zuzendaria
M1.10 Bainatzeko uretako lagin-hartze puntuen %95ek ona edo onargarria kalifikazioa izatea lortzea.	Kalitate oneko ura: %58 osasun ikuspegitik onargarria den ura: %29 ur ez gomendatua: %13 (2004)	%95	Osasun Publikoko zuzendaria
M1.11 Euskadiko biztanleen %95ek egokia kalifikazioko kontsumo ura jasotzea lortzea.	%93 (2005)	%95	Osasun Publikoko zuzendaria
M1.12 Lurzoruaren kutsadurari aurre hartzea ditugun bitarteko administratibo zehatzak erabilita (aurreiazko egoera txostenak).	26 (2005)	5.000	Ingurumen Kalitate zuzendaria
M1.13 Potentzialki kutsatuta dauden eta hiringintzako plangintzak beste erabileraren bat ematea edota jardueraren bat gauzatzea aurreikusita duen 407 hektarea garbitzea.	115 (2004)	407	Ingurumen Kalitate zuzendaria
M1.14 Potentzialki kutsatuta dauden eta hiringintzako plangintzak beste erabileraren bat ematea edota jardueraren bat gauzatzea aurreikusita ez duen 35 hektarea garbitzea.	2 (2004)	35	Ingurumen Kalitate zuzendaria
M1.15 Jabetza publikoko zabortegi ez aktiboen ingurumen kontrol eta jarraipen etengabea.	100 (2004)	175	Ingurumen Kalitate zuzendaria

HELBURUKO KONPROMISOAK 2	Adierazlea (urtea)	2010eko Helburua	Jarraipena egitearen arduraduna
M2.1 Zenbatu gabeko herrietako ur eskaria murriztea %25 izan arte hornitutako biztanleriaren %80an.	38,7 (2004)	<%25, herritarren %80rentzat	Uren zuzendaria
M2.2 Geroz eta handiagoa den ur hornidura publikoko eskaria, eta industri zein nekazaritza jarduetarako hartune propioen bitartez egiten den eskaria %20 murriztea, 2001 urtearekin alderatuta.	402 Hm <sup>3</sup> (2001)	362 Hm <sup>3</sup>	Uren zuzendaria
M2.3 Baliabideen kontsumoaren eraginkortasunari (eraginkortasun materiala) 2001. urteko mailetan eustea.	+%5 (2004)	%0	Ingurumen Kalitate zuzendaria
M2.4 2010 urtean 975.00 tep-eko energia aurrezkoa lortzea.	407.000 (2005)	975.000	Energia zuzendaria
M2.5 Intentsitate energetikoa %16 hobetzea, 2000. urtearekin alderatuta.	-%2,6 (2005)	-%16	Energia zuzendaria
M2.6 Energia kontsumoaren %29 energia berriztagarriaren eta baterako sorkuntzaren bitartez egitea lortzea.	%16 (2005)	%29	Energia zuzendaria
M2.7 Garraioan urtero 177.000 tep bioerregai kontsumitzea lortzea.	5.060 (2005)	177.000	Energia zuzendaria
M2.8 Industriako hondakin arriskutsuen sorrera eta industriako balio erantsi gordina bereiztea.	Kalkulatzan	-	Ingurumen Kalitate zuzendaria

HELBURUKO KONPROMISOAK 2	Adierazlea (urtea)	2010eko Helburua	Jarraipena egitearen arduraduna
M2.9 Hondakin arriskutsuetako baliabide materialak berreskuratzea, horien birziklatze-tasa %65era arte igota.	Birziklatze tasa: %52 (2004)	%65	Ingurumen Kalitate zuzendaria
M2.10 Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako eraikuntza eta eraiste hondakinen %50 berrerabiltzea eta birziklatzea lortzea.	%15-20 (2005)	%70	Ingurumen Kalitate zuzendaria
M2.11 Industria jatorriko hondakin ez arriskutsuen birziklatze tasa %75 izatea lortzea.	%54 (2004)	%75	Ingurumen Kalitate zuzendaria
M2.12 Sortutako hiri-hondakin guztien %35 birziklatzea.	%26 (2004)	%35	Ingurumen Kalitate zuzendaria
M2.13 Azken metaketa aurretik tratamendurik jaso ez duten hiri-hondakinen isurketarik ez izatea.	%56 (2005)	0	Ingurumen Kalitate zuzendaria

HELBURUKO KONPROMISOAK 3	Adierazlea (urtea)	2010eko Helburua	Jarraipena egitearen arduraduna
M3.1 2007-2010 artean, desagertzeko arriskuan edota egoera larrian dauden faunako eta florako espezieen bilakaeraren inguruko adierazleek hobetzeko joera erakustea <sup>24</sup> .	Desagertzeko arriskuan diren fauna e espezieak: 13 Desagertzeko arriskuan diren flora espezieak: 7	Egoera hobetzea	Biodibertsitate zuzendaria
M3.2 Baso autoktono azalera 10.000 hektareatan handitzea 2006an zegoenarekin alderatuta (Baso Inbentarioa).	195.055 Ha (2006)	205.055	Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria
M3.3 Euskadiko Hezeguneen Lurralde Plan Sektorialean sartutako hezeguneetako 50 hektarea berreskuratzea.	-	50	Biodibertsitate zuzendaria
M3.4 Biodibertsitatearen babesarekin lotutako nekazaritza-ingurumen neurriak gutxienez Nekazaritza Azalera Erabilgarriaren %10ean ezartzea lortzea.	%7 (2003)	%10	Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria
M3.5 Nekazaritza ekologikorako erabilitako azalera handitzea 1.200 hektareatarra heldu arte.	909 (2004)	1.200	Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria
M3.6 Baso ustiapen ziurtatuen azalera 50.000 hektareatakoa izatea lortzea.	27.992 Ha (2004)	50.000	Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria
M3.7 Espezio exotiko inbaditzaileen presentzia murriztea.	Diagnostikoa 2007an	Murriztu	Biodibertsitate zuzendaria
M3.8 Natura 2000 Sareko espazioen artean, Eskualde Biogeografiko Atlantikoan dauden guztiak eta Eskualde Mediterraneoan daudenen %30 Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea lortzea.	Atlantikoa: - Mediterraneo: -	%100 %30	Biodibertsitate zuzendaria
M3.9 Euskadiko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoko guneen %10ek kudeaketako neurri egokiak izatea.	0	66	Biodibertsitate zuzendaria

<sup>24</sup> Berriz bideratu beharreko adierazlea.

HELBURUKO KONPROMISOAK 4	Adierazlea (urtea)	2010eko Helburua	Jarraipena egitearen arduraduna
<b>M4.1</b> Bidaia-eraren banaketa modala berriro bideratzea, motorrik gabeko garraioa (oinez eta bizikletan) eta garraio publikoa (trena, tranbia eta autobusa) sustatuta. Helburua pertsonen urteko egiten duten distantziaren %40 garraio mota horietan egitea da (bidaia-eraren kilometroko neurritan).	Garraio-eraren publikoan eta oinez egindako distantzia: %38 Lbilgailu pribatuaren egindako distantzia: %58 Beste bitarteko batzuen bidez egindako distantzia: %4 (2005)	%40 %56 %4	Garraio zuzendaria
<b>M4.2</b> Merkantzien garraioaren banaketa modala berriro bideratzea, trenbide bidezko azalera-garraio osoaren %15 izateko tonak kilometrotan. Azalera-garraioak errepide eta trenbide bidez egindakoak hartzen ditu barne.	%13 (2006)	15%	Garraio zuzendaria
<b>M4.3</b> Urtero hirigintza ekintzen ondorioz artifizial bihurtzen den hektarea kopurua murriztea.	1,24 Ha/egun (2005)	<1,24 Ha/egun	Lurralde Antolamendu zuzendaria
<b>M4.4</b> Urtero azpiegitura berriak eraikitzearen ondorioz artifizial bihurtzen den hektarea kopurua murriztea.	2 Ha/egun (2005)	<2 Ha/egun <sup>25</sup>	Lurralde Antolamendu zuzendaria

HELBURUKO KONPROMISOAK 5	Adierazlea (urtea)	2010eko Helburua	Jarraipena egitearen arduraduna
<b>M5.1</b> 2010erako, Kyotoko Protokoloan araututako berotegi efektuko gasen isurpen guztiak mugatzea, 1990eko isurpen mailaren %14 gaintu ez dezaten.	+%24 (2005)	≤%14	Klima Aldaketa Bulegoa
<b>M5.2</b> Euskal Autonomia Erkidegoak klima aldaketaren aurrean duen urrakortasuna murriztea.	Definizioz	-	Klima Aldaketa Bulegoa
<b>M5.3</b> Ahal den neurrian, gaur egun garatu gabe dauden eta 100 urteko itzulera epeko uholdeak jasateko arriskua duten eremuen artifizializazioa saihestea.	Eskualde edo guneen %a <sup>26</sup>	%100	Klima Aldaketa Bulegoa

<sup>25</sup> Zenbatzeko metodologian hobe daitekeen adierazlea.

<sup>26</sup> Uholdeak izateko arriskua duten eskualde edo gune geografikoetatik klima aldaketari aurre egiteko egokitze planak egin dituztenen %a jasoko du adierazle honek.







# Eranskinak



## I. ERANSKINA. 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programako konpromisoekin lotutako egitasmo eta programak

ERAKUNDEA	LOTUTAKO TRESNA ESTRATEGIKOAK
<b>Tokian tokiko erakundeak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko Agenda 21en ekintza planak.</li> <li>• Mugikortasun iraunkorreko planak.</li> <li>• Energia kudeatzeko planak.</li> <li>• Hirigintza plangintza.</li> </ul>
<b>Foru aldundiak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizkaia 21 programa.</li> <li>• Gipuzkoa 2020 gogoeta estrategikorako prozesua.</li> <li>• Hiri Hondakinak kudeatzeko Bizkaia 2005-2016 II. Plan Integrala.</li> <li>• Hiri Hondakinak kudeatzeko Gipuzkoa 2002-2016 Plan Integrala.</li> <li>• Arana, Bizkaia eta Gipuzkoako errepede planak.</li> </ul>
<b>Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapena 2007-2013 Eskualde Programa.</li> <li>• Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Plangintza 1994-2030.</li> <li>• Nekazaritzako eta basoko Lurralde Plan Sektoriala.</li> </ul>
<b>Herrizaingo Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Larrialdiko Planak.</li> <li>• Errepide Segurtasunerako Plan Estrategikoa.</li> </ul>
<b>Industria, Merkataritza eta Turismo Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Plana 2006-2009.</li> <li>• Euskadi 3E-2010 Energia Estrategia.</li> <li>• Energia Eolikoko eta Ekonomi Jardueretarako zein Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruen Sorrera Publikoko Lurralde Plan Sektoriala.</li> <li>• Kontsumo Iraunkorrerako Estrategia, 2010erako Horizontea.</li> </ul>
<b>Etxebizitza eta Gizarte Gaiei Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2006-2009 Etxebizitza Gida Plana.</li> <li>• Etxebizitzaren Sustapen Publikoko Lurralde Plan Sektoriala.</li> </ul>
<b>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errepide Segurtasun Plan Estrategikoaren barruko Bide-Heziketako Plana, mugikortasun segurua eta iraunkorra bultzatzeko helburuarekin.</li> </ul>
<b>Osasun Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Osasun Plana 2002-2010.</li> </ul>
<b>Kultura Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kultur Ondarearen Lurralde Plan Sektoriala.</li> </ul>
<b>Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2003-2007 eta 2008-2011 Ingurumen Ikuskaritza eta Kontrol Plana.</li> <li>• Lurzoru Poluituen Plana.</li> <li>• Klima Aldaketaren Aurkako Euskal Plana.</li> <li>• Hondakin Arriskutsuen Plana.</li> <li>• Hondakin Ez-arriskutsuen Plana. Ingurumen arloko Informazio, Komunikazio eta Herritarren Partaidetza Estrategia.</li> <li>• Baliabide Naturalak Antolatzeko Planak.</li> <li>• Biodibertsitate Estrategia.</li> </ul>
<b>Garraio eta Herri Lan Saila</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Garraio Iraunkorraren Gidaplana 2002-2012.</li> <li>• Euskotren XXI Plan Estrategikoa.</li> <li>• Trenbide Sarearen, Portuen, Sare Intermodalaren eta Garraio Logistikoaren Lurralde Plan Sektorialak.</li> </ul>
<b>Arlo guztietan eragiten duten programak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2006-2010 arteko Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Euskal Kontsumo Plana.</li> <li>• Ingurumen Esparru Programa 2002-2006.</li> <li>• Lurralde Antolamendurako Arauak.</li> <li>• Lurralde Plan Partzialak.</li> <li>• Lurralde Plan Sektoriala.</li> <li>• Unibertsitatez kanpoko Heziketa Sistemako Ingurumen-Heziketa Programa.</li> </ul>

## II. ERANSKINA. 2007-2010 eperako Ingurumen Esparru Programa egiteko prozesu partaidetua

**I**ngurumen Esparru Programa 2007-2010 eperako giltzarriak ezartzeko eta garatzeko tresna baliotsuenetako bat hauxe izan da: askotariko formatuak, eragileak eta une garrantzitsuak konbinatu dituen prozesu partaidetu handinahi bat martxan jartzea. Prozesu horrek funtsezko balio erantsia eman dio, bai 2020rako ikuspegi eta helburu estrategikoei dagokienez, bai 2007-2010 eperakoerako konpromisoen eta jarduera ildoen gogoetari dagokionez.

Prozesu osoan, lanerako txostenen gainean segidako gogoetak egin dira eta, azkenean, Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperako aberatsa sorrarazi dute. Programa hori Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteko, enpresetako eta erakundeetako eragileekin kontratatuta dago.

Eranskin honek Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperako egiteko prozesu osoan izandako dinamika parte-hartzaile nagusiak jasotzen ditu, eraturako lan-taldeen arabera antolatuta.

### 2007-2010 EPERAKO IEPN PARTE HARTZEKO PROZESUAREN ESKEMA

- Iraunkortasunaren aldeko gosariak.
- Kotsularako Batzordea.
- Gizarte eta Enpresa Foroak.
- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Batzorde Teknikoa.
- Eusko Jaurlaritzako Sailen arteko Batzorde Teknikoa.
- Foru Aldundiekiko Batzorde Teknikoa.
- Udal Batzorde Teknikoa.

## Dinamika parte-hartzailea: IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO GOSARIAK

**Helburua:** Ekonomi eta gizarte arloan profil altua duten Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteko pertsona ezagunen foroa.

### Lan eskema:

- Lan jardunaldia, 2006ko martxoaren 27an, Bilbon.
- Lan jardunaldia, 2006ko apirilaren 6an, Donostian.

### Parte-hartzaileak:

- |                                   |                                       |   |
|-----------------------------------|---------------------------------------|---|
| • Energia klusterra               | • EHU (7)                             | • Labein  |
| • IK-4                            | • Paperaren klusterra                 | • Confebask   |
| • GGKE                            | • EHU                                 | • Petronor  |
| • Aclima                          | • Eusko Ikaskuntza (2)                | • BBK   |
| • Iberdrola                       | • Guruzetako Ospitalea                | • Bilboko Portuko Agintaritza                                       |
| • Gipuzkoako Merkataritza Ganbera | • Eusko Trenbideak (2)                | • Emakunde  |
| • Arkitektu hirigilea             | • MCC                                 | • Ingurumen Arbitrajerako eta Adiskidetzarako Nazioarteko Auzitegia |
| • Unesco katedra                  | • Makina Herraminta Ekoizleen Elkarte | • Kutxa   |
| • Greenpeace                      | • Pasaiko Portua                      | • Arabako Merkataritza Ganbera                                      |
| • EITB                            |                                       |   |

### Jorratutako giltzarriak:

Ingurumena ikuspegi zabalarekin eta esparru zabal baten barruan lantzeko ahalegina egin zen, kasu honetan bizi-kalitatearen, garapen orokorraren edota gure lurrari eta gure inguruari diogun estimuaren ikuspegitik. Ingurumenak gure balio eskalan duen garrantziaren inguruko auziak, natura babesteak duen balioa eta energiak, mugikortasunak eta merkatu sistemak garapen iraunkorreko pieza giltzarri gisa duten rolari buruzko auziak planteatu ziren, besteak beste.

Bildutako ekarpen ugariak ondoko iritzien ingurukoak izan ziren:

- Ingurumenak oraindik ez du dagokion lehentasunezko lekua betetzen gizarte balioen sisteman. Ezinbestekoa da botere publikoek aktiboki esku hartzea, ingurumena sustatzeko.
- Beharrezkoa da ingurumenak politika publikoetan duen eragina sustatzea.
- Ingurumen aktiboek balioa dute. Merkatuak hala jasotzea da erronka eta, horretarako, ingurumen kostuak eta onurak salneurrien barruan sartu beharko lituzke.
- Klima aldaketaren aurkako ekintzan, beharrezkoa da etxeko ekonomien eta garraiobideen rolak indarra hartzea, industria arloan duen eragina alde batera utzita.
- Energiari buruzko eztabaidaren ardatza energia alternatiboak eta berriztagarriak bultzatzea izan behar du.
- Lurralde, haren ordenamendua eta erabilera izan behar dute garapen iraunkorraren aldeko ekintzaren ardatz nagusietakoak.
- Enpresa arloan, beharrezkoa da ingurumen agertokiaren aukera eta proaktibitate aurreikuspenak transmititzea. Ilusioa transmititu eta ausarta izan behar da.
- Herrialde txikia gara, baina arlo askotan ekin dezakegu eta rol garrantzitsua bete.

## Dinamika parte-hartzailea: KONTSULTARAKO BATZORDEA

**Helburua:** Helburuen eta konpromisoen diagnostikoaren eta lehentasunen inguruko aholkularitza estrategikoa.

### Lan eskema:

- Banakako elkarrizketak.

### Parte-hartzaileak:

- |  |   |
|--|---|
| • Diego Azketa Oartzun. EHU  | • Mari Karmen Gallastegi Zulaika. EHU   |
| • Agustín Gartzia Ureta. EHU   | Demetrio Loperena Rota. Ingurumen Arbitrajerako eta Adiskidetzarako Nazioarteko Auzitegia |
| • Iosu Madariaga Garamendi. Bizkaiko Foru Aldundia                   | Mikel Murga Elexpuru. Leber   |
| • Margarita Nájera Aranzabal. Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa | Miren Onaindia Olalde. EHU  |

### Jorratutako giltzarriak:

Kontsultarako Batzordearen gogoetak banakako elkarrizketen bitartez bideratu ziren, bere ekarpena kokatzeko aurrez egindako lanean oinarrituta. Horrela, jasotako mezuek bi arlo hartzen zituzten kontuan: alde batetik, IEP berriaren ikuspegi estrategikoa eta, bestetik, programak iraungo duen lau urteetan Eusko Jaurlaritzaren konpromisoak eta jarduera ildoak aberasteko eduki zehatzen analisia.

Parte-hartzaile guztiek gogoeta luzeak egin zituzten aipaturiko bi arloen inguruan. Ondoren, jasotako mezuen ardatz nagusiak daude nabarmenduta:

- Egokia da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen konpromisoak Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategian agertzen diren bost helburuetan zentratzea.
- Garrantzitsua da Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperako Euskal Autonomia Erkidegoko egungo errealitatean zentratuta egotea eta, horretarako, handinahiaren eta errealitatearen arteko orekari eutsi behar zaio.
- Ingurumen Esparru Programak gaur egungo joerak aldatzeko zailtasun tekniko, sozial eta instituzionalak onartuko dituen prozesu handinahiago eta jarrai baten parte izan behar du.
- Ingurumen Esparru Programak gogoeta egin behar du euskal administrazioaren jarrera gidatuko duten printzipio zuzentzaileen inguruan. Printzipio horiek erreferentzia izan behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen arazoei aurre egiterakoan eta erabakiak hartzerakoan.
- IEP Herrialdea eraikitzeko Programa da eta, beraz, erakunde guztiek onartu eta bere egin behar dute –Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek-, bakoitzari dagozkion erantzukizunei eta eskumenei jarraiki.
- Funtsezkoa da Ingurumen Esparru Programaren aurrerapausoak ebaluatzeko eta haien jarraipena egiteko dinamika eraginkorrak ezartzea, eta lortutako emaitzen arabera gure jokabidea berritzea eta zuzentzea.
- Maiz, ikuspegi ezberdinak sortzen dira ingurumen arloen inguruan, adibidez: klima aldaketaren, aurreztearen, energia eraginkortasunaren, lurralde antolamenduaren eta garraioaren inguruan.
- Guztiek onartzen dute IEPko konpromisoak betetzeko zeharkako politikak, informazio publikoa emateko mekanismoak, heziketa eta merkatu tresnak ezinbestekoak direla.

## Dinamika parte-hartzailea: GIZARTE ETA ENPRESA FOROAK

**Helburua:** Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenaren egungo egoeraren inguruan eztabaidatzea; herritarren eta enpresen iraunkortasuna bermatzeko helburuak eta jarduerak aztertzea eta proposatzea.

### Lan eskema:

IEP egiteko prozesu osoan, aldian behin komunikazio eta eztabaida bilerak egitea:

- Lehen gizarte eta enpresa foroa. Diagnostikoaren azterketa: enpresa eragileekin bilera, 2006ko martxoaren 13an; gizarte eragileekin bilera, 2006ko martxoaren 14an.
- Bigarren gizarte eta enpresa foroa. Helburu estrategikoen eta konpromisoen proposamena: bilera bateratua, 2006ko ekainaren 8an.
- Hirugarren gizarte eta enpresa foroa. Klima aldaketaren inguruko konpromisoen proposamena: 2006ko ekainaren 28a
- Laugarren gizarte eta enpresa foroa. 2007-2010 eperako IEPko zirriborroaren eztabaida: 2006ko azaroaren 8a.

**Participantes:** Egindako lau foroetan jarraian aipatzen diren erakundeetako ordezkariak hartu dute parte.

- |   |  |  |
|---|--|--|
| • EHUko Zientzien Fakultatea                                | • EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea                      | • EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea       |
| • EHUko Zuzenbide Fakultatea                                | • Ingurugela-CEIDA-Urdaibai  | • Ingurugela-CEIDA-Bilbo                                   |
| • Kresala ingurumen heziketa elkarte                        | • Euskadiko CCOO   | • EHNE   |
| • Ekonekazaritza Elkarte                                    | • Guitrans   | • ELA  |
| • LAB   | • Euskadiko UGT  | • Euskadiko LSB-USO  |
| • ENBA  | • STEE-EILAS   | • Eguzki   |
| • Ekologistak Martxan                                       | • Greenpeace   | • Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa                      |
| • Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasuna                  | • Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa                           | • Bakeaz   |
| • Kalapie Hiriko Txirringularen Elkarte                     | • Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseilua                               | • Banco Bilbao Bizkaia Argentinaria Fundazioa              |
| • Novia Salcedo Fundazioa. Infojuve                         | • Euskadiko Basogintza Elkartearen Konfederazioa                       | • Euskal Telebista   |
| • Radio Euskadi   | • Sirimiri Meteoconsult  | • Prospekzio Soziologikoen Kabinetea                       |
| • Euskal Mendizale Federazioa                               | • Azti   | • Euskal Herriko Elkargoko Hirigintzako Arkitektoen Taldea |
| • Villabonako Udala   | • Ingurumen Ikasketen Zentroa  | • Euskal Herriko Surf Federazioa                           |
| • Bionekazaritza-Arabako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarte  | • Neiker   | • Eusko Ikaskuntza   |
| • Altxairua eta Ingurumena Elkarte (ACYMA)                  | • Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Urtzaileen Elkarte (AFV)  | • Editora del País Vasco 93                                |
| • Euskalit Kalitaterako Euskal Iraskundea                   | • Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa                       | • Bizkaiko Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkarte.         |
| • DZ diseinu zentroa  | • Eroski Koop. Elk.  | • GAIA   |
| • Euskadiko Paperaren Klusterra                             | • Ibilgailuetako Osagaien Industrien Euskadiko Kluster Taldea (ACICAE) | • Hegan EAeko Aeronautikako eta Espazioko Klusterra        |
| • ACLIMA Ingurumen Industrien Euskadiko Kluster Elkarte     | • Etxetresna Elektrikoaren Euskadiko Kluster Taldea                    | • Energia klusterra  |
| • Makina-erreminta Fabrikatzaileen Espainiako Elkarte (AFM) | • Mondragon Kooperatiba Korporazioa                                    | • CONFEBASK Euskal Enpresariaren Konfederakuntza           |
| • Gamesa industrial   | • Industria de Turbopropulsores  | • Iberdrola  |
| • Sociedad Financiera y Minera                              | • Red Eléctrica Española   | • Paisaia  |
| • Petronor  | • Bizkaiko Badia Elektrizitatea  | • Bizkaia Energia  |
| • Labein  | • Gaiker   | • Factor CO <sub>2</sub>                                   |
| • AVEQ-KIMIKA Bizkaiko Enpresa Kimikoen Elkarte             | • Moragues and Scade Abokatuak   | • SPRILUR  |
| • TECNALIA Teknologia Korporazioa                           | • IK4 Research Alliance  | • Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera    |
| • Gipuzkoako Merkataritza eta Industria Ganbera             | • Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera                           | • Garapen Agentzien Euskal Elkarte (Garapen)               |
| • Bizkaiko Foru Aldundia                                    | • San Prudencio Gizarte eta Lan Zerbitzuen Elkarte                     | • ASLE Euskadiko Lan Sozietateen Taldea                    |
| • Lurralde-Azterlanetarako Bizkaiko Iraskundea              | • Interbiak  | • Garapenerako Agentzien Euskal Erakundea                  |
| • CEBEK Bizkaiko Enpresarioren Konfederazioa                | • Eusko Jauraritzaeren Energiaren Erakundea                            | • VISESA Euskadiko Etxebizitza eta Lurzoria                |



**Jorratutako giltzarriak:**

Gizarte eta ekonomia foroetako eztabaidetan parte hartu duten gizarte eta ekonomia erakundeen aniztasunak askotariko ekarpenak eragin zituen eta, batzuetan, elkarrengandik urrun zeuden, ordezkatzan zituzten interesen araberakoak baitziren. Edozein kasutan, bildutako iritziz guztiek aberastu zuten Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperakoari buruzko gogoeta eta erabaki prozesua. Jarraian, izendatzaile komuna eta lau foroetan gehien errepikatu diren elementuak daude nabarmenduta.

Parte-hartze fase guztietan halako kontsulta eta eztabaida prozesuak egitearen garrantziari buruzko gogoetak egin ziren. Prozesu parte-hartzaileak egiten jarraitzeko eta sakontzeko eskari argia transmititu da. Horretarako, askotariko formatoak erabili eta gizarteko, enpresetako zein erakundeetako eragileen arteko eztabaida komuna sustatzea proposatu da.

Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperakoen barruan informazioa ematea eta heztea sustatu behar dela nabarmendu da behin eta berriz.

Lau faseetako eztabaidetako beste ideia komunetako bat izan zen Administrazioaren jokabideak edugarria izan behar duela, eta sailen arteko eta erakundeen arteko politiken koherentzia eta koordinazioa bermatu behar dela. Hori ezinbestekotzat jotzen da ondoren gizarteko beste arlo batzuetan inplikazioa lortzeko.

Zeharkakoagoak diren mezu hauetaz gain, lan foro bakoitzak hainbat arlotako ekarpenak bildu zituen, eta hemen laburbildutakoak dira:

Lehen lan foroan, gaur egungo egoeraren diagnostikoaz eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen politikak etorkizunean gainditu beharko dituen arazo nagusiez eztabaidatu zen. Gehien nabarmendutako lehenetsuneko gaiak egungo produkzio eta kontsumo sistemekin lotutakoak izan ziren, baita osasun-ingurumena binomioaren garrantzia, lurzorua okupazioa, hirigintza hazkundera, mugikortasun eskaria eta energia bitartekoaren kudeaketa ere.

Bigarren lan foroan, hautatutako helburu estrategikoak eta helburu horietan epe motzera aurrerapausoak emateko aukerak aztertu zituzten. Bigarren foro horretan 2010erako 1., 2., 3. eta 4. helburuak lortzeko (aire, ur eta lurzoru garbi eta osasungarriak; bitarteko naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua; naturaren eta biodibertsitatearen babesa; eta, lurralde oreka eta mugikortasuna) konpromisoak ezartzeko kontuan hartu beharreko proposamenak eta zehaztasunak planteatu ziren. Konpromiso hauek lortzeko egin beharreko jardueren inguruko lehen ideiak ere zirriboratu ziren.

Hirugarren lan foroan, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera sektore askotarikoek klima aldaketan duten eragina identifikatzan saiatu ziren parte-hartzaileak. Halaber, Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko EAEko Plan berria kontuan hartu beharreko jokaerak antzematen ere ahaleginu ziren. Izan ere, klima aldaketaren aurkako borroka Ingurumen Esparru Programako 5. Helburuaren ardatz nagusia da. Klima aldaketaren aurkako ekimen zehatzak bildu ziren garraio, mugikortasun, industria, energia, eraikuntza, nekazaritza eta abeltzaintza sektoreei dagokionez, baita klima aldaketara egokitzeari dagokionez ere.

Laugarren eta azken lan foroan, Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperako zirriborro gisa aurkeztutako edukiak eztabaidatu ziren. 2010erako konpromiso eta jarduera ildo zehatzak aurkeztu zizkieten, eztabaidatzeko. Gogoeta aurkeztutako konpromiso eta jarduera ildo bakoitzaren ingurukoa izan zen, definizioaren kalitatea eta koherentzia hobetzeko, batetik; eta, bestetik, planteatutako konpromisoekin bat datorren jarduera ildo multzo bat osatzeko.

## **Dinamika parte-hartzailea: EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILEKO BATZORDE TEKNIKOA**

**Helburua:** Helburuak eta jarduerak eztabaidatzea eta proposatzea, ikuspuntu teknikitik; proposatutako politiken eta tresnen hedatze praktikoa eta operatiboa.

### **Lan eskema:**

- Bertaratuen arteko bi eztabaida txanda, lanketa prozesu osoan jasotako ekarpen teknikoekin osatuta.

### **Parte-hartzaileak:**

- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko sailordetza guztietako helbideak, eta baita IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikokoak ere.

### **Jorratutako giltzarriak:**

Ekarpen teknikoek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko zuzendarien eta teknikarien arteko bi eztabaida txandek ondoko helburuak lortzen lagundu zuten, besteak beste:

- Dagoeneko martxan dauden ingurumen plangintzako arlo eta mekanismoak argi identifikatzea, eta zehaztea zein harreman duten Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperakoekin edo nola txerta daitezkeen programa horretan.
- Beste eztabaida foro batzuetan planteatutako ekarpenak eta iradokizunak bideratzeko aukeren eta metodologiaren gainean gogoeta egitea.
- 2010erako hobetu nahi diren ingurumen arazoaren gaur egungo egoera zein den ezagutzea.
- Proposatutako ingurumen konpromisoetan egiten diren urratsak ebaluatzeko, jarraipen adierazle egokiak eta neurgarriak planteatzea.
- 2010erako hartu beharreko konpromiso bakoitzaren segimendua egiteko arduradunak izendatzea.

## Dinamika parte-hartzailea: EUSKO JAURLARITZA-SAILEN ARTEKO BATZORDE TEKNIKOA

**Helburua:** Helburuak eta jarduerak eztabaidatzea eta proposatzea, ikuspuntu teknikitik; Ingurumen arloko konpromisoak Eusko Jaurlaritzako sailen politiketan txertatzea.

### Lan eskema:

- Bertaratuen arteko bi eztabaida txanda, lanketa prozesu osoan jasotako ekarpen teknikoekin osatuta.

### Parte-hartzaileak:

- Ogasun eta Administrazio Publiko Saila
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- HERRIZAINGO SAILA
- Garraio eta Herri Lan Saila
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. Energiaren Euskal Erakundea
- Osasun Saila

### Jorrotutako giltzarriak:

Ekarpen teknikoek eta Eusko Jaurlaritzako hainbat sailtako zuzendarien eta teknikarien arteko bi eztabaida txandek ondoko helburuak lortzen lagundu zuten, besteak beste:

- Beste sailtan martxan jarritako politikak identifikatzea eta zehaztea Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperakoekin zein harreman duten edo programan nola txerta daitezkeen.
- Ingurumen Esparru Programako konpromisoak beste sailtan txertatzeko eta koherenteak izateko zein koordinazio mekanismo behar diren aztertzea.
- Beste eztabaida foro batzuetan planteatutako ekarpenak eta iradokizunak bideratzeko aukeren eta metodologiaren gainean gogoeta egitea.
- Sailek proposatutako ingurumen konpromisoak lortzeko duten rola eta interesa identifikatzea.
- Konpromiso zeharkakoenen jarraipena egiteko arduradunak izendatzea.

0  
1  
0  
2

## Dinamika parte-hartzailea: FORU ALDUNDIEKIKO BATZORDE TEKNIKOA

**Helburua:** Helburuak eta jarduerak eztabaidatzea eta proposatzea, ikuspuntu teknikitik; Ingurumen konpromisoak lurralde historikoetako politiketan txertatzea.

### Lan eskema:

- Bertaratuen arteko bi eztabaida txanda, lanketa prozesu osoan jasotako ekarpen teknikoekin osatuta.


### Parte-hartzaileak:

- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Saila
- Bizkaiko Foru Aldundiko Garraiobide eta Herri Lan plangintza
- Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua
- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Saila

### Jorratutako giltzarriak:

Ekarpen teknikoek eta foru aldundietako zuzendarien eta teknikarien arteko bi eztabaida txandek ondoko helburuak lortzen lagundu zuten, besteak beste:

- Beste sailetan martxan jarritako politikak identifikatzea eta zehaztea Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperakoekin zein harreman duten edo programan nola txerta daitezkeen.
- Ingurumen Esparru Programako konpromisoak beste sailetan txertatzeko eta koherenteak izateko zein koordinazio mekanismo behar diren aztertzea.
- Beste eztabaida foro batzuetan planteatutako ekarpenak eta iradokizunak bideratzeko aukeren eta metodologiaren gainean gogoeta egitea.
- Identifikatzea foru aldundiek zein rol, interes eta eskumen duten Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiako bost helburuetako bakoitza lortzeko proposatu diren ingurumen konpromisoak erdiesteko. Ildo horretan, arreta berezia jarri behar zaio biodibertsitateari, basoen kudeaketari, garraio politikari, lurralde antolamenduari eta klima aldaketari.



## Dinamika parte-hartzailea: UDAL BATZORDE TEKNIKOAK

**Helburua:** Helburuak eta jarduerak eztabaidatzea eta proposatzea, ikuspuntu teknikitik; ingurumen konpromisoak udaletako politiketan txertatzea.

### Lan eskema:

- Diagnostikoari eta lehentasun estrategikoei buruzko kontsultarako galdetegia.
- Udalsarea 21 Sareko Batzorde Teknikoaren barruko taldekako lan eztabaida bilera, 2006ko urriaren 3an.

**Parte-hartzaileak:** Jarraian aipatutako tokiko erakundeetako teknikariak.

- |                      |                |               |
|----------------------|----------------|---------------|
| • Amurrio            | • Andoain      | • Arrasate    |
| • Arratia            | • Arrigorriaga | • Astigarraga |
| • Ibaizabal Behea    | • Balmaseda    | • Basauri     |
| • Berango            | • Bermeo       | • Bilbo       |
| • Aguraingo kuadrila | • Deba         | • Degebesa    |
| • Derio              | • Donostia     | • Errenteria  |
| • Etxebarri          | • Ezkio-Itsaso | • Gatika      |
| • Gernika-Lumo:      | • Getxo        | • Goierri     |
| • Gueñes             | • Hernani      | • Laudio      |
| • Lea-Artibai        | • Legazpi      | • Loiu        |
| • Mungia             | • Muskiz       | • Oarsoaldea  |
| • Oiartzun           | • Santurtzi    | • Sopela      |
| • Tolomendi          | • Txorierri    | • Uribe Kosta |
| • Urola Kosta        | • Gaubea       | • Gasteiz     |
| • Zarautz            | • Zeberio      | • Zierbena    |
| • Zumarraga          |                |               |

### Jorratutako giltzarriak:

Udalekin egindako lehen kontsulta galdetegi baten bidez egin zen. Zehazki, zera galdetu zitzairen: zein zen aurreko Ingurumen Esparru Programa 2002-2006ri buruz zeukaten ezagutzari eta zenbateraino ezarri zuten, zeintzuk ziren udalerrriaren ingurumen lehentasunak, eta nolako bilakaera izan zuen herritarrak ingurumen arloan zuten esku hartzeak.

Hauxe izan zen ondorio giltzarria: nahiz eta udalek Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia eta hura garatzeko programa ezagutzen zuten, gehienek ez zuten ezagutzen edo ez zuten garbi nola txertatu behar zituzten Ingurumen Esparru Programako konpromiso eta jarduerak tokian tokiko dinamiketan. Beraz, lehen alarma seinaleak Ingurumen Esparru Programako konpromisoak tokian tokiko erakundeetan barneratzea eskatzen zuten.

Gainera, udalerriek proposatutako lehentasuneko jarduerak zein ziren adierazi zuten. Proposamen nagusiak arlo hauetakoak ziren: lurralde antolamenduaren eta hirigintza plangintzaren ingurukoak, industria eta hiri hondakinen kudeaketari buruzkoak, energia berriztagarrien kudeaketari buruzkoak, tokian tokiko ondare naturala ezagutzeari eta babesteari buruzkoak, garraio publikoari buruzkoak eta herritarren parte-hartzeari buruzkoak.

Gogoeta hauek guztiak, eta gainerako lan foroetan egindakoak, Udalsarea 21eko Batzorde Teknikoaren barruko lan jardunaldi batean eztabaidatu ziren. Jardunaldi horretan, Ingurumen Esparru Programako Helburuei lotutako konpromiso eta jarduera ildo bakoitzari buruzko proposamen zehatzak egin zituzten.

Era berean, tokian tokiko erakundeek Ingurumen Esparru Programa 2007-2010 eperako ingurumen konpromisoak betetzeko zein rol eta erantzukizun duten sakon eztabaidatu zuten, baita programa koordinatzeko erakundeen artean zein mekanismo ezarri behar diren ere.

### III. ERANSKINA. Akronimoak

<b>µg</b>	Mikrogramoak
<b>UNHCR</b>	Iheslarietako Nazio Batuen Goi Mandataria
<b>EAE</b>	Euskal Autonomia Erkidegoa
<b>CO</b>	Karbono monoxidoa
<b>CO<sub>2</sub></b>	Karbono dioxidoa
<b>KOH</b>	Konposatu Organiko Hegazkorak
<b>KOHEM</b>	Konposatu Organiko Hegazkor Ez Metalikoak
<b>CH<sub>4</sub></b>	Metanoa
<b>dB(A)</b>	A dezibelak
<b>GIEIE</b>	Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategia
<b>HUA</b>	Hondakin Uren Araztegiak
<b>IIE</b>	Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa
<b>BE</b>	Babestutako Naturguneak
<b>FSC</b>	Basogintza Erabilerako Batzordea (Forest Stewardship Council)
<b>BEG</b>	Berotegi Efektuko Gasak
<b>I+G+B</b>	Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza
<b>IPCC</b>	Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldea
<b>ktep</b>	Petrolio baliokide kilotona
<b>m<sup>3</sup></b>	Metro kubiko
<b>N<sub>2</sub>O</b>	Oxido nitroso
<b>NH<sub>3</sub></b>	Amoniako
<b>AS</b>	Arau Subsidiarioak
<b>NO<sub>2</sub></b>	Nitrogeno dioxidoa
<b>NO<sub>x</sub></b>	Nitrogeno oxidoak
<b>nrg4SD</b>	Garapen Iraunkorrerako Eskualde Gobernuen Sarea
<b>MBG</b>	Material Beharra Guztira
<b>OME</b>	Osasunerako Mundu Erakundea
<b>NBE</b>	Nazio Batuen Erakundea
<b>LGIP</b>	Landa Garapen Iraunkorreko Plana
<b>PEFC</b>	Basogintza Ziurtaginerako Europako Sistema
<b>BPG</b>	Barne Produktu Gordina
<b>PM<sub>10</sub></b>	10 µm baino diametro txikiagoko esekidurazko partikulak
<b>IEP</b>	Ingurumen Esparru Programa
<b>NBIP</b>	Nazio Batuen Ingurumen Programa
<b>LPS</b>	Lurralde Plan Sektoriala
<b>SO<sub>2</sub></b>	Sufre dioxidoa
<b>tep</b>	Petrolio baliokide tona
<b>EB</b>	Europar Batasuna
<b>UNFCCC</b>	Klima Aldaketari Buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa
<b>UNCED</b>	Nazio Batuen Ingurumenari eta Garapenari buruzko Konferentzia (Rio de Janeiroko konferentzia)
<b>EHU</b>	Euskal Herriko Unibertsitatea
<b>KBE</b>	Kontserbazio Bereziko Eremuak